

# Goienkaria

2008ko uztailaren 24a > Eguera > VIII. urtea > 342. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

"Merkatuan dugun tokia mantentzea eta haztea dira gure erronkak"

Aitor Aiestua  
Ulma Construcción  
> 09



**G2a**

Bertso eta  
saiheski-jan  
festa Oñatin > 35

**ARRASATE**

Ino Udaletxera ekimena, pozik jaso  
duen sinadura kopuruarekin > 13

**BERGARA**

Domingo Irala kalea irailaren  
1erako irekiko dute > 20

**ARAMAIO**

Azpiegituraren 1.200.000 euro  
inbertituko dituzte > 30

EKONOMIA > TURISMOA

## Turista gutxiagok egin du erreserba ibarrean

**KRISIA** Egoera politikoa eta ekonomikoa dira, Debagoineneko ostalarien ustez, erreserba gutxiago egitearen arrazoi nagusiak

**DENA GERTU** Oñatiko eta Bergarako turismo bulegoak gertu daude Debagoinera iritsiko diren turistak hartzeko > 05

AHT > PROTESTA

### AHTko lanetan kateatuta

Sei lagun AHTko lanetan zeuden makinetara kateatu ziren, Eskoriatzako Mazmela auzoan > 07



Irailera arte,  
irakurle!

Udako oporrak hartuko ditugu gaur GOIENKARIAN. Hurrengo zenbakia irailaren 5ean argitaratuko dugu. Ordura arte, ondo igaro oporrak eta bueltara arte.



GANBARAN Maider Unda, baserriko ganbaran duen gimnasioan. Goizean goiz jaiki, eta baserriko lanekin hasi aurretik indarra lantzen du, pisuekin.

XABIER URTZELAI

## "Domina batekin itzultzeko asmoarekin noa Olinpiar Jokoetara; ahal bada, urre kolorekoa izan dadila"

OLINPIAR JOKOETAKO LEHIATUKO DEN DEBAGOIENDAR BAKARRA DA MAIDER UNDA OLETARRA; BORROKA LIBREA ETA BASERRIKO LANAK BATERATZEN DITU > 32-33

### AURKIBIDEA

- Debagoina > 04-08
- Elkarritzeta > 09
- Iritzia > 10
- Gutunak > 11
- Herriak > 15-31
- Kirola > 32-33
- Kultura > 37
- Sailkatuak > 38
- Eskelak > 39
- Denbora-pasa > 40
- Gazteak > 42
- Komunikazioa > 43
- Telebista-Irratia > 44
- Non-zer > 46-47

**SUPER AMARA**

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 P Bezeroentzako Aparkaleku

**LORAMENDI**  
**50%**  
**INTERSPORT®** Arrasate



Josean Bernier, Edorta Anduaga eta Ivan del Rio motorzaleak izan genituen gidari Debagoienean barrena motorrean egindako ibilbidean.

TXOMIN MADINA

**ERREPIDEAK > MOTORZALEENDAKO ARRISKUAK**

# Bi gurpilen gainean bideko arriskuei aurre hartuz

## MOTORZALEAK Ibarreko motorzaleek

Arrasateko saihesbidea eta Soraluzerako bidea ikusten dituzte ibarreko errepideetan arriskutsuetan moduan

## ELEMENTU ARRISKUTSUAK

Asfaltoaren egoera txarra da istripu askoren eragile eta metalezko hesiek larritasuna areagotzen dute

## LAGUN GIROA Motorzaleen artean

sekulako lagun giroa dago; errepide bazterrean elkarri laguntzen diote eta baita elkar agurtu ere

**I. AGIRREALDEGI / T. MADINA > BERGARA**  
Udako eguraldi beroak pixkanaka gero eta jende gehiago eramanen du errepideetara. Are gehiago, motorzale eta txirrindulariak. Aurten 12 motorzale hil dira jadanik Euskal Herriko errepideetan, eta beste askok zauri larriak izan dituzte. Motorzaleak hainbat errepideetan dauden metalezko babes hesiengatik dira kexu, eta sistema seguruagoak ipintzeko eskatzen dute.

Motorra eta kaskoa hartu eta ibarreko hiru motorzalerekin Debagoienean barrena egin dugu ibilbidea, Soraluzerantz lehenengo eta Eskoriatzara gero. Errepideko tokirik arriskutsuenen berri emateaz gain, motorzaleen eskariak eta kexak helarazi dizkigute Josean Bernierrek, Ivan del Riok eta Edorta Anduagak.

Arrasateko saihesbidea eta Soraluze alderako bidea aipatu dituzte ibarreko toki arriskutsu moduan. "Arrasateko saihesbidea da aipatzeko gune bat, dau-

den zuloengatik; bestalde, Soraluze alderako bidean dauden bihurguneak ere arriskutsuak dira. Hor ikusi dugu asfaltoa oso gaizki dagoela, ez motorrendako

bakarrik, baizik eta ibilgailu guztietako. Arazoa nahiko orokorra da gurean, baina puntu horietan beharbada nabarmenagoa", dio Edorta Anduagak.

Ibarreko errepideak batetik hamarrera puntuatzeko eskatu diegu motorzaleei, eta zera erantzun digu Edorta Anduagak: "Tristea den arren, zero ipiniko nieke puntuazio moduan. Hesieie erreparatuta, toki askotan oraindik ez daude berrituta eta Debagoienean inon ez daudela berriak esango nuke. Bestalde, horri gehitu behar zaizkio asfaltoaren egoera penagarria; zein zirkulazio dagoen; izan ere, ibilgailuen joantorreria sekulakoa da, eta niri ez zait gustatzen aste barruan motorrean ibiltzea, nahiago dut Araba edo Nafarroa aldera joan motorrean lasai ibiltzeko".

## Gipuzkoako errepide nagusiek lehentasuna izango dute hesiak aldatzeko orduan

Gipuzkoako errepideetan hesiak pixkanaka aldatzeko asmoa dagoela esan digute Foru Aldundian. Oscar Rekalde prentsa arduradunaren esanetan, "sare guztia egokitutako behar da lege berrira. Araudiak dio 400 metrotik beherako erradioa duten bihurguneetan hesiak aldatu behar direla.

Gainera, lehentasuna dute errepide nagusiek. Bestalde, hitz egin dugu motorzaleekin, eurek punturik arriskutsuenak zein diren zehazteko". A-8an eta N-1ean ipini dituzte hesi berriak, baita maila txikiagoko errepide batzuetan ere. "Debagoienean errepide nagusi bakarra AP-1 da eta hor ez dago 400 metrotik beherako erradioa duen bihurgunerik. Orain arte aldaketak egin ez badira, aurrerantzean egingo dira", dio Rekaldek.

Motorzaleendako elementuarrak arriskutsuenak zein diren galdeztuta, bi gauza bereizi dituzte: batetik, motorzalea lurrera botatzen duten elementuak: eguraldia –hau da, elurra edo euria eginez gero lurra laban egoten da; errepidearen egoera bera, zuloak; zikinkeria, olioia, hautsa, loka-tza, kamioietatik jausten diren hondakinak... "Obrengatik, gure inguruko errepideetan lur asko egoten da eta batez ere kamioia pasa berri denean edo lurra busitzean dago arrisku handien. Gainera, beste elementuak finkoak dira eta jakin badakigu non dauden; baina kamioi batek edo auto batek zerbait bota badu errepidea momentukoa da, eta sorpresaz harrapatzen gaitu eta ezin sailhestu daitekeenez, are arriskutsuagoa da", esan digu Anduagak.

## METALEZKO HESIAK

Bestalde, eroritakoan edozein gauzaren kontra talka egin dezake motorzaleak eta horiek ere elementu arriskutsuzat hartzen dituzte. Aipagarrienak hesiak dira. Horretaz gain, seinale batzuk lurrera lotuta daude eta malguak ez direnez, gorputzak indar osoz jotzen du seinalea eta gidariak min hartzen du.

Edorta Anduagaren esanetan, "hesiak atzetik zutabe batzuetara lotuta daude eta poste horiek duten formarengatik hesiaren aurka talka egiten duen gidariak arriskua du. Motor gidari bat 39 km/h abiaduran joatea nahiko da mozteko, ez dago zertan abidura bizian, zoroen pare ibili; motel joanda ere arriskua egon badago. Gidaria jausten denean, normalean hesiaren azpira sartzen da eta posteek ebakiak eragiten dizkiote. Posteek arriskurik handiena atzetik dute; aurretik badute arriskua, baina ez horrenbestekoa. Itxura batean hesiek dute babesga goian eta behean, baina gidaria hesiaren azpiko aldera joandakoan arriskua hor dago".

## ABIADURA

Zirkulazio istripuak, motorzaleenak batez ere, abiadura azkarrekin lotzen ditugu askotan. Edorta Anduagak aitoritu digu hori ukaezina dela, baina ez dela arrazoi bakarra: "Badago jendea motorrean abiadura handian joatea gustuko duena eta azkar joaten dena. Gero eta jende gehiago dago zirkuituetara joaten dena, baina ez da oso ekonomikoa eta jendea oraindik ibiltzen da abiadura azkarrean errepidean, eta hori nahiko arriskutsua da. Baina abiadura ez da arrisku bakarra, poliki joan arren asfaltoa egoera txarrean egonez gero gerta liteke istripua izan eta ebakia egitea. Azkar joan edo poliki joan, beti egon liteke istripu arriskua; zenbat eta azkarrago joan, noski, arriskua ere handiagoa da".

## ERRESPETU ESKE

Motorzaleekin eurek errepidearekin duten harremanaz jardun dugu, baina gainontzeko gidairekin duten harremanaz ere galdu diegu. "Motorrean, autoan,

kamioian zein bizikletan jendeak errespetu gutxi dauka errepidean. Handienak gehienetan uste du berak daukala arrazoia. Esaterako, Frantzian harritzeko da ikustea nolako edukazioa dagoen motorrarekiko, nola motorra ikusiz gero baztertzen diren pasatzeko... Hemen jendea ez dago ohitura motorrari errespetua izaten, jakinda zein ahula den pertsona bat motor gainean. Espero dut denborarekin kontua hobetzea eta edukazio handiagoa iza-tea", dio Edorta Anduagak.

Arriskuak arrisku, aurrerantzean ere motor gainean ikusiko ditugu zale horiek. Anduagaren-dako sentsazio berezia da motorrean ibiltzea: "Autoan sekula sentitzen ez den zerbaite ematen du; haizea nork bere aurka sentitza izugarria da. Gainera, jende asko ezagutzen da eta motorzaleon artean sekulako lagun giroa dago, errepidean elkar agurtzen dugu, norbait motorrean bide bazterrean ikusiz gero geratu egiten gara zerbaite gertatu ote zion ikusteko... Bizitza estilo bat da. Automobia lanarekin lotzen dut gehiago eta motorra aisia-diarekin, ondo pasatzearekin".

**"Zero puntu ematen diet ibarreko errepideei: ez dago hesi berririk, asfaltoaren egoera penagarria da eta ibilgailuen joan- etorria sekulakoa"**

**"Abiadura ez da motorzaleon arrisku bakarra; poliki joan arren asfaltoa egoera txarrean egonez gero gerta liteke istripua izan eta ebakia egitea"**

## EBK Foru Aldundiari eskatu dio Epeleko biribilguneko elementu arriskutsuak kentzeko

Gipuzkoako Batzar Nagusietako Ezker Batua-Berdeak taldeak Bide Azpiegituretako Sailari eskatu dio GI-627ko Epeleko biribilguneko elementu arriskutsuak kentzeko, "motorzaleen edo txirrindularien kalterako direlako". Era berean, ebazpen-proposamen bidez, azterketa egiteko eskatu du. "Horrela, lurraldetako errepideetako biribilguneetako eta inguruko eremuetako elementu arriskutsuak antzemana eta kendu egin ahal izango dira, erorketak edo istripuak eragin ditzakete-eta".

Ander Rodriguez biltzarkidearen esanetan, "GI-627ko Epeleko biribilgunearen barruko aldean zenbait elementu estetiko daude, eta hortz-itxurako harriak baino ez dira. Harriok oso arriskutsuak dira motorzaleendako, istripuren bat gertatuz gero eta hegan irtenez gero". Haren esanetan, "elementu horiek kendu behar dira, eta azterketa egin, elementu arriskutsuak antzemateko eta kentzeko. Errail-babesak ez ezik, beste elementu arriskutsu batzuk ere badaude gure errepideetan. Beraz, behar besteko neurriak hartu behar ditugu, errepideetako erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko", dio Rodriguezek.

Iñaki Madina > Cegasako Industria Negozioetako zuzendaria

## "Motorzaleak hesiaren aurka jotzean gorputza biltzen du"

I. A. > OÑATI

Oñatioko Cegasa enpresak Basyc ize-neko segurtasun sistema garatu du. Errepide bazterretan dauden metalezko hesietan ezartzen den sare elastikoa da. Istripua izanez gero, metalezko hesiaren kontra jotzea galarazteaz gain, motorzalea bera jasotzen du sareak. Iñaki Madina Cegasa etxeko ingeniarri oñatiarrak azaldu dizkigu sistemaren nondik norakoak.

Nondik sortu zen motorzaleendako segurtasun sistemaren ideia?

Cegasa pilengatik da ezaguna, eta pila mota asko egiten dugu. Pila horietako bat da pila industriala, handia, Oñatioko fabrikan egiten dena eta aplikazio asko dituena: telekomunikazioan, arlo militarrean, parkimetrotan, trenbideetan, baita errepideetako argiztapen eta seinaleetan ere. Pila industrial horrek lanean orain dela 25 urte hasi ginen; teknologia berezia da eta oso puntakoa. Zirkulazioan erabiltzen zenez, Cegasan sortu genuen sail bat zirkulazio gaietarako. Hortaz, orain, energiaz gain, argiztapen sistemak, plastikozko konoak, hesiak... egiten ditugu, baita radarrak ere. Zirkulazio arloan diharduena eta era berean erabiltzailea dena aspaldi dago konturatuta arazo batekin, errepideetako hesi metalikoezin, hain zuzen. Hesi horiek motorzaleendako oso arriskutsuak dira, hesien kontra talka eginez gero heriotzak eta anputazioak eragin ditzakelako. Arriskuak txikitzeo, hesi metaliko horiek besete metal batekin babesten dituzte azpiko aldean, baina elementu solidoen dira. Hortaz, gu hasi ginen arazoari aurre egiteko neurriren bila, eta sistema hau sortu genuen.

Zertan datza zuen sistema?

Saiatu gara elementu zurrun bat erabili beharrean bestelako elementu bat erabiltzen babes hesietan. Produktu bat aurkeztu dugu nazioartean, Basyc izenekoa, eta ez da zurruna, geotestil bat baizik. Obretan askotan erabiltzen den materiala da eta egokitzen dugu tratamendu berezia emanet, zirkulazioaren esparruan egoki funtzionatzeko. Produktu berri-



GOIENKARIA

Toki batzuetan ipini duzue Basyc segurtasun sistema. Zein erantzun izan du produktuak?

Cegasak apirilean aurkeztu zuen produktua Intertraffic izeneko nazioarteko azokan, eta erantzun ona izan zuen. Singapurren, Zeelanda Berrian, AEBetan, Europako hainbat herrialdetan hasi gara lehen instalazioak ipintzen. Spainian, Alacanten, Madrilen, Murtzian, Huescan eta Ceutan ipintzen dihardugu. Euskal Herrian gau-de diputazioekin harremanetan, eta interes handia azaldu dute; baita Eusko Jaurlaritzarekin eta hainbat udalekin ere. Oraindik ez daukagu instalazioik ipinitzak Euskal Herrian, baina Arabako Diputazioak eman digu enplazamenduren bat eta hemendik urte batzuetara ikusiko ditugu gure errepideetan horrelako hesiak. Araban ez ezik, gainontzeko probintziatan ere ipintzea da gure asmoa.

Gure ibarrean ikusiko ditugu horrelako hesiak?

Errepide nagusietatik aparte, bigarren mailakoak babestu beharrekoak dira. Debagoienean, Arrasatetik Oñatiirako bidean, Oñatitik Bergararako eta Antzuolarako bideetan, Gatzagako igoeran... babesaren beharra egon badago banda asko dagoelako, baita zuzengune arriskutsuak ere. Kilometro asko diputazioaren esku daude, baina horretaz gain udalen esku ere badaude zati asko. Beraz, espero dugu ipintzea behar diren tokietan.



Epeleko biribilgunearen barruko aldean hortz itxurako harriak daude.

EZKER BATUA-BERDEAK



Proiektu berriak bazkide kooperatibista bihurtu gura ditu langileak; baita Arrasateko Hiper Eroskin lan egiten dutenak ere.

GOIENKARIA

EKONOMIA > MONDRAGON TALDEA

# Eroskiren kooperatibizateak ika-mika sortu du azkenaldian bazkideen artean

Taldeko langile gehienak bazkide kooperatibista bilakatuko lituzke proiektuak; 50.000 inguru

Bazkide batzuk ez daude egitasmo berri horrekin konforme eta prozesua eteteko eskatu dute

**MIRIAN BITERI > ARRASATE**  
Aldaketa garrantzitsuak gertzen ari dira azkenaldian Eroski taldean. *TU Lankidealdizkariaren azken zenbakian azaltzen dutenez, joan den urtean Capraboren %75 erosi zuen eta orain kooperatibizatearen gainekeko proiektu nagusia*

sia du taldeak esku artean. Egun 50.000 langile inguru ditu taldeak eta egitasmo berri horren bidez, langile gehienak bazkide kooperatibista bilakatzea bilatzen dute, baita taldeko partaidetzako sozietateetako langileak ere. Bi urtean egin nahi dute hori.

Aldizkariak dio proposamendu harrera ona izan duela. Aipatzen duenez, Eroski kooperatibismo dagoeneko aldeko bota eman zuen ekainean egindako bilkuran eta Gespako, partaidetzako sozietateetako, bazkideen %90 ere horren alde azaldu dira. Eroski taldeak bere kooperatibizazioa aurreera eramatzen badu, Spainiako bigarren mailako kooperatibarik handiena bihurtuko dela diote.

Esan bezala, 50.000 langile osatzen dute Eroski taldea. Horietatik, 8.500 dira kooperatibako bazkideak eta 5.000 inguru Gespako bazkideak. Gainontzeakoak,

37.000 inguru, langile kontratadunak dira. Debagoienekoak eta Euskal Herrikoak ez ezik, Espainiako langile asko ditu Eroskik.

## DATOZEN PAUSOAK

Hemendik aurrera eman beharreko pausoak ere hitz egiten dute aldizkarian. Ekaineko bilkuran onartu ostean, hilabete honetan proiektua bidaliko zaie Eroskiko batzar orokorreko delegatuei. Iraila bitartean, errektore kontseiluak aurkezten diren helegileen gainean iritzia eman beharko du. Eta jarraian, urri edo azaro aldera, ezohiko batzarra deituko dute, taldea kooperatibizatzen den edo ez erabakitzeko.

Egitasmo hori, baina, ez da denon gustuko eta dagoeneko hasi dira horren kontrako iritziak entzuten. Azken asteotan bazkideen bi eskutitz jaso ditu GOIENKARIAK. Proiektu horren atzean botere-gunea Euskal Herriko kanpora ateratzeko eta Madrilaren kokatzeko saiakera dagoela diote eta horren gainean eztabaidatzeko aukerarik ez dutela izan jakinarazi dute. Horretaz gain, prozesu horrek ekar ditzakeen ondorioez ohartarazi dute.

## ALDEKO IRITZIA

**Constan Dacosta**

EROSKI TALDEKO PRESIDENTEA

**"Eroski izango da, mundu mailan, lan bazkide gehien izango duen kooperatiba"**

Eroski taldeko presidente Constan Dacostak kooperatibizazioaren prozesuaz zabal hitz egin du *TU Lankide-n*. Gogor defendatu du esan-dako proiektua: "Emaitza onak hobetzeko eta bereziki, etorkizunean, emaitza horiek ziurtatu ahal izateko beharrezko da". Dacostaren esanetan, "proiektua garatzen denean Eroski izango da, mundu mailan, lan bazkide gehien izango duen kooperatiba".

Bi urte daramatzate Eroskin esandako proiektuarekin lan egiten. Horren gaineko arrazoibideak eskaini ditu Dacostak. Hala, "koherentziagatik" martxan jarri dutela esan du: "Langile guztiak kondizio bera dute eta antzeko eskubide politiko, ekonomiko eta sozialak eduki behar dituzte". Horretaz gain, "enpresa eredu simplifikatu" eta "lehiatzeko abantaila bultzatu" gura dela aipatu du. Bestalde, kooperatibizazioaren gainekeko eztabaidea hezkuntza kooperatiboa-rendako programa egokieta bilakatu dela azpimarratu du.

Eroski taldeko presidenteak esan duenez, "gehiengoa, Eroskiko bazkideak zein kontratadunak, proiektuaren alde dago. Horrelakorik lehenago zergatik ez dugun egin galdetzen diogu gure buruari".

## DATUA

**50.000**

LANGILE

Eroskiren erronka garbia da: gaur egun dituen 50.000 langileetako gehienak bazkide kooperatibista izatea. Orain 8.500 bazkideak dira, 5.000 inguru Gespako bazkideak, eta gainontzeakoak kontratadunak.

## KONTRAKO IRITZIAK

**Agustin Zugasti**

MONDRAGON TALDEKO KIDEAK

**"Badirudi Eroskiko zuzendariak Espainiaren nozioarekin bat egitearen aldeko direla"**

*Eragindako mutazioa* Eroskin izeneko artikuluan, Simón Martinez de Arroiabe, Anton Elortza eta Agustin Zugasti Mondragon taldeko kideek zera diote: "Eroski taldeko kooperatibo bihurtzeko atzera gabeko bidezko abia liteke, bere filial espainoletan langileak masiboki bazkide bihurtu eta, hortaz, boterea pixkanaka bere esku hartzen badute". Aukera horri heltzekotan, "ez dirudi eragiketa urrun dagoenik Eroskiren zentrala Madrilaren kokatzea", esan dute. Ohartarazi dute akats historikoak errepikatzeko "arriskua" dagoela. Alegia, "iraultza industrialaren hastapenetan burgesia industrialak Espainiaren alde jokatu izana, euro-par merkatuko aukerak ahultzen ari zirelarik, estatuan ikusi baitzituen ateak zabalik". Bazkideen arabera, taldea antolatzeko badago beste formularik: "Badira kooperatibaren etorkizunari eusteko bide ego-kiagoak. Baina horietaz jarduteko tarte txikia uzten du Eroskik".

Kooperatibista euskaldun baten bigarren eskutitzean, antzekoa esaten da. Erabakiak hartzeko gaitasuna Madrilera eraman gura dela dio. Erabaki horrek "enpresa zein antolakuntza arrazoirik" ez duela eta "batzuen lotura ideologikoan" duela oinarria esan du.

EKONOMIA > TURISMOA

# Krisiaren eraginez, erreserba gutxi Debagoineneko ostatuetan

Krisia eta egoera politikoa dira erreserba kopurua jaistearren arrazoiak, diote ostalariek

Dena den, Oñatiko eta Bergarako turismo bulegoak gertu daude turistak hartzeko

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

"Krisian gaude eta horrek eragin zuzena du erreserbak egiteko orduan". Halaxe erantzun digu Arrasate Hoteleko Rosik udako egunetarako espero dituzten turista kopuruari buruz galdeztuta. Oraindik goiz da aurtengo udak emango duena aurreratzeko, baina erreserba kopuruek behera egin dutela esan digute hainbat ostattutako ugazabek. Horren harira, Arrasate Hoteleko bi arrazoi jarri dituzte: "Gure ustez, krisia eta Euskal Herriko bizi dugun egoera politikoak eragin zuzena du. Gainera, erreserbak egiteko deitzen dutenek beherapenak eskatzen dituzte, eta informazio eske deitzen duten askok ez dute egonaldia gurekin egiten. Horrek guztiak esan gura du, ostattua hartu aurretik, hainbat aurrekontu eskatzen dituztela". Iritzi berekoa da Oñatiko Arregi landa-turismo Mertxe Esnaola: "Iaz beteta genuen ostattua garai honetarako, oso ondo egin genuen lan. Nire ustez, krisia eta egoera politikoa dira beherakadaren arrazoi nagusiak". Biek ala biek esan digute abuztuaren 11tik 17ra arteko aste rako jaso dituztela erreserba gehien.

Dena den, azken orduko erreserbak hartzeko gertu daudela esan digute ostattu gehienetan: "Beti egoten dira azken orduko deiak, eta aurten horien zain egon beharko dugu".

Debagoinera etortzen diren turisten egonaldiak ez dira oso luzeak izaten: "Gure ostatturako ditugun erreserbak 4-5 egunekoak dira, eta pozik gaude, kontuan hartuta gehienak egun bat edo bikoak izaten direla. Oso gutxi dira zortzi egunerako etortzen direnak. Oñatik turismo asko erakartzen du, baina hau ez da kostaldea", esan digu Mertxe Esnaola. Gehienbat kataluniarak, valentziarrak, murtziarrak eta madrildarrak dira Debagoinera etortzen direnak.

## TURISMO BULEGOAK, GERTU

Ostatuetan erreserba gutxi dituzten arren, ibarrera etortzen diren turistak hartzeko gertu daude Oñatiko eta Bergarako turismo bulegoetan. Biek ala biek astelehenetik domekara zabalduko dituzte ateak: Oñatiko bulegoak, astelehenetik egubakoitzera 10:00etik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era; zapatuetan, 10:00etik 14:00etara eta 16:30etik 18:30era; eta domeketan, 10:00etik 14:00etara. Bergarakoak, aldiz, astelehenetik zapatura, 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era, eta domeketan, 11:30etik 14:30era zabalduko du. "Orain arte ez dugu domeka guztietaan zabaldu, baina abuztuan egunero zabalduko dugu", esan digute Bergarako turismo bulegokoek.

Aurreko urteotako eskaintza bera jarriko dute turisten esku Oñatin. "Ez dugu berrikuntzarik;



Oñatin, unibertsitateko eta parrokiako bisita gidatuak egingo dituzte.

J.A.

parrokiara eta unibertsitatera egiten ditugun bisita gidatuekin jarraituko dugu, eta parrokiako klaustroan dagoen Corpus eguneko erakusketa sartu dugu. Bisita gidatuak lau hizkuntzatan egingo ditugu: euskaraz, espainolez, ingelesez eta frantsesez", esan digu Oñatiko Turismo teknikari Iñaki Igartuak.

Bestalde, Bergarako bulegoan berrikuntzarik ez dutela esan digute: "Orain arte egindako bisita gidatuak eskaintzen jarraituko dugu. Bestalde, herriko eskaintza biltzen duen liburuxka berriaren zain gaude. Une honetan inprimategian dute, eta bi aste barru-edo turisten eskura jarriko dugu".

NORA GOAZ DEBAGOIENDARROK?

## > ATZERRIRA

Costa Rica, Vietnam, Kroazia eta Asia aukeratu dute beste batzuek. Tunisia ere asko saltzen da; aditu esanetan, "gertu dagoelako, hondartzak eta zirkuituak dituelako eta prezio onak eskaintzen dituztelako". New Yorkera joateko erreserba asko egin dituzte aurten. "Dolarraren jaitsiera dela-eta, askok New Yorkera joatea erabaki dute", esan digu Eroski Bidaia agentziako Marisak.

## > ITSASONTZIAN

Opor egun guztiak hotelean sartuta egon ordez, geroz eta gehiago dira itsasontzia aukeratzen dutenak, itsas-bidaia egiteko; batzuek, Mediterraneo eta Italia aldea ezagutzeko, eta beste batzuek, Karibeak zazpi edo hamar eguneko bidaia egiteko.

## > BATEZ BESTE, 10 EGUN

Batzuek astebeteko oporrak hartzen dituzte, eta beste batzuek, 15 egunekoak. Hortaz, debagoien-darron oporrak, batez beste, hamar egunekoak izaten dira.

## > GEHIENOK, ABUZTUAN

Azkeneko urteotan, uztail, abuztu eta irail artean banatzen dituzte oporrak; baina oraindik ere debagoiendar gehienek abuztuan hartzen dituzte oporrak. "Iraila eta uztaila hilabete onak dira, prezioak askoz merkeagoak dira-eta. Baina, ibarrean, gehienak abuztuan joaten dira", esan digu Arrasate Bidaia agentziako Anek.

## > PREZIOAK

Abuztuko lehen hamabostaldia da garestiena, eta uztaleko eta

iraileko lehen hamabostaldiaaren alderatuta, oso garestia da. "Hotel berean, askoz merkeagoak dira uztaila eta, batez ere, iraila. Bestalde, abuztuaren 20tik aurrera, zertxobait merkatzen dira prezioak", esan digute.

**> ERRESERBA, ALDEZ AURRETIK**  
Oporretako prezioa merkatzeko, geroz eta pertsona gehiagok maiatzean egiten dituzte erreserbak; besteak beste, %15eko beherapena egiten dute, eta umeek gutxiago ordaintzen dute.

## > AZKEN ORDUKOAK

Dena den, oraindik erreserbarik egin ez duenik badago gurean. "Beti etortzen dira azken ordukoak; egia esan, eskaintza bereziak izaten ditugu, eta bi lagun batzen prezioan joan daitezke".

> BERGARA

## "Euskararen erabilera naturala da Bergarako Udalean"

Bergarako PSE-EEk euskararen erabilera normalizatua egiteko egindako eskaerari erantzuna eman dio Agurne Barruso alkateak: "Euskararen erabilera naturala da Udalean, 17 zinegotziatik 16 euskaldunak gareta". Alkateak dio, gainera, dokumentu guztiak bi hizkuntzatan kaleratzen dituztela: "PSE-EEko zinegotziek espainolez egiteko duten eskubidea errespetatzen dugu; osteria, eurek ez dute inoiz dokumenturik aurkezten bi hizkuntzatan".

Bi hizkuntzak erabilitzean legea errespetatzen dutela dio alkateak, "lege hori euskaren erabilera arako oso lagun-garia ez den arren".

> OÑATI

## Duruko Jaian 200 bat lagunek hartuko dute parte domekan

Zortzigarren urtez Duruko Jaia ospatuko dute domekan, eta antolatzaila 200 bat lagun espero dituzte. 11:00etan meza egingo dute Aierdiko aterpean, eta ondoren lurcha emango dute. Ondoren, Duru eta inguruetako artzainek emandako gazta dastatuko dute, eta bazkaldu aurretik, Zarzabal, Otadui eta Goiko Benta aterpeetan poteoan ibiliko dira. Bazkaria 15:00etan hasiko dute. Bi urtean behin egiten duten jaia 12 aterpetzek antolatzen dute; hain zuzen ere, Aierdi, Belaskua, Unamendi, Azkonar-Zulueta, Zarzabal, Gure Kibia, Korostabil, Horkonpon, Goiko Benta, Tellatxabola, Aitzarte eta Otadui elkar-teek.

> OÑATI

## Abuztuan zabaldu eta irailean inauguratuko dute Arantzazu hotela

Hiru izarreko Arantzazu hoteleko lanak bukatzean daude. "Obra zibila laster bukatuko dute, baina oraindik ez dakigu noiz zabalduko dugun hotela, tramitazio batzuk egin behar dira-eta. Baina abuztuan zabalduko dugu, eta inaugurazioa irailean egingo dugu", esan digu Telesforo Zuriarrain frantziskotarrak. Berrikuntza lanak aprobetxatuz, Foru Aldundiak urak depuratzeko lanak egin ditu han, eta bidea oztopatuta egon da; baina lanak bukatu bezain laster bidea zabaldu egingo dute.

Arantzazu hotelak 52 gela ditu, sei gela lagun bakarra-rendako eta gainerakoak, bi lagunendako.

Oporrak antolatzeko orduan bidaia agentziatar joateko ohitura dugu debagoiendarrok. Arrasate Bidaia agentziako Anek eta Eroski Bidaia agentziako Marisak eman dizkigute oporreburuzko datu batzuk.

## > UHARTEAK

Beste behin, Kanariar Uharteak dira debagoiendar askorendako opor-leku. Jeneralean, Tenerife, Kanaria Handia eta Lanzarotera joaten dira gehienak. Aurtzen, gainera, Kanariar Uharteak Balearrak baino hobeto saldu dituzte agentzietan.

## > SALOU, BENIDORM...

Espanian, Salou, Benidorm eta Andaluziako kostaldea eta barnealdea dira askok egiten duten aukera.

UDALEKUAK &gt; BALORAZIOA

# Aurten, inoiz baino ume gehiagok eman du izena Debagoieneko udalekuetan

Oñatin salbu, ibarreko gainerako herriean amaitu dira udalekuak, eta balorazioa positiboa izan da

Parte-hartza, elkartrukea eta laguntasuna praktikatzen dituzte ume eta gaztetxoek

**NEREA MENOR > BERGARA**  
Ibarreko haur eta gazte askok parte hartu dute udaleku irekienean. Inoiz baino haur gehiagok eman dute izena aurten eta, urtero bezala, primeran pasatu dute oraingoan ere.

Oñatin salbu, ibarreko gainerako herriean amaitu dira udalekuak, eta balorazio positiboa egin dute udalerri guztietan: "Ondo joan dira egun hauetan; eguraldi aldetik ere gustura ibili gara, euririk egin ez duelako, eta egitarau osoa betetzen gabilta", diote Bergaran.

Oñatin, 250 umeak hartu dute parte Udalak antolatutako udaleku hauetan; Bergaran, Xipizaro ludotekaren udalekuetan, 325ek; Arrasaten, Txatxilipurdirekin, 328k; eta Arizmendi ikastolak antolatutakoetan, 402 ume inguru agertu dira. Haurren eta begiraleen kopuruak gora egin du. Hala, Arrasaten, adibidez, 39 begirale egin ziren umeak zaintzen. Aipatzeko da elkartea honek bere 20. urteurrena bete duela aurten. 20 urteetan zehar

ibili da herriko gaztetxoak zaintzen eta bide batez hezitzen; harro egoteko lorpena, ezbairik gabe. "Orain arte ez dugu arazo larririk izan; umeen arteko hase-rrealditxoez gain, dena ondo joan da. Primeran irten dira udalekuak", diosku Maitek, Txatxilipurdiko koordinatzaileak.

Arizmendiko haur eta gaztetxoak Nafarroa ezagutzen ibili diren bitartean, beste udalerrietaok herrian pasa dituzte astelehen eta egubakoitzia bitarteko goizak. San Fermin txikiak urtero ospatzen den ekintza izaten da. Umeek primeran pasatzen dute zezenaren inguruan korrika. Honez gain, Bergaran irteerak egin dituzte Gorlara eta herri kanpoa auzoetara. Oñatin antzerki eguna ospatu zuten, "ume guz-

tiak bildu ziren eta talde bakotzak bere antzerkia aurkeztu zuen. Mozorroto eta guzti egin ziren", azaldu digu Jaione Elortzak, Oñatiko koordinatzaileak.

Udalekuak aberasgarriak dira gaztetxoentzat. Parte-hartza, elkartrukea eta laguntasuna praktikan jartzen dituzte eta sormena lantzen dute. Umeentzat jolasak ze garrantzitsu diren badakite begiraleek, eta jolasten denbora asko ematen dute.

## HELBURUAK ETA BALOREAK

Udaleku guztietan antzerako baloreak sustatu nahi izan dituzte. Oñatin, euskara bultzatzea eta herriko eskolen arteko integrazioa izan dira helburu nagusiak. Bergaran, elkarrenganako errespetua eta talde lana bultzatu

dituzte. Arrasaten, euskara bultzatzea izan da zeregin nagusia, baina "elkarbizitzarako oinarrizkoak diren kontuak" ere landu nahi izan dituzte: aniztasuna, ingurugiroarekiko eta beste haurrenganako errespetua eta beste batzuk. Arizmendin ere aurretik aipatutako balore guztiak alde egin dute kirola praktikatuz.

Udalekuak amaitu zituzten lehenengoak Arrasateko umeak izan ziren. Martitzenean jolas handi batekin eman zieten amaiera udalekuei. "Herrian lau gune prestatu genituen: Afrika, Asia, Europa eta Amerika. Txoko hauetako bakoitza lau zatitan banatzen zen: eskulanak, galderak, probak eta jolasak. Haurek guztietan hartu zuten par-

te. Amaitze, perkusio talde baten ikuskizuna egon zen", azaldu digute Txatxilipurdin. Bergaran ere kurtso amaierako jaialdia egon zen hilaren 24an: talde bakotzak emanaldi ezberdin bat antolatu zuen eta guztien aurrean aurkeztu zituzten dantzak, antzertiak eta bestelakoak. Bukatzeko lunch bat egin zuten haur eta begiraleek; bertan, orio-garriak banatu zizkieten gaztetxoek. Oñatiko gaztetxoak hurrengo astean ere bueltatuko dira udalekuetara, uztailaren 30ean amaitzen baitute. Egun horretan, eskulanak eta jolasak prestatuko dituzte eta baita merendola bat ere. "Amaitze, ume bakoitzari oparitxo bat emango diogu", esan digu Jaione Elortza koordinatzaileak.

## Arizmendiko gaztetxoak Nafarroan izan dira

5-18 urte bitarteko gaztetxoak egin dira aurten Arizmendiko udalekuetan. Taldean banatu dituzte, mailaren arabera, eta uztailaren 2tik 23ra bitartean, txanda ezberdinetan banatuta, Nafarroa aldean izan dira: Garesen, Acedon, Otsagin eta Zurian. Bertan, bizikletan ibili dira eta mendi bueltak egin dituzte, beste gauza batzuen artean.

Gustura daude emaitzarekin: "Umeak oso gustura egin dira, eta eguraldia ere ona izan da, orokorrean", diote begiraleek.



DBH 1. eta 2.mailako ikasleak Zurizan izan dira aurten Arizmendiko udalekuetan.

ARIZMENDI

**ERROMESAK > MUGARIK GABEKO KRISTAUAK**

## Mugarik Gabeko Kristauak Begoñarako bidean geldialdia egin zuten herrian

**N.M. > BERGARA**  
Mugarik Gabeko Kristauen Elkartea antolatuta, estatu osoko hainbat elizbarritutik bildutako 100 gazte inguru erromes doaz Begoñako Basilikara. Burgosko Santo Domingo de Silosen elkartu ziren uztailaren 15ean; bertan, Aita Santuak Sidneyn egin zuen guztia ikusi zuten bost egunetan zehar, eta hilaren 20an Loiolara abiatu ziren.

**GELDIALDI ASKO**  
Begoñarako bidean hainbat geldialdi egin zituzten: Bergaran, Elorriion, Zornotzan eta Basaurin. Martitzenean egin ziren Ber-



Mugarik Gabeko Kristauak, Bergarara ailegatzen.

MAITE FDZ. DE PINEDO

garan eta 19:00etan San Pedro parroquiako mezan parte hartu zuten, kantuak eskainiz eta gitarra joaz. Gauean, Labegaraieta-

**URTEGIAK > ESPEZIE INBADITZAILEAK**

## Zebra-muskilu larbak Ulibarriko urtegian

Ekologistak Martxan taldekoek diote egitura hidraulikoek, ur-araztegiak... erasotuko dituztela muskuluek


**N.M. > BERGARA**

"Zebra-muskiluaren inbasioa nahitaezkoa da Euskadin". Ondorio honetara heldu dira Ebroko Konfederazio Hidrografikoan, joan den uztailaren 7an Uribarri-Ganboa urtegiko ure-

tatik hartutako hainbat laginetan zebra-muskilu larbak aurkitu ondoren. Orain arte larbak besterik aurkitu ez arren, Ur komisarioak, kontzentrazio esanguratsua dela deritzo eta molusku helduak daudela frogatzen duela dio.

### UR ARAZTEGIAK ERASOTU

Fitoplanton disolbatuaren murritzeta ekarrisko duela iragari diute Ekologistak Martxan taldekoek, eta fondoaren konposizioa aldatu dezaketela. Halaber, moluskuak egitura hidraulikoak, turbinak, ur araztegiak, e.a. erasoko dituztela deritzote.



Ertzainen bi patrulla joan ziren Mazmelara.

IKER BARANDIARAN



Makinara igota, protesta egiten.

HEICKI TXIKIA



Ertzaina, katea apurtzen.

I.B.

ABIADURA HANDIKO TRENA > PROTESTAK ESKORIATZAKO OBRETAN

## AHTko lanetan kateatu dira sei lagun Mazmelan

Ertzaintzak ez du  
inor atxilotu,  
baina kateatutako  
sei lagunak  
Bergarako epaitegira  
deitu dituzte  
hilaren 28an

### HILAREN 28AN, EPAITEGIRA

Ordu bata jo aurretik, ertzainen  
bi patrulla igo ziren lanetara.  
Kateatuta zeudenak eta bildutako  
batzuk identifikatu zituzten,  
baina une horretan ez zen tentsio  
berezirik izan.

### KANPALDIA ZALDIBIAN

### Gaur hasiko da AHT salatzeko kanpaldia

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA  
Badira bi aste Abiadura Handiko Trenaren lanak ibarrera heldu zirela. Bada, atzo, eguztenean, protesta egin zuten Eskoriatzako Mazmela auzoan. Hala, AHTren kontra dauden Debagoineneko eta Debabarreneko sei lagun hondeatzeko bi makineta lotu ziren. 13:00ak jota kateatu ziren, langileak bazkaltzera joan zirenean. Kateatutakoez gain, lagun gehiago bildu ziren; guztira, 30 bat pertsona.

14:00ak aldera, AHT egiten dabiltsan langileak bueltatzean ohartu ziren gertaeraz, baina protesta egin zutenen azalpenak entzun ostean, alde egin zuten.

15:15 inguru, berriz, ertzainek goiko hondeatzeko makinara kateatuta zeuden bi lagunen kateak moztu zituzten. Bide batez, jakinarazi zieten astelehenean, hilaren 28an, Bergarako epaitegira joan beharko direla, 13:00etan. Hirugarrena bertan lotuta gelditu zen, lepoa lotuta zeukanako eta ezin zutelako askatu.

### TENTSIO UNEAK

Horren ostean, ertzainetako batek eta gazte batek eztabaidea izan zuten, eta ertzainak borra-rekin jo zuen gaztea belaunean. Jarraian, beste ertzain batek heldu egin zuen, argazkiak egitea galarratzeko, eta identifikazioa eskatu zion.

Behoko hondeatzeko makinetan lotutako bi lagunen kateak moztu, eta inguruan bildutako pertsona guztia (kazetariak barne) eremutik modu txarrez bidaли zituzten. Azkeneko biak suhiltaileek askatu zituzten 15:30ean.

Protesta egin zutenek deialdi zabala egin zuten hilaren 31n, 13:00etan, Kanpanzarren elkarre-taratzea egiteko.

ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

## Harpidedunen txokoa Iraileko zozketa

Sariak irabazteko  
**HARPIDETU!**  
Tel.: 943 08 10 50  
20 euro abendura arte

### CD-irratia-stereoa

EROSKI  
zurekin



### KAMISETA+POLTSA

skunkfunk



### AQUARIUM-EKO SARRERAK



### SARI NAGUSIA:

**ARBELAITZ JATETXEAN  
AFARI BAT**

**Arbelaitz.**  
ARBELAITZ • DONOSTIA

Arbelaitz jatetxea  
<http://www.arbelaitz.com>  
943 30 82 20

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, hain zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

**gure artekoak**

**FORD KUGA** > Bi hilabete badira Ford etxeak Kuga autoa merkaturatu zuela. Diseinua eta, batez ere, trakzio adimenduna dira auto berriaren elementu adierazgarrienak Amets etxeko arduradunaren esanetan.

Nikolas Igartua > Amets etxeko arduraduna

## "Errepidearen araberako trakzioa ezartzen du autoak"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Ford Kuga autoaren ezaugarri adierazgarriena trakzio adimenduna da. Errepidearen arabera, autoak berak aldatzen ditu gurpiletako trakzioak eta momen-tuan komeni zaiona jarri.

"Aurreko trakzioa beti dauka ezarrita. Atzeko gurpiletan, ostera, beti dauka %3 ezarrita, baina errepidearen arabera trak-zio handiagoa edo txikiagoa jarriko du", dio Nikolas Igartuak, Amets etxeko arduradunak. "Adibidez, autoa izotzetan sartzen bada, izotza ukitzuen gurpi- len trakzioa txikitu egingo da eta beste gurpilek indar handiagoa hartuko dute", azaldu du.

Bestalde, autoa azeleratzen ari denean, atzeko gurpilek %25eko indarra hartzen dute, eta behin autoa abiadura jakin batera doanean, aurreko gurpileta pasatzen da trakzioa.

**KINETIC DESIGN**

Diseinua da Igartuak azpimarra-tu duen beste ezaugarri bat. Ford etxeak duen programa da Kinetic Design; autoa "polita" da, denen gustukoa Igartuaren esanetan.

Gainera, Europa mailan lan egiten duen Euronap zigiluak bost izar eman dizkio Ford Kuga auto berriari.



Nikolas Igartua, Kuga auto berriarekin.

A.E.

### Ford Kuga 2.0 TDCI 136 ZP

|              |                                  |
|--------------|----------------------------------|
| Prezioa      | 31.626 euro                      |
| Luzera       | 4,43 metro                       |
| Zabalera     | 2,12 metro                       |
| Maletategia  | 360 litro <sup>(1)</sup>         |
| Kontsumoa    | 6,4 litro /100 km <sup>(2)</sup> |
| Abiadura     | 182 km/h <sup>(3)</sup>          |
| Otik 100era  | 10,6 seg.                        |
| CO2 isurketa | 169 g/km                         |

- (1) Gehienezko edukiera
- (2) Batez besteko kontsumoa, hiri barruko eta errepidekoak kontuan hartuta
- (3) Gehienezko abiadura

**MOTORRAK**

Oraingoz motor aukera bakarra atera du Ford etxeak: dieselzko TDCI. Baina uda osterako beste motor aukera batzuk eskaintze-ko asmoa dute; gasolinazkoak, adibidez.

"Turismo on baten prestazio-ak ditu, baina 4x4 trakzioarekin", azaldu du Igartuak. Mendian eta errepidean ondo doan autoa da. Gainera, segurtasun sis-tema guztiak ditu: ABS, EBD, ESP eta sei aire-poltsa, besteak beste.

Hortaz, publiko zabalari zuzendutako autoa da.

**begi-bistan**



### Uda giroa ibarrean (Bergara) 2008/07/22

Argazkia: Arantzazu Ezkibel.  
Testua: Arantzazu Ezkibel.

Opor usainarekin, eta batez ere uda giroarekin, ibarreko igerilekuetako zelaiak jendez betetzen dira. Jendea eguzkitan ikusten da martitzenean Agorrosinen hartutako irudian.

**Har ezazu parte:**  
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera:  
goienkaria@goiena.com

**etxeko leihotik**

Iban Arantzabal > iarantzabal@goiiena.com

## Abuztuko zerbitzu minimo onenak, Oñatin?

Zapaterok baiño diru gehixago emongo dau Lourdes Idoiagak dendia 15 egunian zabaldu ezkerro. Ez da makan-la Oñatiko alkati! Aurreko asteko GOIENKARIAko notiziak diño: "Abuztuan 15 egunetan zabalten duten negozioek 600 euroko laguntza jasoko dute". Txanda elkarteko kidiekin egon eta proposamen zehatza egin dabe Oñatin. Txanda elkarteko 30 komertziotik gora dira izena emondakuak. Txandakuak ez diran 20ttik gorak be zabalduko dabe. Zortedunak bai turistik eta batez be oñatiarrak!

Beste modu batian dare gure ibarreko auzo txikixak eta bai-ta herri txikixenak be. Badakit ahalegiña egiten dihardue-la udaletatik-eta, baiña ez dago errezz, itxuria.

Oñatin zerbitzu minimuak (minimuak baiño gehittuau...) egon daittezen egindako pro-posamena berritzailia da. Astian egon naiz Arantzazun eta han be ez dare atzian geratzeko. Hango lanek ez dake aka-beraik! Handik Txopekuan baziak zera eta hangua bai berri-ttasuna: jan-edan onak, zerbitzu ona eta euskalduna... eta mobilendako lekurik ez. Mobillak kanpuan bakarrik eta ezta ataixan be bertako kartelak esaten dabent moduan.

> **Oñatittikk Euskal Herrira** pasauko da ideiau. Hasi dira inguru-ko herrixak be galdezka ia zer egiten diharduen Oñatin. Idea onak txalotzekuak dira eta darenetan kopixau eta martxan jartzekuak.

> **Turismuari begira** egindako ekimena be bida eta Arantzazura, Arrikutzera edo Oñatira bertara datozenak pozik baziak dabe hemen edo han. Irabazole haundi-nak, baiña, herritarra, oñatiarrak.


**izen propioak**



**Miguel Lazpiur**  
CONFEBASK



**Aitor Lopez Rekarte**  
FUTBOL JOKALARIA



**Sabino Zuazabeitia**  
ABADEA

Miguel Lazpiur ber-gararrak Confe-bask-eko presidente karguan jarraituko du datozen hiru urteetan. Joan den astean egindako batzarrean onartu zuten. Bizkaia, Gipuzkoa eta Ara-bako patronalen babesia izan zuen Lazpiurrek kargua berresteko orduan.

Azken denboraldia Almeria taldean jokatu ostean, talde berri baten bila hasi beharko du arrasa-tearrik. Izan ere, Gonzalo Arkonada-ren planetan ez da sartzen Lope Rekarte. Lehenengo mai-lan urte mordoa ibili ostean joan zen Almeriara arrasa-tearra.

Oñatiko parroko berria izango da Joxan Larrañaga debarra iraletik aurrera. Arrazoia da 1994a ezkerro Oñatiko parrokoaren Sabino Zuaza-beitiak erretiroa hartuko duela. Larrañagak 52 urte ditu eta azken 16 urteetan Villabona-ko parrokoia izan da.

Aitor Aiestui (Arrasate, 1968) Ulma Construcción negozioko zuzendari nagusi berria da, Cris-

tobal Alvarez lekukoa hartuz. Euskal Herriko Unibertsitatean Enresa Zientziak egin zituen.

1995ean sartu zen Ulma taldean, Agricola negozioan. 1997an Argentinara joan zen, eta

2005ean Amerika negozioaren gerente postua hartu zuen, Ulmara itzuli aurretik.

Aitor Aiestui > Ulma Construccióneko zuzendari nagusia

# "Merkatuan dugun tokia mantendu eta modu iraunkorrean haztea dira erronkak"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Eraikuntza arloko Ulmako zuzendari nagusi Aitor Aiestui prentsurrek ema zuen atzo Donostian. Besteak beste, 2007ko datuek eta etorkizunaz jardun zuen. Harekin berba egin genuen enpresaren datuak ezagutzeko asmoz.

Zein da 2007ari buruz egiten duzuen balantza?

2007aren hasiera oso ona izan zen Espainiako zein nazioarteko merkatuaren dako. Hortaz, gure negozioa ere asko hazi zen, batez ere kanpo-esparruan. 426 euro fakturatu genituen, haietako %54 barruko merkatuan eta gainera-ko %46a kanpokoan. Bainha urte-ak arrurra egin ahala desazele-razioa nabariagoa izan zen. Ondo-rioz, salmentek behera egin zuten; baina gai izan ginen alo-kairu maila mantentzeko.

Aipagarriak dira Polonian egindako lana, Alpi enpresaren akzio guztiak erosi izana, Errumanian zabaldutako filial berria eta Hego Amerikako filialen lana. Bestalde, Mexikon lanean hasi gara. 2007an hasi eta 2010ean bukatuko dugun enpresako plan estrategikoaren arabera, helbu-ruak betetzen gabiltza.

Zein da Ulma Construcción negozioaren lan-eremu?

Eraikuntzarako, obra zibile-rako eta birkaitzerako aldamio-ak eta enkofratuak egiten dituen puntako negozioa gara. Gainera, salmentarako produktuak alo-katzen ditugu. 45 urteko esperien-tzia dugu, eta hori nabaria da bezerei eskaintzen diegutu zer-bituan, langileen garapenean eta ingurunea zaintzen.

Zeintzuk dira alokatu eta sal-tzen dituzuen produktuak?

Enkofratu bertikal eta hori-zontalak, obra zibilerako sist-e-mak, eskorak (puntalak), zin-briak eta aldamioak dira gure produktuak. Berrikuntzarako joera dugu Ulma Construcciónen, eta horren adibide da Zara-goza egindako SMOPYC azo-kan jaso dugun saria; hain justu ere, Berrikuntza Teknologikoen saria jaso genuen, eraikun-tza jardueran aplikatzeko zerbi-tzuen urrezko kategorian.

Gure produktuak mota ezber-dinetako lanei irtenbidea ematen diente, eta horretarako, kalitatea eta segurtasuna zaintzen duen inge-niari talde sendoa dugu. Horregatik guztiagatik, goi mailako kali-tate ziurtagiri gehienak ditugu.



Aitor Aiestui, Ulma Construccióneko zuzendari nagusia.

ULMA

Zenbat langilek dihardute Ulma Construcciónen?

2.822 langile ditugu. Garbi daukagu hazten joateko eta lider-goan jarraitzeko langileen beharra daukagula; hortaz, 2008an langile gehiago hartuko ditugu, 3.064 lanpostu sortu arte.

Zein da zuen egoera Espainia-ko eta nazioarteko merkatue-tan?

Espainian mailan liderrak gara gure sektorean, eta nazioarteko merkatuan, enkofratuak eta aldamioak egiten dituen hirugarenen empresa importanteena gara. Produkzio plantak Oñati eta Polonian ditugu, baina enpresak izan duen hazkundeak dela-eta 17 ordezkaritzak ditugu Espainia osoan banatuta, eta atzerrian beste hainbat filial. Guztira, 58 lantergi ditugu.

Zeintzuk dira zuekin lehiatzen diren enpresak?

Mundu mailan, Alemaniako Peri eta Austriako Doka dira

MERKATUA

**"Espainian liderrak gara gure sektorean, eta nazioarteko merkatuan, hirugarrenak gara"**

LEHAKIDEAK

**"Alemaniako Peri, Austriako Doka eta Katalunia aldeko Sten eta Alsina dira gure lehiakide indartsuenak"**

LANGILEAK

**"Pertsonak dira gure muina, eta arlo horretan oso indartsuak gara; egun, 2.822 langile ditugu"**

gure konpetentziarik indartsuenak. Espainian, aldiz, Katalunia aldeko Sten eta Alsina. Estatuko merkatuaren %87 bost enpresaren artean banatzen dugu; hortaz, hazteko tarteak badugu orain-dik. Bestalde, guk eskaintzen dugun zerbitzu eta kalitateari esker gure merkatua zabaltzen gabiltza poliki-poliki, batez ere nazioartean. Azken honetan, zabalkundea nabariagoa da eraikuntza, birgaitze eta obra zibilen sektoreetan.

Zeintzuk dira esku artean ditu-zuen proiektuak?

Helburu nagusia modu iraunkorrean haztea eta merkatuan dugun tokia mantentzea da. Horretarako, lidergoa mantendu behar dugu obra zibilean, kontuan har-tuta herri-administrazioak hala-ko lanak bultzatzen diharduela. Adi egoan behar dugu sortuko diren aukerekin. Etxebizitzen eraikuntza gainbehera dator; horregatik, negozioa birbideratu egingo dugu, eta gure lehiakideek baino espe-

rientzia txikiagoa dugunez, azkar ikasi beharko dugu. Bitartean, atzerrian modu errentagarrian hasi beharko dugu.

Nola ikusten duzu enpresaren etorkizuna?

Finantzen arloan zalentza asko daude, baina aukerak sortuko dira eta horiek aprobetxatu behar ditugu. Erronkei aurre egiten ohituta gaude. Nazioarteko bihurtze prozesua orain dela urte asko hasi zen, eta 2008ak fakturazio bateratuaren %55 eka-riko digu. Gure esperientzia da gure indargunea. Pertsonak dira muina eta arlo horretan oso indartsuak gara, bai Espainiako merkatuan bai atzerrikoan. Dena den, aurreikusitako krisiaren aurrean neurriak hartu ditugu: nazioarteko bihurtze politika-rako joera hartu dugu, eta faktu-razioetan antzematen da nazioartean asko hazi garela. Bestalde, produktuak asko zaintzen ditugu eta nazioartera zabaldu gura ditugu.



zabalik

Joxemari Muxika

## Deslokalizazioa

**E**gunero argitaratzen den berria da kooperatiba enpresak mundura zabaltzen ari direla. Bata Indian, edo Txinan, bstea Marokon, Polonian edo Frantzian. Eta Espaniako lurraldetan ere bai.

Euskal Herrian sortu diren kooperatiba enpresen zabaltza, deslokalizatza, enpresak sorlekuan bertan iraupena izateak eskaten duelako hartutako erabakia dela irakurri ohi dugu. Izan ere, beraiek dituzten bezeroek askotan doazen lekuetara jarraitza eskatzen diete.

Salmenta kopuruei eustea ez ezik, ugaltzera ere bada enpresaritza logikaren helburua. Lanpostuei eusteko moduari ere irtenbidea ematen omen dio bilakaera horrek eta derrigortuta sentitzen ei dira horrelako erabakiak hartzera.

Gehienetan erabaki zaila dirudi urte askotan bildutako kapitala kangoan inbertitzea, bertain lanpostu gutxiago sortzea ekartzen baitu. Euskal Herritik kantora sortzen diren lanpostuak betetzeko kontratatuak langileak bazkide izatea ere eskatzen du kooperatiba irizzipideak. Baino Euskal Herrian baino bazkide gehiago badira Txinan, zer etorkizun dute kooperatibaren sortzaileek? Han enpresa jartzea hemengo bazkideek erabaki zuten. Leku horietako langileak bazkide bihurtzearen ondorioz, erabakiak hartzeko indarrak non kokatuko dira?

Kooperatiben deslokalizazioaz irakurtzen ditudan berri guztiak enpresaren salmenta kopuruak, merkatu kuotak eta ekoizpen kopuruak baino ez dira. Uste dut garatzen ari den egoerak Debagoieneko hiritar guztiei eragiten diela, eta ez kooperatistei soilik. Horregatik, galdera hauen erantzunak jakin nahiko nituzke nik; batez ere, kooperatibetako zuzendarien esplikazioa.

## Goienkaria

**Argiratzalea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE Lehendakaria Esteban Plazaola **Zuzendaria** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailentako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arribux Barruso, Jasone Zábal, Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Oihana Elorza, Jokin Bereziartua, Nerea Menor **Oñatiako irakurle bat oporrak antolatu nahian dabil; oraindik ez du erabaki nora joan, baina aukeretako bat Kuba dela esan digu.**

**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 12  
Posta-e: goienkaria@goienea.com

### ORDEZKARITZAK

**ARRASATE** 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 00  
Posta-e: arrasate@goienea.com

**ARETXABALETA** 20550 Durana II • Tel.: 943 79 86 21 • Fax: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goienea.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 09  
Posta-e: publi@goienea.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goienea.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.400 ale • Difusioa: 19.056 ale.



OID erakundeak  
ikuskatutako astekaria

### LAGUNTZAILEAK



Eusko  
Jaurlaritza



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Bergarako  
Udala



Oñatioko  
Udala



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Aramaioko  
Udala



Elgetako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala

## herritarra galdezka

**ESPALOIA ANTZOKIA ZABALIK EGONGO DA ABUZTUAN?**

**Bergarar gazte bat guregana zuzendu da honakoa esanaz: "Elgetako Espaloia antzokira sarri joaten naiz. Jakin nahiko nuke ea abuztuan zabalik egongo den".**

Samuel Gorrotxategi antzoki horretako arduradunak erantzun digu: "Bai, ia uda osoan zabalik egongo da Espaloia. Astelehen eta martzenetan, 11:30etik 16:00etara bitartean egongo da zabalik, eta asteko gainerako egunetan, 11:30etik tokatzen den arte. Abuztuan ere zabalik egongo da, bakarrik hilaren 18tik 25era arte itxiko dugu".

Egun horietan zerbitzua normal eskainiko dutela esan digu Gorrotxategik: taberna eta jatetxe zerbitzua egongo da. Ez da egongo, ordea, aparteko ekintzak edo emanaldirik, eguztene-tako zinema izan ezik, 21:30ean.

**KUBARA JOATEKO TXERTORIK HARTU BEHAR DUT?**

**Oñatiako irakurle bat oporrak antolatu nahian dabil; oraindik ez du erabaki nora joan, baina aukeretako bat Kuba dela esan digu.**

**Hauxe da haren galdera: "Atzerri joanez gero, Kubara edo beste edonora izan, nola jakin dezaket txertorik hartu behar dudan, ze txerto diren, eta bestelako seguratasun gomendioak?".**

Bidaia agentzia baten informazio dute, seguruenik, atzerri bidaia nahi duen edozein. Hala ere, nor bere kasa antolatzen baldin badabil oporraldia, baliagarria izango zaio Spainia-

### Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaligu-

zu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxe: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goienea.com

## marrakiz

Alex Ugalde



## blog-top

### Euskalkidun akonplejauen kontran

**Oier Gorosabel**  
eibar.org/blogak/orakulua

**A**zken urtietan nahikoa arruntak dittuk herri differentietako bikotia, eta beraz umien amama-aitittien jatorri desbardiñak. Honen ondoriox naturala euskalkixen nahaste eta bardintzia dok, eta hori ezin dok galazo, orraitio. Baiña...

beste gauza bat dok laguntzia. Edo, hobeto esanda, umiar gauzak "errezta", euskalki desbardiñak erabiltziak bere garun txikian esguine bat egingo detsan bildurrez.

Horregaitik, nere inguruan asko entzun izan jittuadaz halako gauzak: ume batek "amatxi bakarra dakala", bestia ez dalako amatxi, "amona" baiño... (...). "Amona" edo "aitittia" berba generikuak dittuk, eta txarto eresten jetsat izen propixo bihurtzari. Gurasuen gurasuak izenak jaukezek, eta errespetuzko kontua dok eurak mantentzia (...) Nikolai txikixanak amama halan heztia.

Maixux, amama Adela eta aittita Joxelux izango dittuk (nere ahotan) eta amona Maixux, amona Adela eta attona Joxelux (Anen ahotan). Eta gero, umiak berak erabagi deixaletan zelan esan (...).

Beti begittandu jataz penagarrixak komunikabidean batuaz egin nahi ta-ezin dabizentak. Bardiñ euskalkixan seguridez berba egitteko kapazak izanda, lotsatu egiten dirazenak. Batetik honek pobretu egiten jok entzulian belarrixka, eta bestetik autoestimurako kaltegarrixa eresten jetsat. Etxuat nahi gure umia halan heztia.



# Jatetxe Gida



## Azkoagaenea

Gaztañadui 4 / ESKORIATZA  
943 71 45 66 [www.hotelazkoagaenea.com](http://www.hotelazkoagaenea.com)

### Eskaintza

- Karta
- Enpresa menua
- Etxera eramateko platerak
- Kafetegia terrazarekin
- Dastatzeko menua



## Azpeitxi jatetxea

Aranerreka 13 / BERGARA  
943 76 55 00

### Eskaintza

- Eguneko menua eta karta
- Jaunartzeak eta bataioak

### Berezitasuna

- Arraina eta haragia parrillan

Domeketan, astelehenetan, martitzenetan eta eguztenetan afaririk ez.



## Baster-Alde

Galartz auzoa / ARETXABAleta  
943 79 24 58 [www.baster-aldejatetxea.com](http://www.baster-aldejatetxea.com)

### Eskaintza

- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Enpresa bazkariak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkaleku

### Igandeetan itxita



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO  
945 44 50 86

### Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

### Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

### Astelehenetan itxita



## Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI  
943 78 19 56 [www.etxeaudi.com](http://www.etxeaudi.com)

### Eskaintza

- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkaleku

### Egunero zabalik



## Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE / 943 79 22 15  
[www.larrinetxe.com](http://www.larrinetxe.com)

### Eskaintza

- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitarkekoak.

### Berezitasunak

- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

### Martitzenetan itxita



## Soraluze

Arantzazuko bidea, 1 km / OÑATI  
943 71 61 79

### Eskaintza

- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Karta
- Aste bukaerako menu bereziak
- Eguneko menuak
- Bi jangela

### Domeka gauean itxita




## Tartufo jatetxea

San Juan Auzoa 35. Elgetara bidean / BERGARA  
943 76 35 51

### Eskaintza

- Terraza eta parrilla zerbitzua
- Eguneko menua
- Asteburuetan 20€-ko menu berezia, eta gauetan oilasko erreak bertan jan eta eramateko
- Jai pribatuak antolatzen ditugu



## Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO  
945 44 50 95

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

### Berezitasunak

- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak


### Egunero zabalik

# Herriak

Arrasate > 16-17 Bergara > 22-21 Aretxabaleta > 24-25 Oñati > 26  
Eskoriatza > 27 Antzuola > 28 Elgeta > 29 Aramaio > 30 Leintz Gatzaga > 31



> ARRASATE  
"Jarratzeko indartsu gaude", dio jarduneko alkateak > 16



> ARETXABAleta  
Barricada taldeak kontzertua egingo du Andramaixa jaietan > 24



> ANTZUOLA  
Alkatea: "Kiroldegi funtzia egingo duen aterpe bila gabiltza" > 28



> ELGETA  
Uruburuko urbanizazioan 18 etxebizitza daude saltzeko > 29



PRENTSAURREKOA Arrasateko udaletxeko osoko bilkuren aretoan eman zuten kanpainaren berri Ino Udaletxera ekimeneko kideek, martitzenean.

IKER BARANDIARAN

ARRASATE > JENDARTEA

## Ino Udaletxera ekimena pozik dago sinadura kanpainaren harreragatik

### IDEOLOGIA

Kopuruagatik eta sinatzaileak ideologia askotarikoak direlako daude pozik

### IRALEAN

Irailean pauso berriak emango dituzte Ino Galparsoro udaltxera bueltatzeko eskatzen

### I.BARANDIARAN/O.ELORTZA > ARRASATE

Ino Udaletxera ekimenak 4.417 sinadura jaso ditu Arrasateko Ino Galparsoro aska dezaten eta udaltxera lanera buelta dadin eskatzen. Ekimenaren bultzatzaileek oso balorazio positiboa egin dute. "Pozik gaude kanpaina izan duen harrerarekin. Sinadura asko jaso ditugu eta, gainean, ideologia askotariko lagunek sinatu dute", dio Juan Luis Arexolaleiba Ino Udaletxera ekimeneko kideak. Martitzenean eman zuten horren berri ekimeneko kideek prentsurrekoan. Ino Galparsoro alkateak 83 egun zeramatzan espetxeen egun hartan.

### SINDIKATUEN LAGUNTA

Sinadurak jasotzeko, Arrasateko auzoetan eta erdialdean mahaiak jarri dituzte egunero ekainetik hona, eta horrez gain, enpresetan

ere ibili dira sinadurak biltzen, sindikatuen laguntzarekin. Hala, Ino Udaletxera ekimeneko kideek azaldu dutenez, lagunza eskaera sindikatu guztiei egin zieten eta erantzun ona izan dute. Hain zuzen ere, hauek dira lagunza eman duten sindikatuak: ELA, LAB, CCOO eta ESK.

DATUA

4.417  
SINADURA

Ino Udaletxera ekimenak 4.417 sinadura bildu ditu oraingo, baina irailean jarraipena izango du ekimenak. Herriko elkartea, alderdi eta herritarrek izango dute esku hartzeko aukera.

### SINADURAK, ERAKUNDEETARA

Sinadurak jasotzen jarraituko duten arren, dagoeneko erabaki dute zer erabilpen emango dieten. "Auzitegietara eta beste erakunde batzuetara zabalduko ditugu: Espainiako estatuko instantzia judizialetara, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailera, Iñigo Lamarca Arartekoari eta Europako Giza Eskubideen Batzordera eta baita Europako Parlamentuan Euskal Herriko Gatazkaren Jarraipen Batzordera ere", zehaztu du Juan Luis Arexolaleibak.

Ino Udaletxera ekimeneko kideek Arrasateko alkatearen egoeraren gainean ere egin zuten berba martitzeneko prentsurrekoan. Azaldu zuten mendeku baten jomuga dela eta espetxeen izatea bidegabekeria dela, baina alkatea indartsu dagoela. Are gehiago, ekimeneko kideek esan dute alka-

teak eskerrak ematen dituela herrian abiarazitako ekimenagatik eta herritarrek emandako erantzunagatik.

### IRALEAN, EKIMEN GEHIAGO

Ino Udaletxera ekimeneko kideek onartu dute udan gauza asko gelditu egiten direla, baina dagoeneko hasi direla pentsatzen irailean zer dinamika abiarazi. Ez dute gauza zehatzik aurreratuta gura izan, baina Arrasateko elkarreta eta herritarrei dei egingo diente. Euren hitzetan, irailean herriko elkartea eta alderdiei eskatuko diete hainbat pauso emateko. Horrez gain, herritarrek ere izango dute esku hartzeko aukera.

Bestalde, Ino Udaletxera ekimenak lantxo bat egiteko esku gura die herritarrei: udan Ino Galparsoro alkateari eskutitza idatzeko espoxera.

**zerbitzuak****GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

|                |         |                 |              |
|----------------|---------|-----------------|--------------|
| Zapata, 26     | Ruiz    | Nafarroa, 1     | 943 79 14 09 |
| Domeka, 27     | Azkoaga | Iturrioz, 17    | 943 79 79 99 |
| Astelehen, 28  | Irizar  | Erguín, 11      | 943 79 12 39 |
| Martitzena, 29 | Amezua  | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Eguaztena, 30  | Ruiz    | Nafarroa, 1     | 943 79 14 09 |
| Eguena, 31     | Azkoaga | Iturrioz, 17    | 943 79 79 99 |
| Egubakoitz, 1  | Irizar  | Erguín, 11      | 943 79 12 39 |

**BERGARA**

|                |               |                |              |
|----------------|---------------|----------------|--------------|
| Zapata, 26     | Urritikoetxea | Oxirondo, 4    | 943 76 11 74 |
| Domeka, 27     | Urritikoetxea | Oxirondo, 4    | 943 76 11 74 |
| Astelehen, 28  | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Martitzena, 29 | Guallar       | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Eguaztena, 30  | Urritikoetxea | Oxirondo, 4    | 943 76 11 74 |
| Eguena, 31     | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Egubakoitz, 1  | Urritikoetxea | Oxirondo, 4    | 943 76 11 74 |

**ÖÑATI**

|                |         |                 |              |
|----------------|---------|-----------------|--------------|
| Zapata, 26     | Juldain | Kale Barria, 6  | 943 78 11 28 |
| Domeka, 27     | Juldain | Kale Barria, 6  | 943 78 11 28 |
| Astelehen, 28  | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Martitzena, 29 | Juldain | Kale Barria, 6  | 943 78 11 28 |
| Eguaztena, 30  | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Eguena, 31     | Juldain | Kale Barria, 6  | 943 78 11 28 |
| Egubakoitz, 1  | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |

**ARETXABAleta**

|                |             |                  |              |
|----------------|-------------|------------------|--------------|
| Zapata, 26     | Anitua      | Belorrieta, 1    | 943 08 11 43 |
| Domeka, 27     | Anitua      | Belorrieta, 1    | 943 08 11 43 |
| Astelehen, 28  | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 29 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 30  | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 31     | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitz, 1  | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia. Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZA.

**TELEFONO JAKINGARRIAK****((112))  
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

|                                |              |
|--------------------------------|--------------|
| Osaikidetza (Larrialdia).....  | 943 46 11 11 |
| DYA (Antzuola).....            | 943 71 57    |
| Gurutze Gorria (Elorregi)..... | 943 76 55 76 |
| Suhiltzaileak.....             | 943 78 28 00 |
| Ertzaintza.....                | 943 53 47 20 |
| Oasun Etxeak                   |              |
| Arrasateko ospitala.....       | 943 03 53 00 |
| Antzuola.....                  | 943 76 62 23 |
| Aramaio.....                   | 945 44 53 40 |
| Aretxabaleta.....              | 943 71 19 59 |
| Bergara.....                   | 943 03 54 00 |
| Elgeta.....                    | 943 03 54 00 |
| Eskoriatza.....                | 943 71 44 52 |
| Leintz Gatzaga.....            | 943 71 47 46 |
| Öñati.....                     | 943 03 54 30 |
| Udalitztaingoak                |              |
| Antzuola.....                  | 943 76 62 46 |
| Arrasate.....                  | 943 79 14 39 |
| Aretxabaleta.....              | 943 71 18 63 |
| Bergara.....                   | 943 77 91 06 |
| Eskoriatza.....                | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga.....            | 943 71 47 46 |
| Öñati.....                     | 943 78 04 11 |

**GARRAIOAK**

|                   |              |
|-------------------|--------------|
| PESA.....         | 902 10 12 10 |
| Taxiak.....       |              |
| Arrasate.....     | 943 79 12 22 |
| Aramaio.....      | 945 44 50 33 |
| Aretxabaleta..... | 943 77 12 64 |
| Bergara.....      | 943 77 12 22 |
| Eskoriatza.....   | 943 71 40 59 |
| Öñati.....        | 943 78 03 65 |

**DEBAGOIENA**

|                           |              |
|---------------------------|--------------|
| Mankomunitatea.....       | 943 79 33 99 |
| Hiltégia (Zubillaga)..... | 943 78 15 12 |
| Nekazaritza ganbera.....  | 943 76 10 15 |
| Zerga Bulegoa.....        | 943 76 58 63 |
| Hondakidegi alternatiboak |              |
| Arrasate.....             | 943 77 11 43 |
| Bergara.....              | 943 76 44 42 |
| Öñati.....                | 943 78 36 67 |

**Kiroldegia**

|                   |              |
|-------------------|--------------|
| Aramaio.....      | 945 44 53 35 |
| Arrasate.....     | 943 77 16 77 |
| Aretxabaleta..... | 943 71 26 28 |
| Bergara.....      | 943 76 56 41 |
| Elgeta.....       | 943 76 82 84 |
| Eskoriatza.....   | 943 71 53 28 |
| Öñati.....        | 943 71 63 75 |

**Kultura Etxeak**

|                   |              |
|-------------------|--------------|
| Antzuola.....     | 943 76 60 65 |
| Aramaio.....      | 945 44 53 74 |
| Arrasate.....     | 943 77 01 05 |
| Aretxabaleta..... | 943 71 10 27 |
| Bergara.....      | 943 77 91 58 |

**Eskoriatza**

|                     |              |
|---------------------|--------------|
| 943 71 46 88        |              |
| Leintz Gatzaga..... | 943 71 47 46 |
| Öñati.....          | 943 78 03 53 |
| Udalak              |              |
| Antzuola.....       | 943 76 62 46 |
| Aramaio.....        | 945 44 50 16 |
| Arrasate.....       | 943 79 09 00 |
| Aretxabaleta.....   | 943 71 18 62 |
| Bergara.....        | 943 77 91 00 |
| Elgeta.....         | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza.....     | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga..... | 943 71 47 46 |
| Öñati.....          | 943 78 04 11 |

**URBANOAK****ARRASATE**

|   |  |
|---|--|
| Gorostizatik Eroskira (2 Linea)   |  |
| 08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  |  |
| IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibar, ospitalea, Biterrí, Legarra, Musakola eta Eroski.           |  |
| Eroskitik Gorostizara (2 Linea)   |  |
| 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  |  |
| IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrego, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguín A eta Gorostiza. |  |
| Gorostizatik Eroskira (1 Linea)   |  |
| 08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.  |  |
| IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenereka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.       |  |
| Eroskitik Gorostizara (1 Linea)   |  |
| 08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.  |  |
| IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguín A eta Gorostiza.             |  |

## kale inuesta

# Zein leku gomendatuko zenuke oporretarako?



Erlaitz Untzabarrenetxea  
Ikaslea  
Elgeta



Jabi Larrañaga  
Langilea  
Elgeta



Txaro Arantzeta  
Langilea  
Elgeta



Susana Crespo  
Langilea  
Elgeta



Mari Carmen Landakorta  
Langilea  
Elgeta

Tenerife gomendatuko nuke; batez ere, bertako paisaia eta eguraldi onagatik. Maiatzean joan nintzen hara, eta bero handirik ere ez zuen egin. Bertan, Teide bisitatzeara gomendatuko nuke.

Argentina gomendatuko nuke. Bertan gauza asko daude ikusteko. Jendea oso jatorra da, eta momentu honetan hango ekonomia baxu dagoenez, aprobaetxa daiteke. Jana ere oso gozoa da.

Huelva gomendatuko nuke. Aurtengoa hara joaten naizen hirugarren urtea izango da. Eguraldia ona da, eta jendea, jatorra. Gainera, barrualdean bizi den jende asko joaten da bertara. Bertara joan naizen bigarren aldia da.

Kanarietara joatea gomendatuko nuke, Tenerifeko hegoaldera. Hondartzaz bikainak daude bertan. Europako jende asko joaten da bertara. Bertara joan naizen bigarren aldia da.

Karibera joatea gomendatuko nuke. Eguzkia, hondartzaz zoragarriak, lasaitasuna... Gainera, bertakoak bizi diren lekuak ikustea gomendatuko nuke. Jan aldetik, fruta, arraina... ederrak dira.

## txistuak



GOIENKARIA

# Zubiaurreko plazatxoak ez dago zainduta



Bergarako Zubiaurre kaleko irakurle baten kexa jaso dugu. Kontua da kale horretan plazatxo bat dagoela eta jende asko egoten dela arratsaldeetan hango jarlekuetan. Plaza ez dago batere zainduta, Udalak ez du garbitzen, eta, gainera, erreka ondoan dagoenez arratoiak igotzen dira errekatik plazatxora. Plazatxo horri arreta handiagoa eskaintza eskatzen du.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria

## asteko datua

24

Maider Unda aramaioarrairi 24 egun baino ez zaizkio gelditzen Pekinen jokatuko diren Olinpiar Jokoetan parte hartzea. Borroka librean arituko da abuztuaren 17an, eta haren helburua domina bat eskuratzea dela aitortu digu, eta urezkoan baldin bada, hobeto. Zorte on, Maider!

Guk, orain, bi aukera ditugu etxeen: erabilpenen bat ematea edo kentzea. Uste dut bigarren aukera egingo dugula.

Beno, opor bezpera honetan kontatu dizuet nire momentuko buruhaustea. Horrelakoak izango ote dira guztia aurrerantzean!

Kanpora bazoazte onondo ibili eta etorri atzera ere bueltan!

## 5 galdera...

# Jose Antonio Vazquez

Udaltzain burua  
Oñati

**1.** Nabaritzen da, orokorrean, jendea uda garaian, batez ere abuztuan, herritik kanpora ateratzen dela oporretara?

Gure lana desberdina da, jende asko joaten delako kanpora. Abuztuko lehen eta azken asteetan egoten da jende gehiago, eta erdiko bi asteetan herria ia hutsik egoten da. Betiko lanaz gain -kontuan hartu behar da lantegi eta eskolek itxita edo lan gutxiago dutela- herri zainketan ibiltzen gara, halako garaietan lapurretan ere egon daitezkelako.

**2.** Alde horretatik, jendea zein gomendio eman behar zaizkio oporetan joaten denean?

Aholku moduan, kanpora joan arren egun horietan postontzira botatzen dituzten gutunak jasotzeko norbait baldin badauka, askoz hobeto, inor ez dagoen itxurak ez emateko; bestalde, etxeetako pertsianak guztiz ez ixtea ere aholkatuko nuke.

**3.** Zenbat udaltzain daude herrian urtean zehar eta zenbat egoten dira uda garaian, batez ere abuztuan?

Urtean zehar hamar udaltzain egoten dira eta abuztuan lau gelditzen dira: bi goizez eta bi arratsaldez.

**4.** Urtean zehar gertatzen ez diren gauza bitxiak gertatzen dira abuztuan zehar?

Bada, normalean ez. Hain zuzen, gure lana herrian gertatzen denaren kontrola eramatea da; gero, uda garaian, Usakoko putzura ere joaten gara bertako jendearen egoera pixka bat kontrolatzera, abuztuan herrian gelditzen diren asko bertara joaten baitira.

**5.** Abuztuan zein ordutegi izango du Udaltzaingoaren bulegoak?

Urtean zehar bezala, egun guztia egongo da zabalki: 07:00etatik 22:00etara. Herri gelditzen diren lau udaltzainek txandaka egingo dute lan, bi goizetik eta beste bik arratsaldetik.



Oihana Aranburu > Jarduneko alkatea

# "Aurrera jarraitzeko indartsu gaude, betiere, herriaren mesederako"

**UBANE MADERA > ARRASATE**  
Leku batuetan hamar urtean pasatzen ez direnak pasa dira Arrasaten agintaldiko lehen urtean. Horren balorazioa eskatu diogu Udal Gobernuko ordezkarie eta oposizioko alderdiei. Oihana Aranburu jarduneko alkatearekin izan gara aurrena.

#### Zein da zuen balorazioa?

Arrasateko herriak ahaztuko ez duen urte bat; gure herriak jasan duen erasoari erantzuten jakin duen urte moduan.

#### Zela dago alkatea?

Bahituta; legezko bahiketa jasaten ari da; eta horren erantzule nor den oso garbi daukagu. Espetxeratu zutenetik, lehen bista joan den zapatau izan dugu, 40 minutu lokutorio txiki batean. Ia hiru hilabete pasatu behar izan dira hura ikusteko; horretaz aparte, ez digute uzten harekin harremanik edukitzent, hura den arren oraindik Arrasateko alkatea. Baino egoera oso gogorra bada ere, indartsu eta tingo dago.

#### Tentsio-giroa dago Udalean?

Herri osoan moduan, tentsio giroa bizi izan dugu, zalantza barik; herri honetan gertatu dena ez da inon gertatu, ziurrenik; baina badakigu zein den PSOERen jarrera eta nahia. Dena dela, zaila egiten zaigu ulertzea alderdi horrek nola balora dezakeen Udalaren jarduera batzordeetara oso gutxitan agertzen direla ikusirk; zaila da ulertzea, baina oso argia beraien jarrera eta asmoak. Bestalde, Ino falta dugun arren, lanean eta Udal gobernatzen jarraitzen dugu; noski, haren falta itzela nabaritzen dugu; baina aurrera egiten ari gara; Arrasateko herriak eman duen erantzuna ere oso ona izan da eta aurrera jarraitzeko indartsu gaude, betiere herriaren mesederako.

#### Zelako harremana duzue gainerako alderdiekin?

Beti izan duguna; batzuekin osoa, beste batzuekin eskasagoa; baina Udalaren dinamika nor-



Oihana Aranburu jarduneko alkatea, udaletxeko bulegoan.

UBANE MADERA

mal mantentzeko adinakoa; orain ez dugu giro txarrik igartzen; guztiaren gainetik, eta orokorrean, errespetua da nagusi. Bada salbuespenen bat tentsioa sortzen saiatzen ari dena, baina saiakerak edo "tentsio-giroa" dagoela dioten adierazpenek ez dute nahi duten tentsiorik lortzen.

#### Batzuek diote gutxiegi zarete-la gobernuan jarduteko...

Hori diotenek gu desagerraztea nahiko lukete; eta hori politikoki ezin dutenez, indarrez egin nahi izan dute, baina alferrik. Korporazioa zortzi alderdi politikok osatzen dute eta gure taldea zinegotziengen herena da; baina hemen garrantzisuenetik da hori; garrantzia gobernatze-ko eta kudeaketa eran dago; alegia, modu demokratiko eta parte-hartzailean egitea. Herritarrekin ere kontatuz, jakina.

#### "Tentsio-giroa dagoela dioten adierazpenek ez dute nahi duten tentsiorik lortzen"

#### "Normaltasuna Ino aske eta udaletxean alkate lanean ikusten dugunean hasiko gara bizitzen"

Talde mistora pasatu izanak badu eraginik udal jardunean?

Bai; ezin ukatu. Jardunean eragina izateaz gain, gure eskubideak urratzen dituela argi utzi nahi dugu. Giza eskubideak nahiz etika, askoren ahotan dauden garai honetan, urrutio joan gabe, Arrasaten bertan daukagu giza eskubideen urratzea garbia, antlatzeko eta politikoki jarduteko,

alegia. PSOE gure kontra garatzen ari den errepresioak bere eragin negatiboa izan arren, egoerari aurre egiteko prest gaude.

#### Berreskuratu du Udalak normaltasuna?

Ez; normaltasuna Ino berriro ere aske eta udaletxean bere alkate lanean ikusten dugunean hasiko gara bizitzen. Baina esan dezakegu Arrasateko Udalak lanean jarraitzen duela egunerokotasunari erantzunez.

#### Polemikoak izan diren hainbat gairen gainean erabakitzeari tokatu zaizue; merkataritzagune kontuak, tartean. Zabaltzari ezetz esanda, erabaki duzue Eroskiri erantzun beharreko?

Esan dezakegu hauteskunde garaian gure programan zehaztu genituen helburuei jarraituz ari garela; gu aurka egon arren, mer-

katitzagunearen kontua aurreko agintaldian, gu Udalean ez geundenean, egosi zen. Hala ere, afera hau etetea lortu dugu.

Eroskiren kasua ez da Zabaletxekoaren bera; negoziatzen ari gara, zein izan daitekeen irtenbidea. Erabaki beharrekoak ez da Eroskiren handitza bakarrik; hor daude geltoki intermodala, tranbiaren obra, e.a.

**Harrobiei dagokienez, Aralarrek, EB-Zutik koalizioak eta PPk kezka azaldu dute eta Aralarrek herri galdeketa eskatu du. Egiteko asmorik bai?**

Lehenik, argitu nahi dut Aralarreko inor ez zaigula etorri gaia planteatzen, prentsaren bitartez jakin dugu. Hala ere, Aralarri gogorarazi nahi genioke iaz maiztzean herri guztietan galdeketak egin zirela udalen osaketa erabakitzeko, eta paradoxikoki Aretxabaletan Aralarrek ez duela herritarrek aukeratu zutena errespetatu. Beraz, ez dugu uste lezioak emateko moduan daudeneik.

San Josepe harrobiari dago-kionez, aipatu nahi genuke itxiera data ez dela aldatuko ezta luztuko ere, aurretik erabakitzakoa izango da. Bestalde, orain baimendutako leherketak aurrez baimendutako batzuekin batera egiteak aukera ematen du aurrentzean leherketa gehiagoren beharrik ez izateko.

**Hiru urteotara begira, zeintzuk izango dira proiekturik garrantzitsuenak Arrasaten?**

Etxebizitzaren arazoari dago-kionez, sistema neoliberal horrek babesten duen merkatu sistemaren ondorioetako bat da. Lurrarekin, denona izan beharko lukeen ondasun batekin, espektakulatzea posible den artean, edo gobernuaren aldetik etxebizitzaz publikoa bultzatzen ez den bitartean, jai dugu. Gobernu honen helburua eta nahia etxebizitzaz publikoa eta alokairuzko bultzatzea da. Horrez gain, Musika Etxea, Udal azoka, Zaharren egoitza berria e.a.



**Pando  
Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak  
Ibilgailuak  
Stand-ak  
Itsasgarriak  
Biniloa  
Seinaleak  
Lonak  
Erliebedun hizkiak

**MADINA ZURAK**  
Aroztegia  

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontraxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoa
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiako osagarrak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea • Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE  
e-posta: mz@madinazurak.com

**BITTORI**  
**ERRETEGIA**  
Eguneko menua - Kartako menua  
Espezialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletak  
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

OPOSIZIOKO ALDERDIEN BALORAZIOA

PSE-EE

**"Gidaritza eta ideia falta dago Udalean"**

"Balorazioa penagarria da. Agintaldia hasi genuen ANVk eta EBk osatutako gobernuarekin. Saldu zituzten hainbat politika munduko panacea hoberena balira bezala eta urtebetean gutxiengoa daude. EBk behartuta utzi zuen gobernuia Isaias Carrascoren erailketaren ondoren. Hala ere, izatez ez dago gobernuan, baina bai eskubidez, PSE-EE izan ezik, gainerako guztien moduan. Gestioari dagokionez: zero patatero. Egiten dabiltsan bakarra da aurreko gobernuak utzitako proiektuak. Ez dago berririk. 10 milioi euroko superabita dago: egin ez diren proiektuak eta eginda egon behar zutenak. Etxebizitzeta gaiez, gerta liteke abenduan 100 etxebizitzeta baino gehiago eginda izatea adjukatario barik, Udal Gobernu ez delako gauza izan. Kon-tuan hartu barik gertatzen dabilen duintasunilk ezaz: oposizioan egon beharko lukeen eta gutxiengoan dagoen gobernu dugu. Stockholm-en sindromea dute, PSE-EEk izan ezik, gainerako alderdi guztiek".

EAJ

**"Ekarpene berrien eskasia dago Udal Gobernuan"**

"Gobernuak egin dezakeen balantzea grisa da. Ideia faltak eragin du jarraikortasunean oinarritutako gestioa. Horrek erakusten du aurreko agintaldian EAJren kontrako kritika askoren funtsik eza. EAEk eta EB-Zutiken gobernuak liberatuak mugatu zituen; EAJKo zinegotzi batek baja hartu behar izan zuen eta kolpe handia izan zen. Batzordeak gehitu egin dituzte eta zaildu egin da guztietan parte hartu ahal izatea. Gobernu gutxiengoan dago, baina Aralarrekin gehiengoa lortzen du. Gestio orokorrean adostasuna eta parte-hartza bultzatu dituzte; horrek zenbait gairen atzerapena ekarri badu ere, alderdien harremana erraztu du. Dena den, Isaiasen hilketak oso mingarría izan da giro horretarako. Gobernuaren apurketa eragin du. Egoera okerto egin zen alkatea kartzelaraztearekin; haren askatasuna exijitu dugu, bidezkoa ez delako. Eta giro politikoak ez da lasaia. Gure jarrerak zuhurra izan behar du, moderatua eta kolaboratzailea, Arrasateren mesederako".

EB-ZUTIK

**"Hainbat gai daude aurre egin beharrean"**

"Zentzu askotan aldaketa edo ereduaren migrazioa egiteke dago; beraz, gure balorazioa sentimendu kontrajarien nahasketa da. Agintaldiaren lehenengo urte honek Ezker Batua-Berdeak-Zutik koalizioarenak bi aldi ezberdin ditu: gobernu-aldia eta oposizio eraikitzale aldia. Moduak aldatu dira errotik; funtsean, ordea, aldaketa hori bizkortu egin beharko da. Funts horrek gugan lehen urte honetako zapore gazi-gozoa eragiten du. Ez hartutako erabakiengatik –San Josepe harrobiaren eremu handiztearen baimenaren salbuespena-, baizik eta harren ez diren erabakiengatik edo hainbat arazorri aurre ez egiteagatik. Hainbat gai daude aurre egin beharrean, hirigintza eredua goitik behera berraztertza –horren atzerapena larria izaten ari da– edo azpi-kontratazioen lan-baldintzak hobetzea, besteak beste. Lehenengo urte hau Isaias Carracoren hilketak ikaragarriak markatu du eta Ino Galparsororen atxilotak".

PP

**"Aurrerapausoak txikiak dira, ahalegindu arren"**

"Duda barik, udal taldearen aldaketak geldialdia ekarri zuen. Udalaz ez zen hasi funtzionatzen urri arte, EB-Zutik eta EAEren artean adostasuna lortu arte; gainera, zailtasunekin. Gero ibiltzen hasi zen, oso bizkor ez, baina erraza ere ez zen. Baina Isaiasen erailketa izugarriak eta Inoren atxilotekat beste geldialdi bat ekarri zuten. Gertaera guztiek –gogorrena Isaiasen erailketa, duda barik– geldialdi izugarria ekarri dute. Esan dezakegu zinegotziak aldetik aurrera egiteko ahalegina izan den arren, aurrerapausoak txikiak izan direla; gurako nuke gehiago egitea, agintaldiak laster bukatzen dira. Proiektu mordoa ditugu lehenagotik datozenak geldi: Ferixaleku igogailuak, Musika Etxearekin ez dakigu zer egin eta beste mordoxka bat; intentzioa ipini arren, ikusi dugu aurreko agintaldian gauza asko ezkutatu zizkigutela. Ezin dut balorazio erabat positiborik egin. Bakarrik diot nire asmoa lan egitea dela eta asmo bera izaten jarraitzen dudala".

ALARAK

**"Udala aurrera doa zailtasunak zailtasun"**

"Balorazioa egitea ez da erraza, aurreko agintalditik datorenaren inertziak lana baldintzatzen duelako. Era berean, ezin aipamen barik utzi Isaias Carrascoren erailketa eta Garzonen aginduz Ino alkatearen atxiloketa. Horiek ere eragin zuzena izan dute, lehenak gobernuaren haustura ekarri zuelako eta bigarrenak berrantolatu bitartean geldialdia. Aralaratik garbi dugu zentzu bako erailketaren eta bidegabeko Inoren atxilotekaren aurkako jarrera. Garbi daukagu, baita ere, gobernu taldeak gure babesea izango duela. Arrasaterako beharrezko proiektuak aurrera ateratzeko, eta aurrean izango gaituela hala ez deritzogunetan. Badira hainbat erabaki garrantzitsu: Ikerkoko arroa dagoenetan uztea eta Zabalatetako merkataritzagunea atzera botatzea. Baina bistan eduki beharreko hainbat puntu ere bada: Egitamu Orokorrak aldatzea; herritarrei galdeketetan parte hartzeko aukera ematea (AHT, harrobiak...), udal batzorde informatiboetan partaidetza...".


EA

**"Proiektu batzuk gehiegi atzeratzen dabilta"**

"Balorazioa egitea eskatudidate, eta lehen erantzuna txarra dela ateratzen zait. Nola erantzun hilabete baten barruan zinegotzi ohi bat hil eta alkatea kartzelaratzentz badute? Batak eta besteak erakusten digute herriaren nahiaren gainetik euren gogoa inposatu nahi dute-nak prest daudela edoztarrako, eta, alderdi politiko baten ordezkarri gisa baina lehenago Euskal Herritar gisa, ezin dut hori onartu, ezin dugu onartu. Gobernuak 100 egun egin zituenean gauzak ez zihoazela bizkorregi esan nuen, eta bi ekintzok ez dute lagundu. Lehenak agintaldi hasieratik bilatzen genbiltzan akordioak zailtzetan dituelako –esango nuke batzuei poztasuna ematen diela– eta bigarrenak zailtasunak areagotuta, Udal Gobernuaren lema desarmatu duelako. Ulergarria izan daiteke lema bako itsasontzi batek arazoak izatea, baina agintaldia aurrera doa eta aurrekusitako proiektu batzuk gehiegi atzeratzen dabilta: Musika Etxea, Altamirako igogailuak...".

## Eskerrik asko, ume sahararren partetik

Sahararen aldeko Nubi (Arrasate) eta lesbaa (Aretxabaleta) elkarteek eskerrak eman gura dizkiote Arrasateko Gaztetxeari Lasturren dauden 10 haur sahararren aldeko kontzertua antolatzearren. Horrez gainera, orokorrean proiektuan laguntzen ari diren guztiek eskertu gura dituzte: herritar, instituzio, enpresa eta abarri. Dena den, horrekin batera, jakinarazi dute oraindik ez dutela lortu proiektuaren gastuak ordaintzeko adina diru.



NUBI

> OBRAK  
**Zerrajerako urbanizazioan obra gehiago, laster**

Datozen asteotan Zerrajerako urbanizazio berriaren beste zati bateko obrak egingo dituzte, INEMen bulegoaren ondoan eta anbulatorioaren aurrean. Udalak esan duenez, baterian apartakalekuak eta espaloia eraikiko dituzte. Baita berdegune bi ere, "bat gaur egun dagoen berdegunearen antzerakoa eta inguru berean" eta bestea anbulatorioaren aurrean. Jakinarazi du ere lanok "gaur egun dauden zuhaitzak kentzea eskatzen" dutela, baina haien ordez "lorategi berriaren beste batzuk landatu" dituztela.

> JAIAK  
**Kubatar festa eta beste izango da, Ferrerias kaleko jaietan**

Ferreristarrek ospakizuna izango dute etzi, zapatua. Besteak beste, 12:00etan txistulariek kalejira egingo dute eta 17:00etan hainbat jolas izango dira: zaku lasterketa, haur jolasak, 7 eta 14 urteko umeendako lasterketak, eta beste. 19:00etan meza esango dute, San Frantziskon. 21:00etan afaria egingo dute eta 23:00etan musika izango da. Bestalde, aurten igarriko da Bionak antolatzen zuen kubatar festaren hutsunea, baina jakinarazi dute beste hainbatek hartu dutela lekuoa eta ospatuko dutela Kubako Independentzia Eguna.



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak**

San Andres Auzoa 10. pabilioia  
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

**kapikua**  
OPARIAK ETA OSAGARRIAK

Bañez doktorea 4  
(San Andres auzoan)  
Arrasate

Tel.: 943 79 19 94

bere ustez



Zuriñe Velez de Mendizabal

Manera  
eskasen  
garaia

**E**txean beti erakutsi didate jendearekin erlazionatzerakoan errespetuz jokatu behar dudala, manera onak zaindu eta nahiz eta parean dudan hori gogoko izan ez, begirunea zor diodala. Ahalegintzen naizela ezin dut ukatu; lortzea, beste gauza bat da! Hala ere, badaude oinarrizko jokamolde horri buruz sekula entzun ez duten pertsonak. Edo agian ahaztu egin dute behin beraien aita-amek esandakoa. Pentsatu administrariora joan eta paper

**"Agian oporen  
beharrean nago eta  
gauzak ilun ikusten  
ditut; edo beraiek  
dute premia hori?"**

batzuk betetzerako orduan, ia aurpegira begiratzen ez zaituen langile horren ahotik irteten diren hitz hotzek haserre bizian jartzen zaituela. Nori ez zaio gertatu? Edota hiru urtez enpresa batetan lanean ibili eta erlazio zuzena daukazun nagusiak kontratuak eteten dizunean, agur ere ez esatea? Imajinatu ugazaba edo langile batek zerbaitek egiteko galdegin eta ondo egiten ez baduzu, temati arituko dela eskean harik eta nahi duen emaitza lortu arte; lehenengoan dena ongi irteten bada, kasurik ez! Ez litzateke samurragoa moduak gordetzea? Agian opor beharrean nago eta gauzak ilun ikusten ditut; edo beraiek dute premia hori? Joan bakantzetara eta deskantsatu, arren!

KIROLAK &gt; ATLETISMOA


# Jonathan Perez Espainiako txapelketarako gertu dago

Asteburu honetan Tenerifen jokatuko den txapelketan hartuko du parte

Perezen helburua marka pertsonala (5,10 metro) hobetzea izango da

JASONE ZABALA > ARRASATE Jonathan Perezek asteburu honetan Tenerifen jokatuko den Espainiako atletismo txapelketan du hitzordua. Gogo handiarekin doa bertara, pertika modalitatean lan txukuna egiteko asmoz.

**POSTUA HOBETU ETA MARKA EGIN** Aurten, pista estalian bosgarren tokia izan da bere posturik oneña. "Asmoa bosgarren postu hori hobetzea edo nire marka pertsonala egin edo hobetzea da, horrek konformatzen naiz; eta gero, domina bat lortzeko aukera bal-



Jonathan Perezek helburua marka pertsonala eta bosgarren postua hobetzea izango da.

XABIER URTZELAI

din badaukat, ez diot muzinik egingo", adierazi digu Perezek. Aurten 5,01 metro egin du salto, baina bere marka pertsonala 5,10 metro da. Espainiako txapelketa horretan parte hartzeko gutxie-

neko altuera 5 metro zen, edo bestela Espainiako 12 lehenengo artean sailkatzea. "Hala eta guztiz ere, beti sartu izan naiz lehen hamabien artean". Tenerifeko sadorako haizea ibiliko da, eta

horretaz balia daiteke Perez: "Beste parte-hartzialeak haizearekin nahiko beldurtiak dira". Faborioen artean bi pertika-jauzilaria daude, Perezek esanetan: "Alde batetik, 5,45 metroko marka duen Igor Bychko ukrainar nazionalizatua; eta bestetik, marka bera duen Alberto Martinez madrildarra". Bestalde, arazoak egon dira pertikak Teneriferaino eramateko, ez baitziren hegazkinean sartzen, baina dagoeneko arazoak konponduta dago.

txutxu-mutxua

## Ikerlaneko langileak sasoi betean daude

Ikerlaneko langileek herri kirol txapelketa egin zuten joan zen astean Iturripen, urtero egiten duten moduan. Urtero antolatzentzituzte udaberrian lehiaketa ezberdinak: areto futbola, saski baloia, ping-ponga... Egitarauari amaiera emateko herri kirolak egiten dituzte. 50 lagun inguru elkartu ziren, nor baino nor gehiago, giro onean beraien trebetasunak neurtzeko. Gero, noski, indarrak berreskuratzeko afaria egin zuten.



HODEI USABIAGA

*Lore*

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

**Monte  
taberna**

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

LEHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK  
**AGR**  
García Ripa

ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

**Erakusketa eta biltegia:**  
Kale txiki 3 beheña (Musakola)  
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

**UGARAN**

Jatetxea

Garagartza auzoa

Tel.: 943 79 76 58

ARRASATE

**S. CARRASCAL S.L.**

### Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

### Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15  
Uribarri auzoa 4  
Tel. faxa: 943 79 01 82

**Txitxinpe**

Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroak


Arrasate pasealeku 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



# Ferreriasko Jaiak 08

Uztailaren 26a, eguna

- 9etan etxafleruak.
- 12etan txistularien kalejira.
- 17etan haur jolasak, zaku lasterketa, joku eta lehiaketak, 7 eta 14 urte bitarteko mutiko entzako lasterketak, txokolatada etab.
- 19etan mesa, San Frantziskon.
- 21etan herri afaria.
- 23etan musika, herriko talde batek girotua.



HIRIGINTZA &gt; DOMINGO IRALA KALEA

# Domingo Irala, irailaren 1ean zabalik

Hainbat hiri tresneria udazkenean jarriko dute: landaretza eta, agian, komunak, besteari beste

OIHANA ELORTZA &gt; BERGARA

Uztailaren 31rako bukatu behar zituzten Domingo Irala kaleko obrak, baina ikusita lanak epe barruan ezingo zituztela bukatu, epea luzatzeko eskatu dio Udalari lanak egiten ari den Amaral eraikuntza enpresak. Udalak hilabeteko luzapena eman dio; hau da, abuztuaren 31ra arte. "Irailaren 1erako bukuta egon behar dute", dio Agurne Barruso alkateak.

**HIRI TRESNERIA, UDAZKENEAN**

Hala ere, lanak orain bukatu arren, litekeena da hainbat hiri tresneria udazkena arte ez jarria. "Landaretza, adibidez, udazkenean jarriko da, orain ez dela horretarako saso egokiena", dio alkateak. Komun publikoak dira aurrerago jarriko duten beste elementu bat; ez dira irailaren 1ean zabalduko, ziurrenez. Orma-zabal hotelaren eta ondoko erakinaren artean jarriko dituzte



Abuztu osoan ibiliko dira lanean Domingo Irala kalean.

O.E.

komun publikoak, baina oraindik erabakitzeko dago noiz egoago diren erabiltzeko moduan. "Emakumeendako eta gizonendako komunak ez ezik, umeak aldatzeko gela bat ere egongo da txoko horretan", aurreratu du Agurne Barrusoak.

**TRAFIKOA MURRIZTU**

Lur azpiko harguneak sartuta eta azpiegitura guztia eginda, galtzada-harriak jartzen segiko dute datozen egunetan. "Denborara beharko dute galtzada-harriak jartzen, baina horixe izango da azken pausoan; hiri tresneria sar-

tzea faltako da gero. Bestalde, Domingo Irala ez da oinezkendako bakarrik izango, ibilgailuendako bide estu bat egongo da. Galtzada-harri gainetik pasako dira autoak, trafikoa murriztu gura dugu horrela. Zamalane-tarako tokia egongo da, hala ere".

POLITIKA &gt; GALLASTEGIREN PRENTSA AGERRALDIA

## Gobernuari erantzun dio alkate ohiak

JASONE ZABALA &gt; BERGARA

Victoriano Gallastegi Bergarako alkate ohiak (EAJ) prentsaurreko egin zuen astelehenean; hain justu, uztailaren 11n argitaratu zen GOIENKARIAn Agurne Barruso alkateak elkarritzeta baten esandakoari erantzuteko.

**PLANIFIKAZIORIK EZ**

Gallastegik modu pertsonalean deitutako prentsaurreko egin zen, eta, gauzak argi uzteko asmoz, hauxe adierazi zuen: "Ez dezala esan oraingo gobernuak inongo planifikaziorik egin gabe utzi zuela aurreko gobernuak; guk eginda utzi genuen. Beste gauza bat da guk eginda utzi genizkion planifikazioak ez zaizkiela gustatzen eta moldatu egin behar dituztela". Gallastegik gehitu du Barrusok egindako adierazpenek argi era-kusten dutela aurreko gobernuak utxitako planifikazioaren ezagu-



Gallastegi, astelehenean egindako agerraldian.

JASONE ZABALA

tzarik eza. Gallastegiren ustez, "egin duten bakarra aurreko gobernuak utxitako proiektuak adjudikatzea izan da, hala nola Domingo Irala kaleko proiektua, Zabalotegikoa eta Agorrosin Ekin-tza Guneko". Agorrosingo proiekturako, gainera, inprobisa-

zia erabili dutela adierazi du, ez dutelako zehaztu behin betiko proiektua zein izango den.

Amaitzeko, oraingo gobernuaren gainean hauxe adierazi zuen: "Oraindik proiektuak aztertzen ari dira; 13 hilabete pasa dira eta ez dago planifikaziorik".

arloetan irtenbideak bilatzeko". Aurreko Gobernuaren planifikaziorik ezari buruz, agintea hartu zutenean herriko hainbat proiektu ze egoeratan zeuden ere gogoratu du EAJk. Adibidez: Zabalotegiko aretoa, Miguel Altuna Artabillara eramatea, auditorioa eta Arrizuriaga parkea. Osoko bilkura askotan mozio politikoen eztabaik ten-tsioa ekarri dutela ere badio EAJk prentsa oharrean: "Gure ustez, nahita bultzatuta".

AGINTALDIAREN LEHEN URTEA &gt; EAJ-REN BALORAZIOA

## Urte ahula izan dela dio EAJk

O.E. &gt; BERGARA

EAJren iritziz, ahula izan da agintaldiaren lehen urtea. Alderdi jeltzaleak bidalitako prentsa oharrak dioenez, "aurreko Udal Gobernuak egindako kritikatzen hasi eta bukatu du alkateak agintaldiaren lehen urtea, ahultasuna agerian utziz. Ahultasuna erakutsi du gobernatze-ko, proiektu zehatzak proposatzeko eta, orokorrean, herrian dauden premiazko beharrei, gizarte, hezkuntza eta kultura


&gt; JAIAK

### San Martin jaietan plazan jarriko duten txosna kudeatu gura duenak izena emateko epea, zabalik

San Martin jaietan herriko plazan jarriko duten txosna kudeatu gura duen herriko edozein taldek zabalik du epea eskaera egiteko. Udaletxean egin behar du, eta irailaren 2a da azken eguna. San Martin jaiak irailaren 13tik 16ra ospatuko dituzte.

## ZABALA

JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14  
BERGARA.  
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

## BERGARA MARMOLERIA PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak  
  
Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77

## Kabutzia

ARRAINDEGIA  
  
Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

## UREDERRA

ITURGINTZA

Iturgintza  
Berogintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
Salmenta  
  
Arruriaga 11  
686 943 918

> OSPAKIZUNAK  
**Basalgoko eta  
Goimendiko jaiak  
asteburuan zehar**

Basalgoko jaien egun garrantzitsuena da gaur. 11:00etan meza nagusia egingo da eta ordubete geroago Basalgoko igoera hasiko da. 12:30ean pilotu partiduak jokatuko dira eta ondoren Erromeria egongo da. 17:45erako dantza txapelketa prestatu dute eta ordubete geroago harri-jasotzaileak egongo dira. Erromeriarekin amaituko da eguna. Zapatuan, meza egingo da 11:30ean eta bertso bazkaria egingo dute.


Goimendiko jaiak ere ospatu dira gaur. Meza egingo da 11:00etan. Gero, bertsolarietako trikitilariek alaituko dute giroa eta 13:00etan umeentzako jolasak izango dira. 18:00etan herri kirolak egingo dira eta ondoren bola-joko txapelketa. Trikitilariek gauerdia arte egingo dira, eta aurretik bertsolariak.

**ERAKUSKETA > TXOMIN AMASORRAIN**

# Amasorrainen lanen erakusketa Aroztegin

Amasorrainen obra grafikoa, idazkiak, grabazioak eta beste hainbat gauza egongo dira ikusgai

**NEREA MENOR > BERGARA**  
Euskaltzale amorratua izan zen Txomin Amasorrain (1908-1973), baita argazkilari bikaina ere, beste hamaika gauzaren artean. Orain, haren jaiotzaren 100. urteurrena ospatzeko, Amasorrainen lanen erakusketa antolatu dute Aroztegi aretoan: urtetan zehar ateratako argazkiak, grabazioak, *Zeruko Argia*-n idatzitako testuak eta egingo dira abuztuaren



Amasorrainen omenezko liburuan agertzen diren argazkiak.

TXOMIN AMASORRAIN

29tik irailaren 16ra bitartean Barrenkaleko aretoan.

Erakusketan salgai egingo da familiak aitaren omenez eginiko liburua: *Txomin Amaso-*

rrainen biografia, obra grafikoa, idazkiak eta beste hainbat gauza biltzen dituena. Erakusketaren helburua Amasorrain zein zen eta zer egin zuen azaltzea da.

bere ustez



Andres Osa

Azkuna,  
español  
erregionalista

I rukurle, helduko zitzazkizun Bilboko alkatearen ate-raldi hutsezinezkoak, infalibleak. Erromako Aita Santuari Bilbon atera zaio kontrario serioa. Ahoa ondo puztu behar da esaten dituenak esateko. Estatu Batuetan egon da bere gaixotasuna sendatzen eta Bilbora heldu bezain laster segapota urik gabe laga du. Ibarretxeren kontsultari buruz, Espainiarekiko zentralitatean maite mindurik agertu zaigu, zaunkaka. Baino PNVko afiliatura da, Bilboko alkatea eta horre-

"Espainiarekiko  
zentralitatean  
maite mindurik  
agertu zaigu  
zaunkaka"

Etxaniz anai-arrebak,  
duela 67 urte

Duela 67 urte ateratako argazki honetan Etxaniz anai-arrebak agertzen dira: Rosario, Eduardo, Patxi, Bitoriano eta Edurne, hurrenez hurren. Antzuola Matximenta baserriaren alboan azaltzen dira gaztetxoak, baina gaur egun bi baino ez daude Antzuan bizi. Anai zaharrena da Patxi, 12 urte ditu.

Argazkia: Patxi Etxaniz.  
Testua: Nerea Menor.  
Urtea: 1941.



**JOXAN**  
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

**GOIERRI**  
**AUTO GIDARIEN ESKOLA**



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

**GURIA**  
**Taberna**

Bidekurutzeta 5

BERGARA

943 76 20 34



Argazki honekin irabazi zuen iazko lehiaketa Benito Canterok.

BENITO CANTERO

## KIROLA &gt; KIROL ARGAZKIAK

**Kirol Argazki Lehiaketa antolatu dute aurten ere**

Argazkiak udaletxeen aurkezta behar dira datorren irailaren 11 baino lehen

OIHANA ELORTZA &gt; BERGARA

Udal Kirol zerbitzuak eta Pol Pol Argazki Taldeak Bergarako Kirol Argazki Lehiaketa antolatu dute aurten ere eta dagoe-neko zabalik dago lanak aurkez-teko epea. Irailaren 11 da argazkiak aurkezteko azken eguna.

**BI KATEGORIA**

Bergarako Kirol Argazki Lehiaketa *Argizaiola* lehiaketarako sailkatzeo baliagarria da. Oinarriak Agorrosin kirol gunean zein interneten kon-tsulta daitezke. Funtsezko oinarrria da, noski, argazkian kiro-la ikusi behar dela, horixe da eta argazki lehiaketako gaia. Laborategiko edozein teknika prozedura onartuko dute eta bi

kategoria egongo dira: zuri-beltzean edo koloretako argazkiak. Lan kopuruari dagokionez, mota bakotzeko lau aurkez-dai-tezke, beste inongo lehiaketan saritu gabeak. Lau sari eman-go dituzte: hiru argazki onenei eta herriko onenari. Erabakia irailaren 13an hartuko dute eta sari banaketa 26an egingo dute.

**ERAKUSKETA**

Lehiaketa honetara aurkeztutako argazki aukeratuak ikus-gai jarriko dituzte Arozetegi aretoan irailaren 19tik 28ra.

Joan den urteko lehiaketa-ra aurkeztutako lanak [www.bergara.net/Kirola/argazkiak/argazki/Lehiaketak](http://www.bergara.net/Kirola/argazkiak/argazki/Lehiaketak) hel-bidean daude ikusgai.



Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

- Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
- Ziklomotorreko lizenzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin

**Gainditu motorraren azterketa teorikoa 16 urte bete aurretik!  
Eta autoarena 18 urte bete aurretik!**

943 76 16 63 BERGARA

## MUSIKA &gt; ESPOLOIKO KONTZERTUAK

**Gradinen jazz doinuak, musika beltz gaei amaiera emateko**

Uztaileko egubakoitzetan egon diren Espoloiko jazz estiloko emanaldiak bihar izango dute amaierako azken kontzertua

JASONE ZABALA > BERGARA  
Terela Gradinek eta GEM Trio galiziarrek emango diote itxie-ra gaur gaeuan Espoloian uztai-leko egubakoitzetan egon diren kontzertuei. Terela Gradin gaza-tea da, baina galiziarrak erakutsi du jazz musikaren barruan etorkizun handia duela.

Harekin batera GEM Trio izango da bateria, gitarra eta kontrabaxua jotzen; Gradinek ahotsa jarriko du.

**JAZZA ETA EGUNGO MUSIKA**

Gradinen lan bildumak, jazz gai klasikoak –Cole Porter, Miles Davis eta Wayne Shorter– eta



Terela Gradin eta GEM Trio.

BERGARAKO UDALA

egungo musikagileen gaien ber- tsioak, –Sting eta Radiohead– eta konposizio originalak biltzen ditu, taldearen soinu kontzeptuak eta taldeideen sormen ekarpenek estilo aldetik bateratuak. Kaleratu dituen azken lanak *Lost* (2006) eta *Pascala* (2007) izan dira. Musika emanaldiak emateaz gain, beste talde batzuekin kolaborazio lanak ere

egiten ditu Gradinek: bere ize-na daraman bostkote baten ari da; kolaborazio lanak egiten ditu Manuel Gutierrez piano-jotzai-learekin; bihar gaeuan gure arte- ra Espoloira etorriko den taldearekin ere –GEM Trio– egiten ditu emanaldiak. Horretaz gain, Nafarroako musika kontserba-torioan bere musika ikasketekin dihardu.

**San Antonio ermitako katekisten afaria**

Pasa den zapatuan, uztailak 18 San Antonioko ermitan duela 20 urte inguru katekesia ematen aritu ziren 10 emakumek afaria egin zuten Zumelaga jatetxeen. Katekista horiek On Serafin Esnaola apaiz zela neska-mutikoen katekista izandakoak dira. Garai hartan euren sem-alabak ere katekesia ikastera joaten ziren bertara, eta halaxe hasi ziren. Aspaldiko kontuak berbagai eta giro bikainean, ederki pasa zuten eguna.

**ARRAÑAGA**

AUTORESKOLA

# Goiena Telebista abuztuan ere zuekin!

GOITB

Egunero zazpi albistegi  
(11:45, 13:45, 15:45, 17:45, 19:45, 21:45 eta 23:45)  
Eta horretaz gain, musika, sukaldaritza saioak, llunpean,  
marrazki bizidunak...

Goiena.net

[www.goiena.net](http://www.goiena.net) atarian ere informazio eguneratua  
Zoazen lekura zoazela, izan Debagoieneko albisteen  
berri!

#### Gurekin kontaktuan jartzeko:

Informaziorik bidali gura baduzu, hauxe da posta  
helbidea: [berriak@goiena.com](mailto:berriak@goiena.com) • Tel.: 943 25 05 05





Ohitura den legez, abuztuaren 17an sokamuturra izango da Durana kalean.

MIRARI ALTUBE

JAIAK > ANDRAMAIXAK

## Barricada taldea izango da Andramaixetako izarra

Zaldien ikuskizuna eta Txinako SanXia taldeko akrobaten trebetasunak dira aurten nobedadeak

Gazte Ekimenak ekitaldi asko antolatu ditu txosnagunerako, 'Hondartza eguna', esaterako

**MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta**  
Egunotan ailegatuko zaigu Andramaixa jaietako egitaraua etxeetara, herritarrek lehenbailehen jakin dezaten zer izango duten

abuztuaren 14tik 17ra bitartean. Jai batzordeak eta Kultura Sailak elkarrekin gertatutako egitaraua da. Prebentzio Zerbitzuak, osteria, esaldi lehiaketa antolatu du, eta

*Infernuko neskak* delako taldearen –Jone, Elena eta Nagore– esaldia agertuko da egitarauan: *Zezenen aurrien, txarangan atzien eta beti lagunen artien*. Jaietan pegatinak egiteko beste hiru esaldi erabiliako dituzte: *Oihana Aldai eta Jessica Garcien Ume, gazte eta zahar, Andramaixak denondako daz; Aitor eta Ander Belategiren Andramaixetan gozau, baina ez pasau!*; eta Lorena Hidalgo eta Oihane Caberoren *Andramaixetan, goizean bero, gauean ero*.

Aurtengo berrikuntzetako bat ekitaldien kokalekua da; izan ere, Herriko Plazako lanak direla-eta ekitaldiak lekuz aldatuko dituzte: mus txapelketa Durana kalean egingo dute, umeendako parkea eta ikuskizunak Kurtzebarri eskolako kantxan eta herri bazkaria Iturrigorri frontoian.

**MARIATXIAK ETA ESKOZIARRAK**  
Adin tarte guziendako gustuko jaiak gertatzen saiatu dira, eta zer ikusi ugari egongo da. Betiko

ekitaldiek nobedadeekin egingo dute bat, egitarau osatua eskainitzeko. Betikoan artean hauek daude: Ikurrinari agurra eta txupinazoa, mus txapelketa, meza nagusia, suzko erruberak, txirrindulari lasterketa eta pilota partiduak eta sokamuturra eta paella erraldoia. Bazkalostean, gainera, Gazte Ekimenak antolatutako jolasak egongo dira.

Kirolari dagokionez, esan behar da Leintz bailarako 71. txirrindulari lasterketaren ibilbideari aldaketatxo batzuk egin dizkiotela, baina ikusleek ez dute aparteko ezer igarriko. Bestalde, profesionalen pilota partiduak ondorengo pilotariek jokatuko dituzte: Saralegi eta Oteiza, Bellosoaren eta Rairen aurka lehen partiduan; eta Arretxe II.a eta Zearra, Retegi II.aren eta Belokiren aurka bigarrenean.

Nobedadeen artean, osteria, hainbat daude: Azpeititik datozen zaldien dantzen erakustaldia, Txinako SanXia arte akrobatikoaren konpainiaren ikuskizuna eta Barricada taldearen kontzertua. Zalantza barik, Andramaixetako izarra izango da Iruñeko taldeak abuztuaren 15ean txosnagunean egingo duen kontzertua. Horiez gain, koadrilen egunean Imperi Azteca mariatxiak girotuko ditu bazterrak, eta The McKensy's Band taldeak eskoziar musika eta umorea bateratuko ditu.

### TXOSNAGUNEKO EKITALDIAK

Azken urteotan legez, Gazte Ekimenak txosnaguneko egitaraua gertatu du. Abuztuaren 14an emango diete jaiei hasiera, txupinazoarekin eta mozkorraren igoera eginda. Ondoren, pintxoak eskainiko dizkiete elkartutako. Andramari egunean, Hondartza Eguna egingo dute, eta iragarri dute igerilekua eta hondartza egongo direla egun osoan txosnagunean. Gainera, egun horretako mororro onenari saria emango diote. Abuztuaren 16an herri bazkaria izango da, nork bere bazkaria eroanda, eta arratsaldean baso-tuboaren aurkako kalejira egingo dute. Azken egunean, Txanogorritxo eta otsoa izango dira, eta, jaiak bukatzen, mozkorraren jaitsiera egingo dute.

## 190 bat ume ibili dira udako kirol kanpainan

Batuka, igeriketa, tenisa, patinajea eta multikirola jarduerak egin dituzte, baita lehen aldiz trialsina ere. 10 eta 12 urte arteko neskek batuka aukeratu dute eta hiru talde sortu dituzte; txikienek, osteria, igeriketan jardun dute eta lau talde ibili dira. Trialsinean talde txoia sortu da, eta gustura jardun dute, Aitor Murua, Markel Uriarte eta Una Zuntzunegi trialsinlariekin.



IDOIA ELEXPURU

### > DEIALDIA Ludotekan lan egiteko begiralea behar du Loramendik

Datorren ikasturtean Algara ludotekan lan egiteko begiralea behar du Loramendi EEk. Hona baldintzak: 18 urte bete-ta izatea, EGA edukitzea eta haurrekin esperientzia izatea. Horiez gain, Aretxabale-takoia izatea eta bertako euskalkia menderatzea baloratuko dituzte. Interesatuek curriculuma bidal dezatela posta elektronikoa erabilita: *loramendielkartea@yahoo.es*; edo eskutitz bidez: Loramendi Euskara Elkartea, 96 posta-kutxoa, 20550, Aretxabala.



Arkarazo auzora bidean ezkerretara dagoen Iturriondo parkea txukuntzen dabiltza langileak.

MIRARI ALTUBE

Industrialdearen atzetik hasi, Iturriondo pasatu eta Bolinagako bidearekin elkartuko da eta, Mitarte Garai pasatutakoan, bidegorrira joko du

HIRIGINTZA > ITURRIONDO PARKEA

## Irailean bukatuko dute Iturriondotik bueltan Urkulura doan ibilbidea

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABAleta  
Aurrera doaz Iturriondo parkeko lanak, baina uste baino astiroago. Udalak uste du irail erdirako bukatuko dituztela lan guztiak, baina abuztua tartek dagoela kontuan hartu behar da. Arkarazo auzora bidean eskuinaldera dagoen

parkea da Iturriondo. Zuhaitz eta zuhaixka asko daude bertan landatuta, baina orain arte kasu gutxi egin dio Udalak. Orain, parkea txukuntzen dabil eta landare guztiak sailkatuko ditu izena jarrita. Gainera, beste ibilbide bat egingo du Urkulura joateko.

### METRO ETA ERDIKO BIDEXKA

Bainuetxeko industrialdearen atzetik dabiltza egiten Urkuluraino joango den hirugarren ibilbidea. Industrialdean, gainera, garai bateko bainuetxearen aztarna berreskuratuko dute. Handik Iturriondora joango da bidea, eta ur-depositu zaharra-

ren albotik Bolinagara doan bidearekin elkartuko da. Handik Areantzako Mitarte Garai baserriraino eginda dago bidea, eta han ezkerreko aldera hartuta orain dagoen bidegorriarekin elkartuko da.

Zagorrarekin (*todo uno*) egin dako bidexka izango da Iturriondotik pasatuko dena eta laru kolorekoa magotuko dute. Azpian, baina, harri handiak sartu behar dituzte lurra ondo fin-katuta geratzeko. Metro eta erdi inguruko zabalera izango du; horregatik, Udaleko Ingrumen sailak argi utzi gura du oinezkoendako izango dela, eta ez bizi-kletendako.

## Jaialdia eginda agurtu zituzten atzo udalekuak 200 umek

Gusturajardun dute hiru astean 200 neska-mutikok udalekuetan, eta antolatzaileak ere oso pozik daude. San Fermin eguna, Uraren Eguna, Piraten Eguna, jinkana erraldoia eta beste jolas asko egin dituzte. Baite irteerak ere: Otala Zelaira, Apotzaga, igerilekura, Galartzara gaua pasatzeria eta Donostiara -argazkian, Kristina Enea parkean.



POXPOLIN

### SANTIAGO JAIAK

## Txapelketak eta afaria, Goroetako jaietan

Bihar, meza izango dute, eta etzi, jolasak, txapelketak eta auzoko afaria

**M.A. >ARETXABAleta**

Santiago jaiak ospatuko dituzte Goroeta auzoan datozen bi egunetan. Bihar, egubakitzta, meza esango dute santuaren omenez (12:30) eta ostean mokadutxoa eskainiko diete auzotarrek elkartutako guztie. Etzi, zapatua, umeendako jolasak egingo dituzte arratsaldean, eta bien bitartean helduek mus eta briska txapelketak jokatuko dituzte. 21:00etan, osteria, afaria izango dute auzotarrek eta afalos-tea Txome akordeoilariak girotuko die.

**PARROKIAN ARRATSALDEAN**

Bihar, Santiago eguna, Aretxabaletako parrokiak ez dute esango mezilik goizean; aste-gunetan legez, 19:00etan izango da.

> OSPAKIZUNA  
**Bertsolariak izango dira Muru Alden, San Inazio ospatzeko**

Zaindaria duten San Inazio eguna ospatuko dute hilaren 30ean eta 31n Muru Alde gastronomia elkartean. Eguazte-nean, hilak 30, afaria egingo dute baziak Andoni Egaña eta Xabier Paya bertsolariak lagun dituztela.

Hilaren 31n, San Inazio eguna, meza entzungo dute parrokiak, eta ostean salda eskainiko dute Mitarte kalean dagoen elkartean. 13:00etan, osteria, 22. bolo jaurtiketa txapelketa egingo dute bolatokian. 10 euro ordaindua jokatu ahal izango dute herritarrek, eta sari bikainak jasoko dituzte irabazleek.

**BENGOA URDAITEGIA**

**Bertako okelak eta mortzilak**

Durana 9. Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 19 79

**M**obiliario  
**A**RENAZA

- **ALTZARIAK**
- **DISEINUA**
- **APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABAleta

OSASUNA > OSASUN ETXEA

## Giza baliabideak "eskasak" direla eta pediatria zerbitzuan arazoak daudela onartu du Osakidetzak

Pediatrak goizetan bi ordu ematen ditu ume txikienak hartzen eta nagusiagoek familiako medikuarengana joan behar izaten dute

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA  
Haserre daude guraso eskoriazarrak gaur egun eskaintzen ari zaien pediatria zerbitzuarekin. Salatu dutenez, goizetan bi orduz

baino ez da egoten haur txikienerkin, eta nagusitxoagoak diren umeak, berriz, familiako medikuak hartzen ditu.

### OSAKIDETZAREN ERANTZUNA

Osakidetzako koordinatzaile Edurne Lizarazuk onartu du pediatria arloan giza baliabideak "eskasak" direla: "Pediatra titularra bajan dago eta giza baliabideekin arazo bat dago". Aretxabaletan ere egoera antzekoa da, pediatria titularra bajan dagoela, eta, beraz, Lizarazuk adierazi duenez, "umeak hartzen ditugu herri bate-

an edo bestean, beharren eta ditugun giza baliabideen arabera". Eskoriatzan 562 umek jasotzen dute esandako zerbitzua.

Egoera noiz normalduko den galdetuta, pediatria titularra lane-ra bueltatzean edo ordezko jaritzean aipatu du. Lasaitasuna helarazi gura izan du Lizarazuk; izan ere, "edozein urgentzia izanda, medikua badago. Orain gertatzentz ari dena ez da berria. Uda garaian, agendak batzuetan moldatu behar izaten ditugu, dauzkagun behar eta baliabideen arabera, edozein enpresan bezala".



Eskoriatzako osasun etxeak arazoak daude pediatria zerbitzuarekin.

GOIENKARIA

UDALA > BIDEGORRIA

## Zakarrontziak beteta daudela salatu dute

Garbiketa egiten duen Cespa enpresarekin bilduko da Udalak, bere lana bete dezan exijitzeko

M.B. > ESKORIATZA  
Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko bidegorriko zakarrontzien egoerarekin haserre daude herri-tar batzuk. Torrebaso industrial-dean eta trenbide zaharrean dauden hamabi zakarrontzi inguru beti beteta daudela diote: "Askotan bi hilabete pasatzen dira hustu barik, denak bete-beteak egoten dira".

Gogorarazi dute bide horretatik, egunero, ehunka herritar pasatzen direla eta, beraz, ezin-besteko dela zakarrontzi horiek

guztiak behar bezala edukitzea eta ingurunea txukun eta garbi izatea.

### ENPRESAREKIN BILERA

Udaletik jakinarazi digute bidegorriko garbiketa lanak egiten dituen enpresarekin biltzeko asmoa dutela; Cespa enpresarekin, hain zuzen ere. "Enpresa horri dagokio ingurunea txukun izatea eta, beraz, bere lana behar bezala bete dezan exijituko diogu", azpimarratu du Pedro Lasagabaster alkateak.



Irudian, Torrebaso inguruko zakarrontzia bete-beteta.

GOIENKARIA

> HIRIGINTZA  
**Huheziko aparkalekuak itxiko dute gaurtik**

Huheziko aparkalekuak ibilgailuak uzteko ohitura duten eskoriatzarrek beste toki bat bilatu beharko dute datozen egunotan. Udalak jakinarazi duenez, gaurtik-eguena-ezin izango da esandako tokian autorik utzi.

Aparkalekuak hainbat konponketa egin behar direla azaldu dute iturri berek. Hortaz, datorren astelehene-ra arte-uztailak 28-ezingo da aparkalekuak erabili.

**EGUERDIRAKO, DENA GARBI**  
Horrekin batera, oraindik Huhezin aparkatuta dituzten ibilgailuen jabe guztiei ere eskaera egin die Udalak: gaur 13:00ak aurretik han aparkatuta dauden autoak ateratzea, hain zuzen ere. Aparkalekuak hutsik egon behar du ordurako.



Portugalgo boktoteak fadoa eta jazza nahasten ditu.

GOIENKARIA

Pedro Iturbe &gt; Alkatea

# "Kiroldigi funtzioa beteko duen aterpe bat behar da, eta lanean dihardugu lortzeko"

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA**  
 Urtebete pasa da Pedro Iturbek Antzuolako alkatezta hartu zuen. Urte honen ondoren, agintaldia ren balorazioa egiteko eskatu diogu alkateari, baina Udalean dauden gainontzeko alderdiei ere.

**Urtebeteren ostean, zein balorazio egiten duzu, orokorrean?**

Lehenengo urtea beti da gogorra. Baina, oro har, balorazioa positiboa da. Aurretik hasitako proiektu batzuek lan handia eman digute. Gainera, kontuan izan behar da udalbatzan jende gehiena berria garela eta kosta egiten dela martxa hartza.

**Aurrez hasitako proiektuek lana eman dizuetela diozu.**

Sartu ginenean, plazan erreka zabaltzeko lanak amaitzean ziren, eta zirkulazioa antolatzeko piboteak ipini nahi izan genituen. Bestalde, baziren beste proiektu batzuk abian: Torresoroa gizarte etxea eta 20 etxebizitzat tasatuak. Proiektuak ondo aztertzeak eta aldaketak egiteak eman zigun lana; aurretik proiektua ondo ezaugu ezean, kosta egiten da.

**Urte honetan barrena aurreko bideari jarraitu diozue?**

Nolabait esateko, aurrekoari jarraitu diogu, bai. Herria obraz beteta zegoen. Sarrerak amaitzeke zeuden eta horrek nahiko lan eman zigun. Horren harira, herriko argiteriaren inguruan arazoa sortu ziren: instalazioak zaharkituta zeuden eta kableak aldatu eta auzotarako koadro berriak sartu behar ziren. Hobekuntzak egitearekin eta aurreko proiektuekin jarraitzearekin baguenen nahiko lan. Gainera, zirkulazio arazoa ere hor zegoen eta lanean dihardugu ea bideratzen ditugun arazook.



Pedro Iturbe alkatea herriko plazan, udaletxea atzean duela.

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Udal funtzionamenduan nolakoa da parte-hartzea?**

Oso ona. Talde bakotzak markatzen ditu bere lehentasunak, eta zein batzordetan egongo den eta zeinetan ez. Baina hasieratik taldeetako ordezkariek ez ezik herriar asko hurbiltzen da batzordeetara eta parte-hartzea ona izan da, bai taldeei dagokienez eta baita herritarrei dagokienez ere. Batzorde batetik bestera parte-hartze maila aldatzen da, baina batzorde guztiak nahiko indartsu dabilta parte-hartzeari dagokionez, eta hori gero, kaleko ekintzetan eta jardueretan ere igartzen da.

**"Jendeak batzordeetan parte hartu du eta hori gero kaleko ekintzetan igartzen da"**

**"Egoera politikoa txarra da eta horrek eragin ditu beste alderdiekiko desadostasunak"**

**Nolako da oposizioarekiko harremana Udalean?**

Banatu behar dira harreman politikoak eta herriari dagozkion gaietan sor daitezkeenak. Herriari dagozkionetan, batzordeetan adostasunera iristen saiatzen gara erabakiak kaleratu aurretik. Hala ere, egoera politikoak asko markatzen du eta desadostasun gehien horrek eragin ditu. Hortik begiratuta, egoera zailak, tristeak eta gogorrak izan dira. Prozesu bat bukatu eta beste egoera baten sartu ginen, eta egoera txarra da orokorrean. Baina udal jardunaren inguruan harremanak onak izan dira.

**Alkatetza hartu zenuenean zenituen erronak bete dira?**

Gure asmoa zen Udala ezagutzea, finkatzea eta indarrean zeuden proiektuak amaitzea. 2008ko bukaera alderako uste dut proiektu horiek amaituta egongo direla. Torresoroa eguneko zentroa eta zaintzapeko etxeak irailerako abian ipini nahi ditugu, eta liburutegia urte amaierarako. Auditoriuma atzeratuta badoa ere, hor sortuko da gune bat herritarren beharretara egokituz eurendako zerbitzu bat izango dena. Bestalde, Beheko auzoan egin zen sarerra eta Sagastin egingo den biribilgunea herriko sarrera nagusiak izatera pasako dira eta Sagastik garrantzia hartuko du zirkulazioari dagokionez. Ondoren, gertu izango gara beste proiektu eta arazo batzuei heltzeako. Kiro instalazioetan frontoia berritu behar da. Garbi ikusten dugu, adibidez, kiroldigi funtzioa beteko lukeen aterpe batzen beharra. Eskolan ere bada aterpe falta eta oro har toki falta. Asmo horrek aurrera egin dezan badihardugu Eusko Jaurlaritzarekin eta Diputazioarekin harremanetan. Herriko altzariak ere berritu behar dira.

**Aurrerantzerako zein asmo duzue esku artean?**

Proiektu asko daude. Bada bat Udalak eskumenik ez izan arren garrantzi handia duena: bidegorria, hain zuen ere; 2008ko bukaeran edo 2009ko hasieran hasiko dira obrak. Bestalde, bada beste proiektu bat herriarendako garrantzitsua dena; baserrietara ura eta saneamendua eramatea. Horrek diru asko eskatuko du eta ez da agintaldi honetan bakarrik egingo. Uraren gaineko diagnoziaren zain egon gara eta orain proiektua idazten dihardugu.

GAINERAKO ALDERDIEN BALORAZIOAK

EAJ

**"Guk kudeatutakoa kopiatu eta jarraitu besterik ez dute egin"**

"ANVik Antzuolako Udalean urtebete honetan izandako jarduerari izenburu bat jartzen ausartuz gero, *Paradoxa eta demagogia* izango litzateke hori.

Izan ere, harritutu gaude EAjik aurreko gure agintaldian hain kritikatua izan zen programa bera zein eman-korra izan den oraingo udalburuertzat. Guk kudeatutako guztia kopiatu eta jarraitu besterik ez dutelako egin EAeko hautatutakoek urtebete honetan.

Baina kezkatu ere bagaude, herri projektu bat ez dugulako ikusten. Are kezkatago, balego, iparrorratzik ezean, talde lan sendorik ez, eta talde hori bideratuko dueña inon ikusten ez dugulako.

Errazegi betetzen ditugu herriko hormak paperekin, baina herrigintza egunoroko ekintzak egiten delakoa gaude, eta hori da une honetan Antzuolako Udalean falta dena".

ZUTIK-EB-ALARAK

**"Denon lanari esker, hasita zeuden azpiegiturak bukatzar daude"**

"Su-etenetik Isaias Carrascoren erailketara giro politikoa aldatu da eta Udalean ere eragin du; tentsio-uneak bizi izan diren arren, talde guztiak zinegotziok egin dugu lan batzordeetan. Eskertzekoa da herriaren implikazioa herrigintzan, bileren ordutegiak ere horretan lagundu du. Denon lanari esker, hasita zeuden azpiegiturak bukatzar daude. Proiektu berriak martxan jarri edo berreskuratu dira: baserrieta ura eramateko lanak, ondare naturala kontserbatzeoak... Auzolana bultzatuda; genero-politikak sustatu dira; elkartea eta herritarrekin batera alardea aldatzeko urratsak eman dira. Gizarre zerbitzuetan lan mankomunitua finkatu da. Baina hobetzeko badira gauzak: lanen eta herritarren eskaeren plangintza eta jarraipena. Oraindik betetzeko Udalak diruen erronak, berriz, hauek dira: industrialdea, gaztetxea, etxebizitzen gaia, hezkuntza premiak, AHT..."

PSE-EE

**"Ongizate Sailak kezkatzen gaitu, ez daudelako lanean hainbat zerbitzu"**

"Urte honetan gaizki gobernatu da Antzuolan. *Euskal Y*a babesten dugu; hortaz, alkateak azpiegitura horren aurka azaldutako jarrerarekin ez gatoz bat. Hala ere, Ongizate Sailak kezkatzen gaitu batik bat. Izan ere, oraindik ez daudet abian eguneko zentroa, erretiratuen etxea, sendagilearen kontsulta, zaintzapeko etxeak... Bestalde, auzoak ahaztuta daude eta zaintzeko neurriak hartu behar dira. Garraio publikoaren arazoa aspaldikoa da eta Antzuolari dagokionez, Olaraneko geltokia mantentzeko eskatzen dugu. Gazteek etxebizitzarako erraztasuna izatea ezinbestekotzat jotzen dugu eta Hilaturaseko proiektuaren barruan %50 babestuak izatea eskatzen dugu. Herriaren kanpoaldean industrialde eta aisiaidirako ekintzen falta ere sumatzen dugu, baina kirol eskaiztan urritasunak ere. Bestalde, salatzeko da euskararen erabilera partidista eta udaletxea 'eraikuntza nazionalerako' erabiltzea".

ETXEBIZITZA > URUBURUKO URBANIZAZIOA

## 18 etxebizitza daude oraindik salgai Uruburun

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Bergarako Irualde Bat enpresa eraikitzaleak Uruburun egindutien etxebizitza guztiak ez dira oraindik saldu. Bi bizitzako hamar etxebizitza eta zortzi adosatu daude saltzeke. Txaletek, aldiz, guztiak dute jabea.

ETXEBIZITZA TASATUAK

Etxebizitza tasatuak amaitzen dihardute egunotan beharginek. Enpresa eraikitzalearen asmoa da irailean edo urrian 18 etxebizitzok entregatzea. Urbanizazio lanekin ari dira astean eta errepeidea asfaltatu dute.



Bidea asfaltatzen Uruburun. L.Z.

POLITIKA > EAJ-EA KOALIZIOARI ERANTZUNA

## EAJ-EAri gezurretan aritza leporatu dio Aralarrek

EAJ-EAri ez diotela "demokraziaren gaineko leziorik onartuko" adierazi du Elgetako Aralarrek

L.Z. > ELGETA

"Aurreko haueskundeetan bost botogatik irabazi, herriak eman ez zizuen zinegotzia hartu eta laurtean besteak kontuan hartzeke gura duena egin ondoren, EAJ eta EAri ez diegu demokraziaren

gaineko leziorik onartzen", adierazi du Elgetako Aralarrek. "Zigidi gobernuko elkarlana aukeratu beharrean oposizioa aukeratzea. Gezurretan oinarrizten den oposizio merkea egitea, ordea, ez da bidezkoa".

INICIATIBAK "HOGEITAKA"

"Udal Gobernuak iniciatibarik ez duela diozue. Gezurra. Hogeitaka dira iniciatibak", dio Aralarrek, eta hamar adibide ematen ditu: tartean bi auditoria egin izana, Salbador kaleko proiektuari egindako hobekuntzak eta dirua lortzea,

etxebizitza sozialak amaitu arte eraikitzalea Elgetan eutsi izana, haurtzaindegia eta San Roque osten egindako hobekuntzak.

UDALAREN ZORRA

"Egia bakarra esan duzue zuen idatzian, zorra handitu dela. Zeragatik azaldu genizuen: heldu ginean dirurik ez zegoelako". Lan egin gura duenak Elgetako Udalean badituela erremintak dio Aralarrek. "Oraingoan ere esango duzue gogor erantzun dugula. Gezurra esaten duenak ez du besterik merezi".

## Hilaren 17an egun pasa egin zuten erretiratuek Arraten

Debabarreneko erretiratuen elkartek antolatuta festa egin zuten hilaren 17an Arraten. Bertan izan ziren Elgetako erretiratua.

Egun pasa ederra egin zutela jakinarazi digute. Hamaiketan meza entzun zuten, urtean zehar hildako erretiratuen alde. Jarraian jokoak izan zituzten eta Krabelin jatetxean baxkaldu zuten. Arratsaldean dantzaldia egin zuten. Lehiaketak ere antolatu zituzten, baina Elgetako erretiratua ez ziren parte hartzen animatu. Dantza saio batzuk, baina, egin zituzten.



Elgetako erretiratua Arrateko festan.

ZEZILIO TOTORIKAGUENA

AGINTALDIKO BALORAZIOA > EAE-ANV

## EAE: "Herri orekatua eta justuagoa landu behar dugu"

"Herritarrekin serio lan eginaz eta elektoralismo hutsak utziz", adierazi dute

L.Z. > ELGETA

"Ezker abertzalekoak, berriz ere, ilegalizazio egoera gaude", salatu du lehenik eta behin Elgetako Ezker Abertzale Ekin-tzak agintaldiko lehenengo urtearen balorazioan. "Eskualdean Ino Arrasateko alkatea kartzelan dago, bi herritan EAJ eta Aralarrek gure zinegotziak eta alkabetza postuak lapurtuta dauzkate... Hori ahaztea ezinezkoa zaigu, nahiz eta Elgetan partidu horiekian lan egitea tokatu", adierazi dute.

UDAL FUNTZIONAMENDUA

"Udal funtzionamenduari dago-kionez, batzordeak orokorrean egoki ari dira", adierazi du hiru batzorde kudeatzen dituen EAE-ANV. Turismo batzordetik "Elgetak dituen gauzak bistan jarri nahi ditugu. Intxortako frontea lantzen gabiltza Euskal Herriarentzako izan duen garrantziagatik. Mendizaleen Federazioarekin elkarlanean gabiltza, bertan sortu zelako eta ditugun harremanengatik". Baserritarren batzordeak adierazi duenez, "herritarren laguntzarekin" herriko bi azoka antolatu ditu, baita baserri bideak eta herri basoen garbitaketa ere".

Osasun eta Ongizate batzordetik "momentuan gai garrantzitsuak kudeatzen gabiltza: drogaren prebentzia, erretiratuen egoitzaren kokapena irisgarritasun onarekin, kanpotarren integrazioa, dependentzia legea eta gutxiengo soldata", azpimarratu dute EAE-ANVtik.

AURRERA BEGIRAKOAK

"Esku artean ditugun gaiak landu, herritarren beharrak betetzeko planak martxan jarri, hirigintzan plana egin hutsik ditugun etxeak eta lokalak aprobaetatzeko, kirolegia eta hezkuntza hobetu, kultura herri-egokitu, ingurumena zaintzeko neurriak hartu... Batzordeezberdin arteko koordinazioa finkatu nahi dugu, batzordeen erabaki ahalmena zehaztu eta helburu estrategikoen arteko lotura sendotu".



Edurne Alberdi.

L.Z.

## MUJIKAHARATEGIA



Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren, 1.  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 64 34

SUKALDEKO ALTZARIAK

MUEBLES  
IGEA

Sukalderako eta  
bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan  
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behe. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

DEKORAZIOA  
ABAD  
PINTURAK  
ANTZUOLA  
PAPER PINTATUA

Jose  
Gomez  
Abad

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

Bentamotz, Untzilla,  
Zalgo eta Arriolan  
egingo dira lanak

Urtea amaitu aurretik  
proiektuak adjudikatuta  
egotea aurreikusten da

Auzo guztiak  
azpiegiturak Ibarra  
konektatzea da asmoa

**ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO**  
Oporren ostean zenbait proiektu  
ipiniko ditu martxan Aramaioko  
Udalak. Horietako asko auzoetako  
azpiegiturak hobetzena bidera-  
tuta daude. Zalgon, Errrotaberrin,  
Arriolan, Untzillan eta Bentamo-  
tzen egingo dituzte lan handienak.

Hirigintza batzordeko ardu-  
radun Martin Arriolabengoa  
azaldu du Bentamotzko lanak  
egingo dituztela lehenengo: "Ben-  
tamotz baserrian azpiegiturak  
hobetzen behar handia daukate.  
Ura, adibidez, ez zaie behar bez-  
ala heltzen". Horrekin batera Arrio-  
lako lanak egingo dituzte. Arriolan  
saneamenduaren, uraren,  
argindarraren eta gasaren azpie-  
giturak sartuko dituzte. Auzoko  
galtzada ere konponduko dute.  
Zalgo, Errrotaberri eta Untzillan  
ere gauza bera egingo dute. Hel-  
burua da azpiegitura guztiak hobe-  
tu eta, etorkizunean, Aramaioko  
auzoetako saneamendu sarea Iba-  
rrara bideratzea.

**AUZOAK > AZPIEGITURAK**

# 1.200.000 euro inbertituko dira azpiegiturak hobetzeko



Urtea amaitu aurretik auzoetako azpiegiturak hobetzena lanak hasiko ditu Udalak. Arriolan, esaterako, lan garrantzitsua egingo dute.

A. BARRUSO

## ARAZTEGIA

Saneamendu sarea Ibarra bide-  
ratu ostean, hurrengo pauso da  
ur horiek araztegi batera erama-

tea. Aramaioko Udalaz azterzen  
ari da Aramaion bertan araztegi  
bat egiteko dauden aukerak. Bes-  
tela, Arrasateko Epeleko arazte-

gira bideratuko lirateke Aramaio-  
ko ur zikinak. Eusko Jaurlaritzak  
dauka uren kudeaketaren esku-  
mena. Martin Arriolabengoa

azaldu du dagoeneko jarri direla  
Jaurlaritzarekin harremanetan  
eta eskaria azterzen ari dela  
Jaurlaritza.

**AUZOLANA > SANTIKURTZ ERMITA**

# Irailean konponduko dute ermita

Irailaren 6an hasiko  
dituzte lanak eta  
herritarren lagunza  
ezinbestekoa izango da

**A.B. > ARAMAIO**

Maiatzaren ziren egitekoak Santikurtz ermita konpontzeko  
lanak. Baino eguraldi txarra egin  
zuen eta lanak atzeratzea erabaki  
zuten. Auzolanean egin nahi  
dituzte konponketak eta irailaren  
6an, zapatua, hasi nahi dituzte  
lanok. Aurreikusten dute hiru bat  
aste bukaera beharko dituztela  
konponketa lanak egiteko. Hori  
horrela, herriar talde batetik eta  
Aramaioko Udalak deialdia egin  
diente aramaioarrei ermitaren  
konpontze lanetan laguntzeko.

08:00etan Añai taberna ondoan  
elkartuko dira Santikurtz  
ermitara igotzeko. Antolatzaleek  
azaldu dute herritarren par-  
te-hartze egun horretan oso  
garrantzitsua dela. Lehenengo  
egunean material guztia igo  
beharko dute, eta horretarako  
traktoreak behar dira. Pagadrai-



Irailaren 6ra arte atzeratu dituzte Santikurtz ermita konpontzeko lanak. GOIENKARIA

no traktoreetan igoko dituzte  
materialak eta tresneria, eta han-  
dik, gero, ermitara eskuz era-  
mango dituzte materialok.

## KONPONKETAK

Teilitua osorik konpondu nahi  
dute eta barruko eta kanpoko

hormak ere bai; margotu ere egin  
nahi dituzte ermitako hormak.  
Horrenbestez, lan ugari egongo  
da egiteko. Garranzitsua da auzo-  
lanean parte hartuko dutenek  
udaletxeen izena ematea, batez  
ere zenbat traktore egongo diren  
jakiteko.

## > JAIAK

### Oletako jaietan, abuztuaren 15ean, Zirika Zirkus taldeak 'Zorionak zuri' antzezlana egingo du

Abuztuan ere ez da festarik faltako Aramaion. Izan ere, abuztuaren 3an eta 4an San Esteban jaiak ospatuko dituzte Uribarri auzoan. Abuztuaren 15ean eta 16an, berriz, Andre Mari jaien txanda etorriko da, eta festa giroan ibiliko dira egun horietan Barajuen eta Oleta auzoetan. Oletako jaietan, gainera, aurten ere antzezlan berezia izango dute. Urtero-urtero Araian egiten den Umerezko Antzerki Jaialdian parte hartutako talde batetik antzezlan egiten du Oletan. Aurten, Zirika Zirkus taldea etorriko da eta umeei zuzendutako *Zorionak zuri* antzezlanan eskainiko dute. Bertan, urtebetetze bat antolatu eta ospatzeko asmoarekin azaltzen dira agertokian Loretu eta Bolintxe, baina aratzoxoak ere topatuko dituzte. Eskujokoak, akrobaziak, dantzak, magia eta oreka jokoak izango dira bertan, besteak beste, haurrek ondo pasatzeko.

## > UDALA

### 'Aramaioko Energiaren Kudeaketa' proiektuaren lehenengo faseko emaitzak jaso ditu Udalak

Udalak Aramaioko Energiaren Kudeaketa (AREKA) proiektuan  
dihardu lanean azken hilabeteotan. Proiektuaren helburua da  
aztertzea Aramaiok ze aukera dituen energiaren kontsumoa murrizteko  
eta energia berriztagarriak erabiltzeko. Helburua da energiaren  
ikuspuntutik independenteak izatera iristea. Horretarako, Egimen  
eta Solagro elkarretek azken hilabeteotan zenbait azterketa egin  
dituzte herrian, baliabide desberdinak erabilera energia garbia sor-  
tzeko dauden aukerak ikusteko. Horixe litzateke proiektuaren lehen-  
engo fasea, eta Solagro eta Egimen elkarretek pasa zen astean aur-  
keztu zizkioten Udalari egindako lanetik jasotako ondorio nagusiak.  
Aramaioko Udalak, orain, aztertu egingo ditu bi elkarreko horiek  
egindako proposamenak eta hurrengo pausoa izango da proposa-  
men horietako batzuk abian ipintzea.



Goierriz auzotik pasatzen den trenbide zaharra auzoko bide bihurtuta dago.

MIRARI ALTUBE

AZPIEGITURAK > BIDEGORRIA

## Bidegorriaren gaineko kezkak Aldundira doaz

Proiektuari begira egon da azken hilabetean Udala, eta ez du gustuko; beste aukera batzuk aztertzeko eskatuko dio Aldundiari

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA  
Kezkatuta dago Udala bidegorriaren proiektuarekin, eta azken hilabetean behin eta berriz aztertu ditu planoak eta proiektua bera. Aldundiak egindako ibilbidea ez du gustuko hainbat arrazoiengatik, eta beste auke-

ra batzuk aztertu eta proposatuko ditu Udalak. Abuztuko oorrak hartu baino lehen bidali gura dizkiete proposamenok Jaurlaritzako ordezkariei. Izan ere, Eskoriatzakoa egiten hasita daude, eta hurrenhoa Gatzagakoa izango da.

### TRENBIDEA APPROBETXATZEN

Proiektuaren arabera, sasoi bateko trenbidea aprobetxatuta egingo dute bidegorria Gatzagako lurretan. Baino Udalak dio basearietara doan bide bihurtuta dagoela toki batzuetan trenbidea, Goierri auzoan, esaterako. Hortaz, zer gertatuko litzateke bide horiek? galdetzen du Udalak. Bestalde, egindako proiektuan ez dute aurreikusi ibilbidea Gatzaga herritik pasatzea. Horregatik, Eusebio Villar alkateak

behin eta berriro esan du Leintz bailarakoendako bai, baina gatzgarrendako ez dela izango bidegorri hori, automobila hartu beharko dutelako Gatzagainera joan eta bizikletan ibiltzeko. Horren aurrean, planoei begira egon dira azken asteotan, eta besete bi aukera aztertzen dabiltza.

Badakite aldapa handiak dau dela Gatzagako lurretan, eta horrek zaidu egiten du konponbidea. Gainera, biderik ez dagoen lekuetan errepidera irten beharko lukete txirrindulariek, eta hori ere ez da aukerarik ego-kiena. "Gatzagako arazoen berri emateko asmoa daukagu, beste aukera batzuk azter ditzaten proiektua egin dutenek. Baino edozein erabaki hartu aurretik, baserritarrekin berba egin beharko genukeela uste dut", esan digu alkateak. Goierri auzoko baserriar batzuen iritziak jasotzen ibi-

li da Villar –nahiz eta era ofizialean ez izan– eta esan diote ez dutela gustuko, txirrindulari gutxi batzuk pasatzeko, lurrik kendu behar izatea eurei.

### TURISMORAKO, AUKERA POLITA

Kaltekin batera, badakite onurak ekar ditzakeela bidegorriak: "Turismoari begira, aukera polita izan daiteke, jende gehiago etorriko litzatekeelako", dio Villarrek. Hala ere, ez daude seguru zenbateko onura izango litzatekeen, Gatzagain ingurua jendetza kopuru handiak hartzeko ez dagoela gertatuta uste dute eta: "Komunak beharko lirateke, eta aparkalekuak ere bai; baita garbitasun lanak egiteko jendea ere".

Behin Foru Aldundiari kezkak agertuta, erantzunaren zain geratuko dira Gatzagan. Baino udazkena baino lehen ailegatzea zaila izango dela uste da.

JAIAK > ANDRAMAIXAK

## Irailaren 5etik 8ra izango dira Andramaixa jaiak, eta egitaraua gertatuta daukate

**M.A. > LEINTZ GATZAGA**  
Jai batzordea osatu du Kultura sailak hainbat herritarrekin batera, eta irailaren 5etik 8ra ospatuko dituzten Andramaixa jaietako egitaraua gertu daukate. Berrikuntza handirik ez dago, baina herritar guztien gustuko jaiak gertatzen saiatu direla esan digu Ainara Zubillaga zinegotziak.

Rock kontzertua, gaztelu puzgarriak, zezentxoak, meza nagusia, mendi bizikleta zeharkaldia,

pilota partiduak eta herri afaria izango dira, beste ekitaldi batzuen artean. Urteetako tradizioari jarraituta, otxandiarrei ongi toreria egingo diete irailaren 8an, Dorletako Amaren egunean. Ohiko ekitaldien barruan, ostera, berrikuntza batzuk izango dira: herri kirolen erakustaldia irailaren 5ean, gaztelu puzgarriekin batera quads txikiak ekanneko dituzte gaztetxoak ibil dai-tezen, eta irailaren 6ko herri af-

ria girotzeko Tapia eta Leturia trikitilariek etorriko dira. Pilota partiduei dagokienean, lehenengo herriko pilotari gazteen txanda izango da aurten, eta ondo-ren, profesionalena.

### TXOSNAN EGOTEKO, INOR EZ

San Migel plazan jartzen duten txosnan lan egiteko deialdia egin zuen Udalak ekainean, baina inork ez du interesik azaldu. Azken urteotan jarri ohi dute

txosna, baina aurten ez dakite zer egingo duten: "Badakit lan egiteko jendea gertu egongo dela, baina antolaketa lanetan ez dute parte hartu gura. Txosnak girotu egiten du plaza eta pena litzateke ez egotea", azaldu digu Zubillagak. Iaz, herriko gazteek antolatu zuten, eta irabazitako dirua aurtengo jaiak hobetzeko izan da. Hala, irailaren 5ean, egingo duten rock kontzerturako talde gehiago ekarri dituzte.

### > MUSEOA

#### Labidea denda eta gatz museoa zabalik egongo dira abuztuan

Turismo bulego lanak egiten dituen Labidea dendak ez du oporrik hartuko, eta goizez eta arratsaldez egongo da zabalik abuztu osoan. Hona abuztuan izango duen ordu-tegia: astegunetan, 09:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 21:00etara, eta zapatu eta domeketan, 10:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 22:00etara.

Gatz museoa ere zabalik egongo da, eta gidatutako bisitak honako orduetan egingo dituzte: 11:00etan, 12:00etan eta 13:00etan.

## &gt; ESKUBALOIA

**Edu Orgaz izango da Arrasateko taldeko entrenatzailea**

Edu Orgaz bergararrak har- tu du datorren denboraldian Arrasate Eskubaloiko talde nagusia zuzentzeko ardura, Euskadiko Txapelketan. Hala, orain arte talde horre- kin lanean ibili diren Beñar- do Balerdik eta Fertxu Rodri- guezek atsedenaldia hartuko dute, urtebetet, behintzat.

Orgaz Josexo Muniate- giren laguntzaile moduan ibili da aurten Bergaran, eta azken jardunaldietan taldea- ren ardura osoa hartu zuen.

## &gt; ERRUGBIA

**Arrasateko taldeak kirol proiektu berria aurkezu du**

Arrasateko Errugbi Taldeak lehendakari berria du, Ramon Urrutia, eta dagoene- ko zuzendaritza taldeak zehaztu ditu datozen denbo- raldiatarako helburuak. Epe motzera ahalik eta jokalari gehienek kirol horrekin goza- tzea da helburua, eta epe ertai- nean, haur gehiago erakar- tzea, gurasoek kirol hori ain- tza hartzea eta herrian zaletasun handiagoa susta- tzea izango dira.

## &gt; ATLETISMOA

**Maria Jose Gil beteranoen Europako Txapelketan**

Atseden hartzeko baino, Maria Jose Gilek lehiarako aprobatxatuko du abuztuko oporraldia. Arrasateko Ljub- janan (Eslovenia) izango da, beteranoen Europako Txap- pelketan.

Euskal Herritik joango den espedizioko kideetako bat izango da Gil, eta txapel- ketetatik kanpo izan duen lesio bat gaindituta, Arrasa- teko atletak 800 eta 1.500 metroko probetan hartuko du esku.

## &gt; BATZARRA

**Eskoriatzak 68.500 euroko aurrekontua izango du**

Eskoriatza Kirol Elkartea egindako batzar orokorrean 68.500 euroko aurrekontua onartu zuten. Horrekin bate- ra, areto futboleko talde nagusiak Euskal Ligatik jai- tsi izana aipatu zuten, eta baita emakumezkoen saski- baloi taldeak igoera ez lor- tzea ere, nahiz eta Lauko Finala jokatu.

Horrekin batera, urtean zehar antolatutako ekimenen errepasoak egin zuten; hor, lan handia egin du klubak.



Idiazabal markako gaztak egiten dituzte baserrian, Oletan.

XABIER URTZELAI

**Maider Unda > Olinpiar Jokoetan izango da, borroka librea**

# "Domina batekin egiten dut amets; ahal bada, urre kolorekoa"

XABIER URTZELAI &gt; OLETA

Abuztuaren 17an izango du Maider Undak (1976) bere kirol ibilbideko hitzordu nagusiena: Olinpiar Joko- etan egingo du debutua. Urteak dar- matza horretarako entrenatzen, eta bidean hainbat marka eginditu: 2001ean brontzezko domina iraba- zizuen Mediterraneo Jokoetan, eta iaz jokatutako mundialean bosgar- ren izan zen. Txinan dagoen bitar- tean Undak ez du gaztarik egingo, ezta baseria gobernatuko ere.

**Ze helbururekin zoaz Pekine- ra?**

Domina batekin itzultzea da nire ametsa.

**Eta ze kolore du domina horrek?**

Urre kolorea, ahal bada.

**Ze gorputzalditan zaude Olin- piar Jokoetara begira?**

Nik uste dut momentu onean nagoela. Aurten ez dut lesiorik izan, urte osoan zehar onto entre- natu dut, eta Olinpiar Joko batzuk aurrean izanda, gogotsu nago.

**Azal iezaguzu zelakoak izaten diren zuen txapelketak.**

Borroka eguna baino egun bat lehenago egiten ditugu pisaka- tak (abuztuak 16), eta egun

horretan egiten dituzte kontra- rrioak erabakitzeko zozketak. Zoz- ketan zorte apur bat izatea oso garrantzitsua izango da, urduri- tasunak tarteko, lehenengo borroka zaila izaten delako. Ea hasieran kontrario gogorrenak ez zaizkidan tokatzen.

Gero, egun bakarrean egiten dugu txapelketa osoa. Borroka irabaziz gero, aurrera; bestela, kalera.

**Eta ze iraupen dute borroka horiek?**

Bi minutuko hiru tarte egiten ditugu borroka bakoitzean, eta aurrera egiteko tarte horietako bi irabazi behar dira. Bestela, kontrarioari *tocado*-bi sorbaldek zorua ukizten dutenean– bat egi- nez gero, aurrera.

**"31 urte ditut eta hori da borroka librerako adin egokiena, esperientziak asko balio duelako"**

**"Goi mailara iristerakoan bizi daiteke borroka libretik, baina ordura arte..."**

**Apirilean, Europako Txapelke- tatkiz zapore gaziarekin itzuli zinen, 12. sailkatuta. Horrek motibatzeko balio izan ditzu?**

Ez dut uste horregatik gogo- rrako entrenatu dudanik, baina bai gogoz. Txapelketa txarra egin nuen, Suediako borrokalarik ondo hartu dit neurria, eta haren kontra ez naiz ondo moldatzen.

**Orain dela lau urte kanpoan geratu zinen. Zelan programatzen dituzue zeuen helburuak? Lau urtetik lau urteratik?**

Akaso, federazioko ardura- dunek eta teknikoek bai antolatzeko dituzte gauzak horrelako kirol hitzordu nagusietara begira, baina kirolari batek pauso- pauso egiten du lan, egunerokoa. Urte horretako Mundialera sailkatzea izaten dugu helburu, eta hurrengo urtea gustura has- tea.

**Borroka librea ez da kirol mediatriko. Ze baldintza bete behar dira bertatik bizitzeko?**

Goi mailara iristerakoan posibi- da da borroka libretik bizitza, batez ere Olinpiar Jokoetarako sailkatuz gero, beka bereziak daudelako. Txarrena da, kirol horretan ez dagoela erdibiderik, emaitzak lortzen hasi arte ez dagoelako dirurik.

**Atleta olinpiko gutxi izango dira, zu moduan, kirola lana- rekin partekatzen dutenak.**

Pentsatzen dut baietz. Eta neuk ere baserrian lan egiten dudalako egin ditzaket bi gauzak, lantegian lan egitea ezinezkoa izango litzatekeelako.

**Baserriko lanak balio du entre- namendu modura?**

Ez dut uste [barre]. Baserrian Idiazabalgo gazta egiten dugu. Horretarako, belarra moztu, ardiak gobernatu... baina ez dut uste lan horiek entrenamendu- rako balio dutenik. Beno, base- rriko lanek diziplina mantentzen laguntzen didate.

**Lan egin eta entrenatzeko, zelan antolatzen duzu eguna?**

Goizean goiz jaikitzent naiz, eta baserriko ganbaran dauka- dan gimnasioan pisuak egiten ditut. Ondoren, gosaldu eta base- rriko lanak egiten ditut, eta korri- ka egiteko ere aprobatxatzen dut goiza. Arratsaldean, berriz, aste- an hirutan Gasteizera joaten naiz tapizean taldekideekin batera entrenatzera.

**Txinatik bueltan, oporrak har- tzeko asmoarekin?**

Bai, borroka librea oporral- dia hartuko dut, bi hilabete bai, behintzat. Baino, baserriko lane- tan ez dut oporrik izango, izan ere, gurasoek merezi dituzte opor horiek.

**Etxean deseatzen daude borro- ka librea alde batera utzi eta baserrian geratzeko, ala?**

Bai, askotan esaten didate hori. Eta normala ere bada, urte- an zehar hainbat bidaia egin behar izaten ditudalako kanpora, eta baserrian lana dagoelako. Hamabost egun etxetik kanpora egitea gogorra izaten da.

**Eta, zenbat irauten du zuen kirol bizitzak?**

Normalean gorputzak esaten du hori. Badago jendea 40 urte- rekin lehian dabilena; kirol horretan noraino iristea gura- duzun da egin beharreko galde- ra. Nik beste Olinpiar Joko batzuetara joan gurako nuke

**Zein da borroka librea egite- ko adin aproposena?**


Orain daukadana, 31 urte. Borroka librea esperientzia oso garrantzitsua da, eta horregatik uste dut adin onean nagoela. Baino ez borroka librea egiteko baka- rrik, bizitzan edozer gauza egiteko adin ona da hau.

**Lesioek ere zeresana izango dute horretan. Eta lehenago ondo sufritu izan duzu zuk.**

Bai, azkenaldian oso ondo nabil lesioekin, baina bai, izan ditut urte gogorrak. Jendea sor- baldako arazoekin ibiltzen da, baina nik inoiz ez dut horrelako arazorik izaten. Nik belauneta- titik sufritu izan dut gehiago, bie- tan egin dizkidate ebakuntzak.

**2001ean susto galanta hartu zenuen, Polonian.**

Lotsagarria da han lehiatzen garenean bertako epaileek zela-



Undak otsailean irabazi zuen Espainiako Txapelketa; irudian, borroka irabazten duen unean.

AITOR REMENTERIA. (WWW.MAIDERUNDA.COM)

ko lana egiten duten. Bai, susto galanta hartu nuen. Poloniako borrokalarri batek burukada eman zidan, nahita, eta masailezurra hautsi zidan. Hasieran pentsatu nuen sudurra hautsi zidala, baina ondoren botaka hasi nintzen, erabat zorabiatuta, eta konbultsioka hasi nintzenean ingurukoak beldurtu egin ziren. Burezurra hautsita izan nezakeela pentsatu zuten, eta berehalako hasi ziren bueltan etortzeko hegazkina prestatzen. Oso oroitza txarria daukat, pentsa, han hiltzerik gura ez nuela zen buruan neukana.

#### Kirol horrekin jarraitzeko susto horrek ez zuen lagunduko.

Pentsa etxean ze giro nuen. Inoiz ez dira kirol horren alde egon, eta masailezurra hautsitsa itzuli nintzenean... Diotenez, borroka librea egiteko burugogoa.

#### "Polonian masailezurra hautsi zidatenean, han ez nuela gura hil neukan buruan, pentsa..."

#### "Neure lekua baserrian dago, artzaina naiz, eta horretan ibiltzen naiz gustura"

rra izaten behar da norbera, eta hori da neure kasua.

#### Eta borroka librea amaitzen denean, zer? Izan ere, elektronika ikasi zenuen zuk.

[Barre] Bai, baina oso argi daukat nire lekua baserrian dagoela. Ni artzaina naiz, eta neure etorkizuna horretan ikusten dut, horretan ibiltzen naiz gustura.

#### Kirol emaitzek ala gazta salmentek arduratzentz zaituzte gehiago?

Arduratu gazta salmentek arduratzentz naute gehiago, etorkizunean neure ogibidea horretan ikusten dudalako. Baina noski, kirol emaitzak ere hor daude, neurri batean horiek ere baldintza dezakelako neure etorkizuna.

#### Horrelako hitzorduetan kirolariek promesak egiten dituzte, urea lortuz gero zerbaite egiteko asmorik? [ilea mozteko keinua egin diogu].

Ezta pentsatu ere ez! [barre] 20 urte niituenean lagunak nire ilearekin jolasean ibiltzen ziren, eta gogaituta, motz-motz moztu nuen; ez daukat berriro horrelakoik egiteko asmorik. Hori bai, etxeako hobeto bizi daitezen ahaleginduko naiz.

#### MOTZEAN

#### "Kontrarioendako aurkari deserosoa naiz; asko heltzen dut, eta indarrez"

#### Zure kirolean erreferente izan duzun kirolari bat?

Borroka librean ez dut idolorik.

#### Gustuko janari bat?

Asko daude, baina txokolatearekin eta gatzarekin...

#### Gazta egilea izanda, ez zara gaztarekin nekatzen?

Ez, gazta egiten nabilela, tarterka, zatitxo bat hartzen dut probatzeko, eta ez naiz nekatzen.

#### Borroka bateko une gogorrena?

Tocado bat egiten dizutenean. Horrek esan gura du borroka galdu duzula, eta hori da une gogorrena.

#### Borroka librean zein da zure bertute onena?

Daukadan indarra. Borrokan zehar kontrarioari asko heltzen diot, indarra daukat eta min egiten dut hor. Kontrarioendako aurkari deserosoa naiz.

#### Beste kirol bat?

Mendiko bizikleta.

#### Zerk haserretzen du Maider?

Hipokrisiak.

#### Gaztetan, gutxikegingo zizuten koperatik tira.

Beno... bai, egia da jenio txarra daukadala, eta horren fama neukan.

#### Orain arteko kirol lorpenetako bat aukeratu.

Iaz Bakun (Azerbaijan) egin nuen Munduko Txapelketa. Olinpiar Joko- etarako sailkatu nintzen han.



"Traktorea zahartuta dago, aldatu egin beharko dugu", dio Undak. Belarra mozten dute horrekin.

XABIER URTZELAI



#### Tourra kanpotik

Markel Irizar > Ziklista

2008ko Tourrari buruzko azken zutabe hau idazten nabilen bitartean, esplikatzeko samurra ez dan sentimendu nahasi batean murgildurik nago. Txirrindularitzaz munduan azken urtea arazo gabeko izango zela espero nuen eta berriz ere, horrenbeste maite dudan kirola gorantz zihuala uste nuenean, azken boladako gertaerek izugarrizko pena eta kezka ekarri ditzkidate. Ez da samurra gertatutako azaltzea, ezta kirol hau garbi dagoela aldarrikatzea, baina berriz ere txirrindularizaleei, kirol honetan sinistu eta garai baten izan zuen mirespena berreskuratzen saitzeko eskatuko nieke.

Badakit txirrindulariekiko sinesgarritasuna kolakan dagoela, baina duela hilabete batzuk egindako elkarritzeta batean esandakoa beretsi nahi nuke: gaur egun txirrindularitzaz berri baten aurrean gaudela eta doping kasuak eta antzekoak atzean utzi ditugula dagoeneko; gertaera puntual batzuek kirol eder honen irudia ilundi eta zapuzten duten arren.

Eta txirrindularitzaren alde onari begiratuz, izugarrizko Tour politikusten ari gara. Faborito nagusia telebistaz Tourra jarraitzen dabilenez ez dago lasterketak behar duen lider sendorik, eta egunetik egunera ezusteko beterik datorkigu. Dena erabakitzeko dagoen arren, nire porratxoan botako dut (orain arte egindakoetan ez dut batera asmatu). Nere podiuma: Evans, Mentxov eta Frank Schleck. Hala ere, bukaerara arte edozer gerta daiteke.

Bukatzeko, mila esker GOIENKARIKO irakurle guztiei, baita errepide bazter nahiz telebistaren beste aldean egon den jende guztiari ere. Zaleok egiten duzue kirol hau handi.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

# hemen □ bada giro!

**MRLUTZ**  
TABERNA  
*Gustuko musika*  
Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

**Ezkutu**  
TABERNA  
*Zatoz gure musikaz gozatzera*  
Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01

**VALDEZATE**  
Bokatak eta plater konbinatuak  
Araba ibilbidea 5, behe - Tel: 943 25 07 40

**IOSU**  
taberna  
harategia  
Urdaitegia-gozotegia  
Kroasantegia  
Gertatutako janariak  
Mitarte 1  
Tel.: 943 77 03 08

**Dorleta**  
DORLETA  
*Loteria primitiboak  
eta kinielak*  
DORLETA TABERNA  
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA

**OTZETA JATETXEA**  
Aramburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

**BASABE**  
Menuak eta afariak  
Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 07 94

**Gurea**  
TABERNA  
Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

**HIRUSTA JATETXEA**  
Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57

**Matikua jatetxea**  
Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

**hemen □ bada  
giro!**



#### > GANBARA

Torreviejako habanera lehiaketan, Oñatiko abesbatza > 37

#### > EUSKAL ENCOUNTER

5.700 lagun inguru espero dira BECen asteberuan > 43

> ANA BALENZIAGA  
Ana Balentziagak igeriketa du pasio. Datorren urtera begira, aldaketak datoz bere bizitzan: beste igeriketa talde batera doa eta Erizaintza ikasiko du Donostian > 42



# Haragia eta sagardoa, errima eta trikiti doinuen artean, etzi Oñatin

Oñatiko Bertso Eskolaren mende laurdena ospatzeko ekitaldien artean kokatzen da Bertso-giokela festa; jaialdi berezi horren helburua bertso eskolarentzat dirua lortzea da

#### JOKIN BEREZIARTUA > OÑATI

Oñatiko Bertso Eskolaren 25. urteurrenaren ospakizunen barruan, ekitaldi berezia antolatu dute zapaturako. Bertsoa eta trikitia batetik, eta txahal saihestiak eta sagardoa bestetik, biek bat egingo dute etzi herriko plazan, arratsaldeko sei etatik bederatzieta. 100 kilo saihesti inguru erreko dira, eta hurbiltzen den edonork dastatu ahalko du Odriozola harakinaren haragi goxoa. Saihesti bakoitzak euro bat balioko du eta saihesti plater bakoitzak, ordea, lau euro. Kalitatezko haragia prezio merkean, beraz.

Bestalde, haragia ezin hobeto lagunduko duen sagardoa dastatzeko aukera ere izango da. Antolatzaileek upel bat jarriko dute plazan eta bertan sagardo basoak jarriko dituzte salgai, euro eta erdiren truke. Hori ordainduta, nahi den beste sagardo edan ahalko da. Sagardoaz gain, adin eta gustu guztiak asetzeko helburuarekin, urteko ardo beltza eta zuria, freskagarriak eta ura ere salduko dute Oñatiko Bertso Eskolakoek.

Ekitaldiaren helburu nagusia da, Iñaki Olalde ekitaldiaren antolatzaileak adierazi duenez, "25. urtemuga ospatzeko antolatu diren ekitaldi ezberdinak ordaintzeko dirua ateratzea".

#### UDAKO BESTE KULTURA EKITALDIKI

## Musika, itsaspeko zinema, II. surf festa eta akrobata txinatarrak

Bertso-giokela festaz gain, Oñatin beste hainbat kultura ekitaldi izango dira irail bukaera arte. Hauek dira aipamena merezi duten ekitaldiak: itsaspeko zinema zikloa, II. surf festa, Candelariaren kontzertua eta arte akrobatiko txinatarra.

Itsaspeko zinema zikloa gaur bertan hasiko da. Genero ezezagun bezain interesgarri hori lantzen duten kalitate handiko dokumentalak -Donostiako Nazioarteko Itsaspeko Zinema Jaialdiak gomendatuta- proiektatuko dira gazteleku topalekuaren. Filmak uztailaren 24, 25 eta 27an eta abuztuaren 27, 28 eta 29an ikusi ahalko dira, 18:30ean.

Urari lotuta jarraituz, II. surf festa ere badator. Iaz bezala, kontzertu *freskagarria* eta sardina goxoak izango dira San Anton plazan. Abuztuaren 29an ospatuko da aurten, 18:00etan. Bestalde, kontzertu aipagarria dago datorren eguztenean. 1970eko hamarkadako doinuak ekarriko ditu Candelaria talde madrildarrak.

Azkenik, ezohiko eskaintza batekin itxiko dira Oñatiko udako kultura ekitaldiak: Sanxia Troupe izeneko taldearen arte akrobatiko txinatarra. Foruen plazan egingo dute emanaldia, abuztuaren 31n, 20:00etan.

**ZAPIAIN**

**BERTSO-GIOKELA FESTA**

**25wct**

**Uztailak 26, larunbata**

**Arratsaldeko Getatik 9ak alderarte**

**Oñatiko bertsoak**

**Oñatiko harakinaren 100 kilo txahal saieskia + Sagardo kupela**

**Freskagarriak**

**Urteko ardo beltza**

**Urteko ardo gorria**

**Ura**

**arratsaldean zehar**

**BERTSOLARIAK eta TRIKITILARIAK**

**PERTSO FANZINEaren 2. alea!!**



Kanoi eta eskopeten hotsa ez zen falta izan zapatuko alardean. JOSETXO ARANTZABAL



Salvador Peñak merexitako omenaldia jaso zuen. Aurtengo mairu jantzi den 39. urtea izan da; azkena. JOSETXO ARANTZABAL

JAIAK &gt; ANTZUOLAKO JAIEN BALORAZIOA

# Jai parte-hartzaileak Salvador Peña mairuaren agurreko urtean

Ekitaldi berrieik oso harrera ona izan dute eta herritarrek parte hartu dute ekintzetan

Alardea azken urteetako hunkigarriena izan da; omenaldi beroa eskaini zioten mairuari

**J. ZABALA / I. AGIRREAZALEGI > ANTZUOLA**  
Joan zen aste bukaeran ospatu zituzten jaiak Antzuolan eta antolatzaileak pozik daude jendearekin parte-hartzearekin.

Kultura zinegotzi Patxi Olabarriak oso balorazio positiboa egin du jaien gainean, betiere azpimarratuta Jai batzordean landuko dutela gaia. "Jendeak jaietan parte hartu du eta antolatu diren ekintza berrieik sekulako erantzuna izan dute. Egubakoitz eguerdiko giroa bikaina izan zen frontoi inguruaren marmitako lehiaketan eta dastatzean. Domeka arratsaldeko sardina janean ere jendearen erantzuna bikaina izan zen, baita larrain-dantzan ere. Ohitura berria den arren, urtean-urtean jende gehiago animatzen da".

Holtza plaza erdian ipintzea ere oso positiboa izan da, haren esanetan: "Dantzarako elkargunea izan da plaza. Dantza zaleek asko eskertu dute eta bestetan baino jende gehiago ibili da".

Mairuaren Alardean izan zen jende pila ere azpimarratu du Kultura zinegotziak: "Aspaldiko urteetan ez zen horrenbeste jende ikusten plazan. Gainera, eguraldi bikaina egin zuen, eta jendea horrelakoetan hondartzara joaten da. Aztertu beharko da, baina hainbat faktore egon daitezke: ordu erdi atzeratzea; mairuaren azken urtea izatea eta jendeak

omendu nahi izatea; eta aurreko egunean ETB2ko *Pasalo* saioan alardearen gaineko erreportajea emateak izan dezakete eragina".

Eguenean, umeak eguerdian sartu ziren jai giroan, bazkaria eta karaokea antolatuta baitzuten eurendako. Gainontzeko herritarrak ohiko moduan udal-batzako kideak dantzan ikusi ostein murgildu ziren jaietan. Gauari hontzak egin zion ongi torria, orain dela bi urte berreskuratutako ekimenaren bidez. Hontza kanpandorretik jaistean, herritarrak zituen zain, bereziki DYAKo boluntarioak, hontza ez ezik herritarren esker ona ere pozik jaso zutenak. Plazan dantzarako aukerarik ez zen falta izan, eta batzuk animatu ziren.

Egubakoitzean, lapiko artean hasi zuten jaia antzuolarrek. Aurtengo berrikuntza marmitako lehiaketa izan da, eta zapzi taldek jardun zutenegaluzea zeinez hobeto prestatu lehian. Epaimahaikoen esanetan, goxoena erretilratuen taldearena izan zen, Florentino Lamarianok eta Isidro Quintanak gertatutakoa.

Arratsaldean, batzuk pilotaren partiduetan ziren bitartean, gizon-erruberaren ikuskizunarekin gozatu zuten beste batzuek. Gauean ez zen jende askorik ibili, baina jaizaleenek ondo pasa zuten dantzan zein kontzertuetan.

## ALARDEA ETA MAIRUARI OMENALDIA

Zapatuan Bergarako Udal Musika Bandaren doinuek esnatu zuten bat baino gehiago, baina, dudarik gabe, eguneko hitzordua Mairuaren Alardea izan zen. Ikuskizuna ohikoa izan arren, amaiera bereziak hainbat ikusle hunkitu zituen. Plaza jendez gainezka zela, azken 39 urteetan mairuaren papera egin duen Salvador Peñari omenaldia egin zioten, utzi egingo baitu. Joseba Iparragirre jeneralak esker ona adierazi zion herritaren izenean eta alkateak oroigarria eman zion. Alardearen ostean, Oinarin danzta taldekoen saioa izan zen.

Gauean, Zurrago plazan, 200 lagunetik gora izan zen afaritan. Txosnetako kide Urko Altzerreka esan digunez, "espero baino jende gehiago etorri zen afaritara eta barkamena eskatu behar dugu jendea aulkia eta mahairik gabe geratu zelako eta batzuk beranduago afaldu zutelako".

Kioskoko kontzertua entzutea ere jende gazte asko gerturatu zela esan digute txosnetakoek: "Iaz baino jende gutxiago ibili da, batik bat egubakoitzean, baina jendea ibili da". Plazan, berrib, nagusiagoak doinu latindarren erritmora ibili ziren dantzan.

Domekan, euriak egin zien ongietorria bertsolariei eta jendeak udaletxeko eta elizako arkupeetatik entzun zituen Amaia Agirre eta Jokin Sorozabalen bertsoak, salda hartzten zuten bitartean. Jaietarako oraindik indarra zutenek sardinak Janez, larrain-dantza eginez eta Joselu Anaiak jo zuten musikarekin agurtu zituzten jaiak datorren urterra arte.



Afari arrakastatsua izan zen zapatuko; 200 pertsonatik gora. JOSETXO ARANTZABAL



Zapatuan jo zuen taldeetako bat izan zen Never Surrender. JOSETXO ARANTZABAL

PINTURA > AKUARELA ERAKUSKETA BERGARAN

# Abuztuan 33 euskal akuarelista onenen lanak izango dira ikusgai Aroztegin

Hilaren 1ean hasi eta 24an amaituko da erakusketa. Lehiaketa ezberdinaren sarituak izan diren lanak ikusi ahalko dira; goi mailako margoak, beraz

**JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA**  
Goi mailako akuarela lanen era-kusketa izango da abuztuan Aroztegi aretoan. Izan ere, Euskal Herriko margolari onenenetari-koen lanak –gehienak lehiaketa ezberdinaren sarituak izan direnak– ipiniko dituzte ikusgai.

Ekimena Euskal Akuarelisten Elkarteak antolatu du, eta herrian geratzen diren bergarrei aukera ezin hobea eskainiko die arte erakusketa paregabe batez gozatzeko. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako 33 akuarelistak hartuko dute parte erakusketan. Ia abuztu osoan egongo da zabalik, hilaren 1etik 24ra, hain zuzen.



Euskal akuarelari onenen lanak ekarriko dituzte, tartean, irudian ikus daitekeen Naty Alonsoren akurela. JUAN MANUEL EGURROLA

## EZ AKUARELAK BAKARRIK

Erakusketan ez dira akuarela bakarrik erakutsiko. Euskal Akuarelisten Elkarteak antola-

tzen dituen erakusketa eta beste-lako ekimenetan, hartzalearen-gan eragitea bilatzen du. Izan ere, elkartearren helburu nagusia

akuarelisten teknika ezagutzen ematea eta erakusketak antolatzea da. Horretarako, koadroez gain, bideo emanaldi batekin osa-

tuko dute erakusketa. Bideoaren helburua ere elkarreta ezagutaraztea da, eta akuarelisten elkarreko ondarea osatzen duten lanak eta ikastaroen berri emango dute proiekzioaren bitartez. Horretaz gain, bitrina baten akuarelisten gaineko material eta testuak jarriko dituzte, betiere ezezaguna izan dakiekeen bisitariei diziplina horri hurbiltzeko asmoz.

## AMASORRAINEN LANAK

Akuarela erakusketa amaitu, eta Txomin Amasorrain zenaren era-kusketa jarriko dute Aroztegi aretoan. Abuztuaren 29tik irailaren 18ra bitartean egongo dira Amasorrainen lanak erakusgai; obra grafikoak, idazkiak, grabazioak eta beste hainbat gauza.

Aruten 100 urte beteko dira Amasorrain jaio zela, Arrasaten; hori dela-eta, erakusketa zabaltzea erabaki dute. Euskaltzale amorratua zen, eta *Zeruko Argia*n ere idatzi zuen. Gainera, era-kusketan salgai egongo da familiak aitaren omenez egindako liburua. Erakusketaren helburua Amasorrain zein zen eta zer egin zuen azaltzea izango da.

OSPAKIZUNAK > JORGE OTEIZARI OMENALDIA ARANTZAZUN

# Arantzazun amaituko da Oteiza omentzeko ospakizun handia

Abuztuaren 27an izango da, eta Donostiako Hamabostaldiaren barruan antolatu dute. Dantza, musika eta bertsoa izango dira protagonista

## J.B. > OÑATI

Jorge Oteiza euskal artista entzutetsuenetarikoa jaio zela 100 urte bete dira aurten. Data berezi hori dela-eta, Donostiako Hamabostaldiak eskultore eta arte teorilariari omenaldia egingo dio. Omenaldi sorta ibiltaria izango da, Donostian hasi eta Arantzazun amaituko dena. Tartean, Altzuzan-haren omenezko museoa dagoen Nafarroako herrixka- eta Azkoitian ere egingo dizkiote omenaldiak.

Hortaz, Arantzazuko ekitaldia izango da omenaldi sorta horiek itxiko dituena. Egun berezia izango da, bi ekitaldi handi-ten banatuko dena: batetik, Juan



Jorge Oteizari omenaldi berezia egingo diote Arantzazun.

GOIENKARIA

Antonio Urbeltz koreografoak propio asmatu duen *Apostoluen dantza* ikuskizuna eskainiko du.

**BARBARA HENDRICKS-EN AHOTSA**  
Goi mailako dantza emanaldiez gain –tartean, Oñatioko Oñatz dantza taldeak hartuko du

parte-, Barbara Hendricks soprano estabatuarra kontzertua eskainiko du basilika barruan. Goi mailako ahotsa du Hendricksek, eta, besteak beste, Mahler eta Richard Strauss-en piezak interpretatuko ditu.

ABESBATZA > 54. HABANERA ETA POLIFONIA LEHIAKETA

# Gauzak ondo egin eta saria lortu gura du Ganbarak

Esteban Urtzelairen zuzendaritzapean abestuko dute bihar, Torreviejan

izango da. Azkenaldian gorabehera batzuk izan ditugu; horregatik, gauzak ondo egiteko gauza garela erakutsi gura dugu. Hori izango da garrantzitsuena", azpimarratu du Arregik.

## 'EL DIQUE DE LEVANTE'

Biharko emanaldia Francisco Grauren *El dique de Levante* lanarekin hasiko dute. Gainera, lan hori abesbatza guztiak derrigorrez abestu beharko dute, antolatzale taldeak hala erabakita. Matias Anton Mena eta Javier Bustoren *A tu lado* lanarekin jarraituko dute oñatiarrek, eta habaneren tarte amaitzeke Ricardo Lafuenten *Torrevieja* lana eskainiko dute.

Polifonia pieza batekin jarraituko dute Ganbara abesbatzakoek; hain zuzen, Claudio Monteverdi italiarraren *Ecco Mormorar Londe*. Emanaldia amaitzeke David Azurzaren *Oihan hau* abestuko dute. "Negutik udaberriroko pasoa islatzen du obrak", azaldu du Arregik.

Ohiko jantziak alde batera utzi eta Torreviejako emanaldirako arrantzale jantziak era-mango dituzte oñatiarrek.

**1/ ETXEBIZITZAK****101. SALDU**

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza erdialdean. Prezio negoziagarría. Saltzeko presarekin. 659 64 67 38.

**Bergara.** 50 metro koadroko etxebizitza salgai Zabalotegín. Sukalde-jangela, hiru logela, komuna, balkoia eta sotoa. Erdi jantzia. Prezio onean. Deitu 635 72 67 11 telefonora.

**Eskoriatza.** Etxebizitza salgai edo errentan. Bi logela, bi bainugela, egonela eta sukaldea. Arropak eskegitzeakoa. Igogai-luarekin. Oso eguzkitsuua. 20 metro koadroko trastelekuarenkin. 663 38 36 93

**Gasteiz.** 80 metro koadroko etxebizitza Mendizorrotzan. Hiru logela eta bi komun. Gas beronkuntza indibiduala. Hego-men-debalde eta dena kanoalde-را begira. Igogai-luarekin eta garaje plaza-rekin. 615 70 99 86 edo 605 72 14 38

**Luz Saint Sauveur** (Frantzisko Pirinioan). Etxebizitza salgai. 670 49 84 28 edo 649 03 52 95

**Ofiati.** 105 metro koadroko duplexa salgai. Prezioa adosteko. 635 71 41 39

**Ofiati.** 80 metro koadroko etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Prezioa adosteko. 635 71 41 39

**Ofiati.** Tasatutako etxebizitza salgai herri erdialdean. 105 metro koadro. Eraikitzetan, Aldaketa-ket egiteko aukera. Zozketa-rrik gabeko aukera paregabea. 651 70 80 04.

**103. ERRENTAN EMAN**

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Ferrerias kalean. Logela bat, sukaldea, egonela eta komuna. 530 euro. 619 34 88 52.

**Arrasate.** Etxebizitza errentan

**EUSKONTROL**

**Bergarako instalazioetarako behar da:**  
**Peoi lana betetzeko pertsona bat.**  
**Gidaibaimena beharrezkoa.**

**94 630 95 00**  
(Aintzane)

**ETXE AGENTZIAK**

INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA  
Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
www.inmokorrosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**

- Zabalotegi 80 m<sup>2</sup>. Eguzkitsuua. Bista onak.
- Simon Arieta 80 m<sup>2</sup>. Eguzkitsuua. Ondo. Berritua.
- Zubietza 80 m<sup>2</sup>. Berritua. Gánbararekin.
- Elusu baseria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m<sup>2</sup>. Berritua. Gazteentzat.
- Ibargarai 74 m<sup>2</sup>. Ondo. Garajea aukera.
- Zubiaurre 67 m<sup>2</sup>. Berritua. Eguzkitsuua.
- Matxiategi 61 m<sup>2</sup>. Prezio ona. Eguzkitsuua.
- Zabalotegi 50 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Barrenkale 82 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Simon Arrieta 80 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- Bidekurutzeta 103 m<sup>2</sup>. Duplexa. Oso ondo.
- Zubiaurre 52 m<sup>2</sup>. Gazteentzat.
- Azkarruntz 69 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- San Pedro 65 m<sup>2</sup>. Gánbararekin.
- Artekale 62 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Zubiaurre 58 m<sup>2</sup>. Eguzkitsuua.
- Kruz Gallastegi 65 m<sup>2</sup>. Eguzkitsuua.
- Zubiaurre 52 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- Masterreka 92 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Osintzu 62 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- San Lorentzen etxe berriak

**Antzuola:**

- Buztintzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Etxe berriak 178 m<sup>2</sup>. Duplexak eta adosatuak.

**Elgeta:**

- San Roke 72 m<sup>2</sup>. Berritua.
- San Roke 80 m<sup>2</sup>. 80 m<sup>2</sup>-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m<sup>2</sup>. Berritua.

**Ofiati:**

- Kale Zaharra. 62 m<sup>2</sup>. Terrazarekin. Ortua.
- Lezesari, 75 m<sup>2</sup>. Eguzkitsuua. Erdi berritua.
- Moyua. 75 m<sup>2</sup>. Oso aukera ona.

Erguinietik gerto. Ikerla edo bikote batentzat. Laura/Jose Angel. 629 67 94 88 edo 615 74 32 79

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Jose Luis Iñarra kalean, Altamiran. 639 96 01 21

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Zerrajera kalean. 950 euro. 646 81 03 35

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Madura kalean. 696 84 11 51

**Conil.** Apartamentua ematen da errentan. 615 75 11 47

**Donostia.** Bi ikaslerentzako etxea ematen da errentan Donostia erdialdean. 2008ko urritik 2009ko ekainera, biak barne. Neskar bakarrak. 620 06 35 92

**Gasteiz.** Hiru ikaslerendako etxebizitza errentan ematen da. Unibertsitatek gerto. Deitu 647 92 75 26 telefonora.

**Vieux Boucau** (Landak). 10-12 pertsonarendako etxe indibiduala errentan. 2008an guztiz berritua. Bost logela, bi komun, terraza, lorategia eta barba-koak. Astebea gutxiez. Hon-dartzartiketetik hirrak gerto. 669 00 75 49.

**104. ERRENTAN HARTU**

**Arrasate.** Bi neska gaztek etxe ikasleko apartamentua errentan hartuko genuke. 659 55 25 60.

**Arrasate.** Bikote batek etxebizitza edo logela hartuko luke errentan. Ahal izanez gero erdialdean. 666 21 88 95 edo 943 77 13 10.

**Arrasate.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Iñaki. 608 49 89 93.

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan herri erdialdean. Igogai-luarekin eta altzaririk gabe. 679 31 62 68.

# IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**

- 101. SALDU
- 102. EROSI
- 103. ERRENTAN EMAN
- 104. ERRENTAN HARTU
- 105. ETXEA OSATU

**2. GARAJEAK**

- 201. SALDU
- 202. EROSI
- 203. ERRENTAN EMAN
- 204. ERRENTAN HARTU
- 205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**

- 301. SALDU
- 302. EROSI
- 303. ERRENTAN EMAN
- 304. ERRENTAN HARTU
- 305. BESTELAKOAK

**4. LANA**

- 401. ESKAINTZAK
- 402. ESKAERAK
- 403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**

- 501. JASO
- 502. EMAN
- 503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**

- 601. SALDU
- 602. EROSI
- 603. ALOKATU
- 604. KONPONDUA
- 605. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**

- 701. SALDU
- 702. EROSI
- 703. EMAN
- 704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**

- 801. SALDU
- 802. EROSI
- 803. EMAN
- 804. HARTU
- 805. TRUKATU
- 806. GALDU
- 807. AURKITU
- 808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**

- 901. AGURRAK
- 902. HARREMANAK
- 903. DEIAK
- 904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

- 701. SALDU
- 702. EROSI
- 703. EMAN
- 704. BESTELAKOAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrak iragarri ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera utzterik ere.

**943 25 05 05**  
sailkatuak@goiiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIKA ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU, LOKALA SALDU/ALOKATU, GARAJEA SALDU/ALOKATU, MOTORRA SALDU. GOIENKARIA-N + ASTELEHENKO GOIENKARIA-N 17 € (BEZ BARNE).

PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 30 EURO.

GOIENKARIK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunak.

**Mikrogrua.** Mugitu ezin diren pertsonentzako SUNLIFT mikrogrua elektrikoa salgai. Oso ero-soa exterkera. Erabiliz gabe dago. Prezioa adostuko dugu. Deitu 665 73 37 97 zenbakira.

**Debagoiena.** Neska euskalduna uztalean eta abuztuan umeak zaintzeko prest. 696 10 20 62.

**Ofiati.** Ikerla eta lehen mai-lako Psikologíak ikasketak dituen neska uztalean lanerako prest. 651 70 85 13.

**Ordenagailua.** Mahai gaineko ordenagailua salgai: Intel Pentium 4, 3 GHz prozesagailua, 120 GB-ko disko gogorra, 512 Mb RAM, TFT 17"-ko monitorrea, Windows XP. La berria. Prezioa: 600 euro, negoziagarría. Deitu 617 78 71 65 zenbakira.

**Pilates egiteko** Reformer makin-a eta dorrea salgai. Deitu 616 81 15 96 telefonora.

**Telebista.** Phillips HD Ready 37"-ko telebista salgai. LTDre-kin (TDT). 1.300 euro. 650 80 80 39.

**Terrazarako** zortzi mahai, 42 aukietako eguzkitako handi-salgai. Prezioa, adosteko. 650 80 80 39.

**Trikitia** salgai. Zero Sette Anti-comodeloa. Sibemontona. Prezio interesgarria. Deitu 608 12 38 15 telefonora.

**Urpekaratzako bi ekipo** salgai. Bata: txaleko, erreguladorea, lastrea, gerriko eta linterna. 130 euro. Bigarrena: txaleko, erreguladorea ordenagailurekin, lastrea, gerriko eta labana: 200 euro. Gutxirabilaketa egoera onean. Deitu 665 72 14 90 edo 615 70 35 18 telefono zenbakira.

**5/ IRAKASKUNTZA**

**502. EMAN**

**Arrasate.** Ingelesek eskola ematen ditut. 8 urtetik aurre-rra. Eskola laguntza ere ba. 635 73 72 21.

**Ingelés komunikatiboko** esko-lak ematen ditut. Maita giztiak. Laguntza eskola edo azterke-tak prestatzen. 15:00etatik aurrera deitu. Deitu 610 97 49 68 zenbakira.

**6/ MOTORRA**

**603. ALOKATU**

**Bergara.** Haurak zainduko nituzke irailek aurrera. Esperienzia daukat. 943 76 08 76.

**Bergara.** Neska umeak zaintze-ko edo etxeak garbitzen prest dago. 943 76 58 28 edo 691 50 49 53.

**Bergara.** Neska lanerako ger-ru. Orduka. Garbiketa lanetarako edo umeak zaintze-ko. 671 97 19 19 30.

**Bergara.** Neska arduratsua umeak zaintze-ko gertu arra. 680 17 33 61 edo 943 76 08 76.

**Debagoiena eta Donostialdea.** Eskarmentu handiko neska nagusiak edo umeak zaintze-ko. 693 76 08 76.

**Arretxabaleta.** Emakumea behar da bai haur zaindu eta etxe-ko lanek egiteko. 650 60 56 35.

## hildakoak

### • Julia Otxoa-Aizpurua Uribe-Etxeberria.

Eskoriatzan, hilaren 17an. 88 urte.

### • Lorenzo Irira Egiluz.

Arrasaten, uztailaren 20an. 87 urte.

### • Teodora Arizmendiarieta Larrañaga.


Elgetan, uztailaren 19an. 87 urte.

### • Rosario Areitioaurtena Markoida.

Elgetan, uztailaren 19an. 79 urte.

### • Antonia Jauregi Zugasti.

Aretxabaletan, uztailaren 21ean. 73 urte.



**Manu Rodriguez** berigararra eta **Natalia Calvo** gasteitzarra uztailaren 19an ezkondu ziren Dulantziko udaletxeen. Ondoren, familiakoekin bazkaria egin zuten Gasteizko Elorriaga hotelean. Zorionak, bikote, familiakoentzat!



**Noelia Fernandez** eta **Angel Valor** arrasatearrak uztailaren 26an ezkondu dira Donostian. Amara Plaza hotelean egindo dute afaria eta bidaian Txinara eta Tibetera joango dira. Zorionak, familiakoentzat!



**Olatz** eta **Mikel** oñatiarrak uztailaren 26an ezkondu dira Azpeitioko Olatz ermitan. Ondoren, Kiruri jatetxeen egindo dute bazkaria. Zorionak, bikote, familiakoentzat!

**Ana Aiestui** gesalibartarra eta **Rafael Jauregi** arrasatearra zapaturan, hilaren 26an, ezkondu dira Arrasateko udaletxeen. Bazkaria egindo dute Oñatioko Zelai-Zabal jatetxeen. Anaren urtebetetze eguna ere bada. Familia guztien partetik, zorionak!

**Oihana Caballero** (Arrasate) eta **Ainhoa Rodriguez** (Oñati) uztailaren 26an ezkondu dira, Oñatioko udaletxeen. Aretxabaletako Baster-Alde jatetxeen bazkalduko dute familiarteko eta lagunekin. Ezkon bidaian Kanadara joango dira. Zorionak, familiaren partetik!

## ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu,  
deitu telefono honetara  
eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera,  
eguzaten eguerdia baino lehen:

### Arrasate

Goiena: Otalora lizenziaduna 31. 943 25 25 05.  
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 25 05.

### Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 25 05.

### Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

### Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

### Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

### Elgeta

Ugari janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.

### Antzuola:

Itzal liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

### Eskelaren prezioa: 100 euro.

Prezio berezia:  
egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN,  
bietan, argitaratuz gero, **120** euro.

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle.**



### OROIGARRIA

## Igor Lete Aranburu

Bergaran hil zen 2008ko uztailaren 22an, 24 urte zituela.

*Zure gitarra soinua  
guretzat ez da inoiz isilduko*




Zure koadrila.  
Bergaran, 2006ko uztailaren 24an.

### OROIGARRIA

## Igor Lete Aranburu

Bergaran hil zen 2008ko uztailaren 22an, 24 urte zituela.

 *Txorria zara Igor,  
Txori gazte ederra  
Eta txoriak ez dira lotuta egoteko jaio  
Txoriak ez dira kaiolan luzaroan iraun  
Horregatik erabaki duzu hegan egitea  
Euskal Herriko zeruetan  
arrano libre bihurtzeko*



Familia eta lagunak.  
Bergaran, 2006ko uztailaren 24an.

### ESKER ONA

## Regina Urrutia Zelaia

Miguel Ormazabalen alarguna *Mala baserrikoa*

Oñatin hil zen 2008ko uztailaren 16an, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.

Ondrak zapaturan, uztailak 26,  
19:30ean Agustinoan.



Oñatin, 2008ko uztailaren 24an.

### 1. URTEURRENA

## Juanito Jauregi Ezkurra

Lehen urteurreneko meza  
uztailaren 31n, domeka, 11:00etan  
Arrasateko Garagartz auzoko  
San Miguel elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### 1. URTEURRENA

## Bibiana Letona Unzueta

Lehen urteurreneko meza  
abuztuaren 3an, domeka, 12:30ean,  
Eskoriatzako San Pedro parrokan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### 1. URTEURRENA


## Luis Agirre Arregi

Lehen urteurreneko meza  
zapatuan, uztailaren 26an,  
19:00etan  
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren Parrokan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## bila-bila 7



## sudokua

|   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   |   | 3 |   | 4 |   | 5 |   |
|   |   | 6 |   |   |   | 4 | 7 |
|   |   | 9 |   |   |   |   | 8 |
| 6 | 5 |   | 3 |   |   |   |   |
|   | 2 |   |   |   | 1 |   |   |
|   |   |   | 2 |   | 7 | 9 |   |
| 8 |   |   |   | 4 |   |   |   |
| 2 | 7 |   |   | 5 |   |   |   |
|   | 9 |   | 1 |   | 6 |   |   |

## hitz gezidunak

|                                       |   |  |   |                                |       |
|---------------------------------------|---|--|---|--------------------------------|-------|
| Ugaztun haragijale<br>Oinetako hatz   | ▼ | Utzi<br>Holandako hiria                    | ▼ | Gabezia<br>Har ezazu           | ▼     |
| * Irudiko zuhaitza<br>Hots ozen luzea | ► |  |   |                                |       |
| Berriketa                             | ▼ | Fruitu mota<br>Itsasbasterre -ko amildegia | ► |                                |       |
| Uretako seinalea                      | ► |  |   |                                | Kasik |
| Hori argi<br>Labean sartu             | ► |  |   | 2                              | ►     |
| Puxtarria                             | ► |  |   | Arlo                           | ▼     |
| Lapurdiko herria                      | ► |  |   | Barazki hotzotsua<br>Neka, una |       |
|                                       |   |  |   | Zintzo                         |       |
|                                       |   |  |   | Oxigenoa<br>Uranioa            |       |
|                                       |   |  |   | Beltz                          |       |

GOIENKARIA

## hieroglifoa

Nola etorri zarete?

DDZDD


## hizki salda

Aretxabaletako 6 elizate

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| B | R | O | T | A | U | U | P | G |
| A | O | Z | A | R | A | T | Z | A |
| R | T | A | P | K | P | Z | M | L |
| E | X | E | O | A | G | O | T | A |
| A | L | A | R | R | I | N | O | R |
| N | L | K | O | A | L | S | H | T |
| T | Z | U | E | Z | B | E | U | Z |
| Z | R | T | S | O | N | P | O | A |
| A | P | O | R | T | P | O | L | R |



|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3 | 5 | 9 | 8 | 1 | 2 | 6 | 7 | 4 |
| 2 | 7 | 4 | 9 | 4 | 2 | 5 | 3 | 1 |
| 8 | 1 | 6 | 7 | 9 | 5 | 3 | 6 | 5 |
| 1 | 3 | 8 | 4 | 2 | 6 | 7 | 9 | 6 |
| 4 | 9 | 2 | 5 | 7 | 8 | 1 | 3 | 6 |
| 7 | 6 | 5 | 1 | 3 | 9 | 4 | 8 | 2 |
| 6 | 4 | 7 | 9 | 1 | 3 | 2 | 8 | 5 |
| 5 | 2 | 1 | 6 | 8 | 3 | 9 | 4 | 7 |
| 9 | 8 | 3 | 2 | 4 | 7 | 5 | 6 | 1 |



## bono fotoa



Nola du izena herri honetako alkateak?

Argazkia eta galdera &gt; Jose Felix Diaz de Tuesta




BMk emandako  
**50 euroko erosketa-txartela**  
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO  
Goienako edozein egoitzara

**BMn beti  
eskaintzarik onenak!**

AURREKO ZENBAIKO IRABAZLEA  
Arrasateko **PETRA INDA**ren dako izan da erosketa-txartela. Zorionak!  
Galderaren erantzun zuzena: Perun.



Ana Balentziaga > Igerilaria eta ikaslea

# "Azterketa garaietan beharrezkoa egiten zait igerilekura joatea, ihes egiteko"

Egunero bi ordu inguru ematen ditu Ana Balentziagak igerileku kuan. Txikitatik maite du igeri-

keta, eta igerilekura joaten ez bida, sufritu egiten du. Distantzia luzeko -3.000 metro- pro-

bak nahiago ditu eta hurrengo urtean Bergarako igeri taldea utziko du, Donostiako Fortuna

igeri taldean sartzeko. Bestalde, Erizaintza ikasiko du; oso argi dauka erizaina izan nahi duela.

**JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA**

Atzo bertan hartu zuen Ana Balentziagak (1990, Bergara) Irlandako hegazkina. Hango lagun baten etxearen dago; ingelesa ikasi eta, bide batez, merezitako oporrak hartzera. Izan ere, egin beharrekoak ondo eginda joan da; datorren urtean Erizaintza egiteko batez bestekoa gainditu, eta udako igeri probetan lan txukuna egin. Datorren urtean Donostian biziko da.

**Noiz hasi zinen igeriketan? Nork bultzatu zintuen?**

Orain bederatziz urte hasiko nintzen igerian. Ikastolatik joaten ginenean, oso beldurtia nintzen, sekulako beldurra nion urari. Hala ere, amak igeri taldean apuntatu ninduen, eta ordutik hona oso gustura nabil igeriketan.

**Zer da zuretzat igeriketa?**

Igeriketak garrantzia handia dauka nire bizitzan. Igerilekura joatea beharrezkoa dut, ia egunero, bestela... Adibidez, azterketa garaietan igerilekura joaten naiz nire burua erlaxatzeko, erre alitatetik ihes egiteko balio dit.

Bestalde, igeriketa ona da gorputzarentzat; bizkarrarentzako, artikulazioak... baina, era berean, zer edo zer lortu nahi duenak asko sufritu eta entrenatu behar du.

**Junior maila pasa duzula esan daiteke, normalean maila nagusian egiten duzu-eta igeri. Zein da zure marka?**


Ni crawl eta tximeleta estiloetan espezializatu naiz. Crawl estiloan, 100 metroko distantzian, 1.02,07 da nire marka. Orain lau urteko marka da, ordutik ez naiz probatu. Hala ere, igeriketan oso zaila da denbora jaistea, segundo hamarren bat jaisteko proba perfektua egin beharra dago.

**Udako igeri proba gehienak burutuak dituzu, baina orain diuk probaren bat geratzen zaizu. Nola ikusten duzu zure burua horiei aurre egiteko?**

Orain arte distantzia motzeko probetan ibili naiz eta, orokorrean, balorazio ona egiten dut. Orain distantzia luzeko probak geratzen zaizkit, niri gehien gustatzen zaizkidanak. Erresistentzia maila handia dudala esango nuke, eta sasoi onean aurkitzen naiz proba luzeei aurre egiteko.

**Zenbat metro dituzte distantzia luzeko probek? Eta zenbat denboratan egiten dituzu?**

3.000 metro inguru izaten dituzte. Proba hauetan nire den-



GOIENKARIA

PERTSONALA

**Herria:** Bergara. **Adina:** 17 urte. **Ikasketak:** Batxilergo Zientifikoa. **Zaletasunak:** Igeriketa, eskia eta mendira joatea. **Gorrotatzen duzun zer edo zer:** Kezkak izatea. **Gomendatzeko moduko film bat:** Spiderman. **Liburu bat:** El diario rosa de Carlota, Gemma Lie-

nasena. **Musikari bat:** Rihanna. **Bidaiatzeko leku bat:** Dolomitak (Italia). **Igerian egiteko estilorki gustukoena:** Crawl eta tximeleta estiloak. **Igerileku bat:** Donostiako Pako Yoldi igerilekuak. **Igerilari bat:** Michael Phelps. **Parrandarako leku bat:** Eibar.

bora zehatza ez dakit zein den. Getaria eta Zarautz arteko proba amaitzeko 50 minutu behar izan nituen. Hala ere, denbora hauek nahiko aldakorrak dira, beste faktore batzuk sartzen dira eta jokoan; garrantzitsuena, itsasoaren egoera.

**Igeriketari dagokionez, zein balorazio egiten duzu aurten? Zein aurreikuspen dituzu datorren urterako?**

Nahiko ona, gustura geratu naiz aurtengo lanarekin. Datorren urteari begira, gauzak asko aldatuko dira, Bergarako igeri elkarrea utzi egingo dut eta Donostiako Fortuna igeriketa taldean sartuko naiz. Donostian biziko naizenez, egokiena eta erosoa da han entrenatzea.

**Erizaintza ikasiko duzu. Zer-gatik erizaintza?**

Betidanik interesatu zait Erizaintza. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, esaterako, aukera asko irakasgaietan Erizaintza izaten zen aukeratzen nuen lehenetarikoa. Gainera, familiar erizain bat baino gehiago dago, eta horrek ere bultzatu nau.

Bestalde, unibertsitatean sartzeko nota altaua eskatzen zutela nuen entzunda, baina, azkenean, aurreko urteetan baino batez besteko baxuagoa eskatu dute -6,9-. Beraz, ez dut arazorik izan unibertsitatean sartzeko hautaproba pasatzeko.

**Beraz, ogibidez erizain izateko asmoa duzu?**

Bai, zalantza barik. Egin beharreko hiru urteak egin, gero beharbada espezialitatea egin, eta, ahal bada behintzat, lanera. Hori da nire asmoa.

**Elkarritzeta hau egiteko justu-justu harrapatu zaitugu, berau argitaratu denerako Irlandan zaude-eta. Zer egingo duzu han?**

Irlandako lagun baten etxera noa, eurekin egon eta egun batzuk pasatzera. Abuztuaren 4rako hemen izango naiz, eta hango laguna etorriko da nirekin. Irlandara ingelesa ikastera joan nintzen, orain dela bi urte. Uztail osoa izan nintzen eta bertan egindako lagunarekin urtero elkartzen naiz.

**Aipatu gabe utzitako zerbait gaineratzerik nahi?**

Eskiatzea ere gustatzen zaidala. Aurten, baina, denboraldia ezin okerragoa izan da, ez du batere elurrik egin.



Irudian, aurreko edizio bateko Euskal Encounter jaialdia.

ARTXIBOA

AISIALDIA > INFORMATIKA JAIALDIA

## Gaur, eguna, Euskal Encounterrari emango diote hasiera Barakaldon

Lau egun iraungo duen jaialdian 5.700 lagun inguru espero dira Barakaldoko Bilbao Exhibition Centerren; horretarako, 35.000 metro koadrotik gora egokitzen dira.

MIRIAN BITERI > BERGARA Debagoieneko informatikako profesionalek eta zaleek hitzordua dute gaur, eguna, Barakaldoko Bilbao Exhibition Centerren. Euskal Encounterraren hamaseigarren edizioa antolatu dute gaurtik domekara arte. Jaialdiari gaur 10:00etan emango diote hasiera eta domekan, 19:00etan amaituko da. Lau egun luze horie-

tan informatikarekin lotutako ekintzak egingo dira eta zaletasun bera duten pertsonak ezagutzak elkartrukatuko dituzte.

### 5.700 LAGUN INGURU

Antolatzaleek azaldu dutenez, egun horietan zehar 5.700 lagun inguru espero dira. Horretarako, Bilbao Exhibition Centerren 35.000 metro koadrotik gora egokitzen dira. Horretaz aparte, guztira, esan dute 4.096 ordenagailuk izango dutela sarera konektatuta egoteko aukera eta Internet konexioa 10 Gigabite segundokoa izango da. Sariei dagokionez, 50.000 euro baino gehiagoko sariak banatuko direla aipatu dute.

Aurtengo jaialdian, diseinuarloko artista ezagunak izango dira berriro. Hala, diseinugileek, musikarieki eta programatzaileek lan ikusgarriak sortuko dituzte. Horretarako, animazioa mul-

timediako, 2D eta 3D grafikoko eta musika elektronikoko lehiaketan antolatuko dira. Gainera, GameGune txapelketa ospetsuan, Counter Strike eta Quake nazionalen jokalari profesionalak lehiatuko dira eta Retro Euskal ekimenaren baitan, trailer didaktikoetan parte hartu ahal izango dute han biltzen direnek.

### 50.000 LAGUN INGURU

Mota horretako bilkurak 80ko hamarkadaren amaieran hasiziren prestatzen Europako iparraldean. Norvegia, Danimarka eta Alemania bezalako herrietan, hain zuen. Euskal Encounterra da Iberiar Penintsulako jaialdi zaharrena.

Partehartzaile bakoitzak, hala nahi badu, bere ordenadore, bertan egindako lanak, programak, jokoak eta osagarriak eraman ditzake jaialdira.

## Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

[www.goiena.net-eko blog komertzialak](http://www.goiena.net-eko blog komertzialak)

[www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak)

/aebpn  
/aiastui  
/arantxa  
/aretxargi  
/argi-plastik  
/arregi  
/atai  
/azkarate  
/bastida  
/briz-  
asegurua  
/BZ-sistemas  
/bolusukaldeak  
/denetik

/dragon-oriental  
/dukiena  
/ego  
/ezuzkigraf  
/ekilore  
/ekin  
/elejalde  
/ezkutuorly  
/galgorri  
/gallastegi  
/ganesh  
/garaia  
/gertu  
/gorkataxi

/gorla  
/gurea  
/gutzizeder  
/hamakataberna  
/itxaseder  
/irudisport  
/ixaun  
/izeder  
/jcracing  
/lamaino-etebeberri  
/lorelan  
/korozabaleta  
/kizkur  
/markiegi

/maulanda  
/mayte  
/merkeopari  
/multiopticas  
/ohiak  
/ogizun  
/okipark  
/optico  
/otzeta  
/pando  
/perfipar  
/puerta-ingles  
/richimaier  
/tabernaberri

/udalatx  
/udalaitz  
/urdeki  
/ugar tearotza  
/urbeta  
/urkia  
/vitoria  
/zaindusz  
/ziripot

Eta baita ere:

[www.aizue.com](http://www.aizue.com)  
[www.amgautoak.com](http://www.amgautoak.com)  
[www.baster-aldejateke.com](http://www.baster-aldejateke.com)  
[www.ehmff.com](http://www.ehmff.com)  
[www.gelatzu.com](http://www.gelatzu.com)  
[www.goikobenta.com](http://www.goikobenta.com)  
[www.haurtxoa.com](http://www.haurtxoa.com)  
[www.kizkur.com](http://www.kizkur.com)  
[www.klorofila.com](http://www.klorofila.com)  
[www.landaluze.com](http://www.landaluze.com)  
[www.lilura.com](http://www.lilura.com)  
[www.toldoslete.com](http://www.toldoslete.com)  
[www.uxarte.net](http://www.uxarte.net)  
[www.blark.net](http://www.blark.net)



**berriak**

> PROGRAMAZIOA  
**Anestesiaren zuzenekoa eskainiko du 'Musikantoi'-k**

Aramaioko jaietan Zarauzko Anestesia taldeak egindako kontzertua eskainiko du gaur GOITBk. Maider Arregi kazetariak aurkeztutako *Musikantoi* saioan izango da, gaur, eguna, 22:15ean. Aramaioko jaietan, txosnetan, *Terapia* azken lana aurkeztu zuten zarauzarrek. Lau urteko geldialdia egin eta gero, azaroaren 24an argitaratu zuen *Terapia* lana Anesthesia taldeak.

> PROGRAMAZIOA  
**Aro digitalari begira inbertsioak egingo ditu Goiena Telebistak**

Goienak inbertsio garrantzitsuak egingo ditu telebistan. Abuztuko egunak aprobetxatuko dituzte egin beharreko lanak egiteko. Telebistako tresneria zaharkitua geratua eta gaurko beharretara egokitzea pentsatu da; hala, platoan, errerealizazio gelan, jarraipen gelan eta artxiboan egingo dira berrikuntzak. Inbertsio horiek, aro digitalerako prestatuta egongo da Goiena Telebista.

> IRRATIA  
**Oporrak hartuko dituze Arrasate Irratian abuztuan**

Gaur, eguna, egingo dute azkeneko emisioa Arrasate Irratian. Bihartik aurrera oporrak hartuko dituzte irratiko lankideek. Oporren ondoren, irailaren 1ean itzulik dira ohiko programazioarekin, FMko 107.7. zenbakian. Irailean uda giroan jarraituko dute Arrasate Irratian, uda bukatu arte; besteak beste, udako errepaso zabala eta Joxe Landarekin eguraldiaren berri emango dute.

> IRRATIA  
**Uda ondoren opariak banatzen jarraituko dute irratian**


Oporretatik bueltan, orain arte bezala, opariak banatzen jarraituko dute Arrasate Irratiko lankideek. Hain zuzen, iraila eta urria bitartean banatuko dituzte opariak. Donostiako Aquariumerako sarrerak, 3.60 arretorako sarrerak eta musika eta literatura opariak banatuko dituzte, besteak beste. Zozketetan parte hartu gura duenak mail edo telefono bidez egin dezake: *irratia@goina.com* edo 943 25 05 telefonoan.

'ILUNPEAN' > EGUBAKOITZEAN, 22:45EAN

## Begoña del Teso izango da egubakoitzeko gonbidatua

Zinema kritikari eta kazetariaren zaletasunak ezagutzeko aukera, 'Ilunpean' saioan

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA  
Gonbidatu berezia izango du uztaleko azken *Ilunpean* saioak: Begoña del Teso kazetaria. Iker Barandiaran arrasatearrak aurkeztutako saioan, Del Teso kazetari eta zinema kritikari donostiarren zaletasunak ezagutzeko aukera egongo da. Modu lotsagabea eta ausarte-an idatzi eta berba egitearren egin da ezagun Del Teso. Baina gutxik dakite, zinema gustatzearaz gain, motorrak, zezenak eta bampiroak ere gustuko dituela Del Tesok. Guztiaren berri egubakoitzean izango duzu, 22:45ean, Goiena Telebistan.



Begoña del Teso kazetari donostiarra.

GOIENKARIA

**ALBISTEGIAK** > ABUZTUAN

## Goiena Telebistak ez du programazioa etengo abuztuko oporretan

**A.E.** > BERGARA  
Goiena Telebistak ez du etenik egingo abuztuko oporretan; iaz bezala, aurten ere egunero egingo dute lan GOITBko lankideek. Programazioa ez da ohikoa izango, aldaketa txiki batzuk izango ditu, baina, hala ere, ibarrean

gertatzen denaren berri jasoko dute Miren Arregi, Ohiane Issasi, Txomin Madina eta Mikel Saiz lankideek.

Albistegiak egunero egingo dira; hain zuzen, zapta albistegi egunero: 11:45ean, 13:45ean, 15:45ean, 17:45ean, 19:45ean,

21:45ean eta 23:45ean. Gainera, ikusleak informazioa bidali edo GOITBrek kontaktuan jartzeko bidea izango du *berriak@goina.com* helbidera idatzita edo 943 25 05 telefonora deituta.

Informazioaz gain, beste hainbat gai eskainiko du Goiena Telebistak. *Musikantoi* saioan, egungo musika entzuteko aukera egongo da; *Eltze beroan*, sukaldeko sekretuak erakutsiko dituzte; *Ilunpean*-eko elkarritzketatuak ezagutzeko aukera egongo; eta etxeko txikienek marrazki bizidunekin gozatzeko aukera izango dute abuztuan.

**telebegi**

Oihane Agirre > 'oagirre@goina.com'

Tu vista de...

**T**u vista de Euskal Herria saioaren finala ikusi nuen domekan. Egia esan ez dut aurretik saio bat bera ere ikusi, baina azken saioan bota zituzten laburpenekin asko gozatu nuen. Benetan irudi politik ahal izan genituen, grabaketa lan bikaina benetan. Ikupegi bakoitza pertsonaia ezagun baten laguntzaz kontatu digute oraingoan. Nik uste dut, aurrez *La mirada mágica* saioa lorturiko audientzia maila bikainei kasu eginda, beste formatu bat asmatu nahi izan dutela, lehikortasunaren elementua gehituta. Domekan ere Euskal Herriko saiorik ikusiena izan zen, 171.000 lagunek egin zuten bat saioarekin.

Domekan ulertu nuen, zergatik deitu izan dioten ETBri Bilbo (edo Bilbao esan behar orain) telebista. Bereziki Bizkaiako parajeak ikusi ahal izan ziren eta gonbidatuak ere gehiengoa bizkaitarra. Athletic-eko hiru jokalari behintzat ikusi nituen. Eta gure ibarreko irudi bakarra ikusi nuen, saioaren sarrerako karetan, Arantzazu lau segunduz azaldu zen. Gustura erakutsiko zien bada Pello Zabalak Arantzazu eta bere inguruak!

**arrasate irratia**

FM 107.7

**Abuztua**

Irratia, blogean.

Abuztuan Arrasate Irratiak oporrak hartuko ditu. Hala, FM 107.7an ez da zuzeneko irratsaoriak egongo; bai, ordea, musika eskaintza zabala.

Arrasate Irratiak orain arte egindako elkarritzketak eta albiste adierazgarrienak blogean jarri diru zintzilik, gura duenaren esku. Hala, irratia uhinez ez bada ere, interneten Arrasate Irratia entzuteko aukera badago, ondorengo helbidean:

<http://goina.net/blogak/irratia>.

Irailearen 1ean itzuliko dira Arrasate Irratiko lankideak kontu eta albiste gehiagorekin.

**ARRASATE  
IRRATIA**

## GOITBko programazioa

### Eguena, 24

13:15Emisio hasiera. 13:20Marrazki bizidunak. 13:45Gaurkoak. 13:47Antzuolako jaiak. 14:15Euskal artzainak. 14:45Berriak. 15:15Ikusten. 15:45Gaurkoak. 15:47Ur eta lur. 16:17Eltze beroa. 16:45Berriak. 17:15Muka muka. 17:45Gaurkoak. 17:47Ilunpean. 18:15Kirolari. 18:45Berriak. 19:15Marrazkiak. 19:45Berriak. 20:15Kantari. 20:45Berriak. 21:15Erreportajea. 21:45Gaurkoak. 21:47Berbaire. 22:15Musikantoi. 22:45Berriak. 23:15Hitz bitan. 22:45Gaurkoak. 23:30Teknopolis. 00:15Emisio amaiera

### Egubakoitza, 25

08:00 Emisio hasiera. 08:05Marrazki bizidunak. 11:00Kantari. 12:00Arte irekia. 12:30Estetika. 13:30Ikusten. 14:00Ur eta lur. 14:30Erreportajea. 15:00Ikusmira. 15:30Kantari. 16:00Marrazki bizidunak. 19:0028 Klip. 19:30Eltze beroa. 20:00Ur eta lur. 20:30Erreportajea ttipi ttapa. 21:00Musikantoi. 21:30Wazemak. 22:00Astekoak. 22:15Antzuolako jaiak. 22:45Ilunpean. 23:15Teknopolis. 23:45Erreportajea. 00:15Musikantoi. 00:30Emisio amaiera

### Zapatua, 26

08:00 Emisio hasiera. 08:05Marrazki bizidunak. 11:00Ikusmira. 11:30Ikusten. 12:00Astekoak. 12:1528Klip. 12:30Berbaire. 13:00Eltze beroa. 13:30Wazemak. 14:30Antzuolako jaiak. 15:00Kantari. 16:00Marrazki bizidunak. 19:00Teknopolis. 19:30Kirolari. 20:00Ur eta lur. 20:30Ikusmira. 21:00Euskaldunak hizketan. 21:30Wazemak. 22:00Erreportajea. 22:30Ilunpean. 23:00Musikantoi. 23:3028 Klip. 00:00Emisio amaiera

### Domeka, 27

08:00 Emisio hasiera. 08:05Marrazki bizidunak. 11:00Kantari. 12:00Arte irekia. 12:30Estetika. 13:30Ikusten. 14:00Ur eta lur. 14:30Erreportajea. 15:00Ikusmira. 15:30Kantari. 16:00Marrazki bizidunak. 19:0028 Klip. 19:30Eltze beroa. 20:00Ur eta lur. 20:30Erreportajea ttipi ttapa. 21:00Musikantoi. 21:30Animalia. 22:00Astekoak. 22:15Antzuolako jaiak. 22:45Erreportajea. 23:15Teknopolis. 23:45Ilunpean. 00:15Musikantoi. 00:30Emisio amaiera

### Astelehena, 28

13:15Emisio hasiera. 13:20Marrazki bizidunak. Munduko futbol txapelketa. 13:45Gaurkoak. 13:47Erreportajea-Ttipi TTapa. 14:15Eltze beroa. 14:45Gaurkoak. 14:47Eltze beroa. 15:45Gaurkoak. 15:47Wazemak. 16:15Ikusten. 16:45Gaurkoak. 16:47Marrazkiak. 17:45Gaurkoak. 17:47Hitz bitan. 18:15Teknopolis. 18:45Gaurkoak. 18:47Ilunpean. 19:15Animalia. 19:45Berriak. 20:15Marrazki bizidunako. 20:45Berriak. 21:15Erreportajea-Ttipi ttapa. 21:45Gaurkoak. 21:47Erreportajea. 22:15Kirolari. 22:45Berriak. 23:15Ilunpean. 22:45Gaurkoak. 23:3028 Klip. 00:15Emisio amaiera

### Martitzena, 29

13:15Emisio hasiera. 13:20Marrazki bizidunak. Muka muka. 13:45Gaurkoak. 13:47Erreportajea. 14:15Eltze beroa. 14:45Gaurkoak. 14:47Eltze beroa. 15:15Animalia. 15:45Gaurkoak. 15:47Kiroli. 16:15Eltze beroa. 16:45Gaurkoak. 14:47Marrazkiak. 17:45Gaurkoak. 17:4728 Klip. 18:15Musikantoi. 18:45Gaurkoak. 18:47Marrazki bizidunak. 19:45Berriak. 20:15Kantari. 20:45Berriak. 21:15Wazemak. 21:45Gaurkoak. 21:47Ikusten. 22:15Euskaldunok hizketan. 22:45Berriak. 23:15Ilunpean. 22:45Gaurkoak. 23:3028 Klip. 00:15Emisio amaiera

### Eguaztena, 30

13:15Emisio hasiera. 13:20Marrazki bizidunak. Munduko futbol txapelketa. 13:45Gaurkoak. 13:47Kantari. 14:15Eltze beroa. 14:45Gaurkoak. 14:47Eltze beroa. 15:15Ur eta lur. 15:45Gaurkoak. 15:47Euskaldunok hizketan. 16:15Wazemak. 16:45Gaurkoak. 16:47Marrazkiak. 17:45Gaurkoak. 17:47Animalia. 18:15Ikusten. 18:45Gaurkoak. 18:47Marrazki bizidunak. 19:45Berriak. 20:15Kantari. 20:45Berriak. 21:15Wazemak. 21:45Gaurkoak. 21:47Ikusten. 22:15Euskaldunok hizketan. 22:45Berriak. 23:15Ikusmira. 22:45Gaurkoak. 23:30Erreportajea. 00:15Emisio amaiera

**DANBAKA** III. MUSIKA LEHIAKETA  
DEBABARRENA DEBAGOIENA DURANGALDEA

# PARTE HARTU NAHI?

www.danbaka.com

Debagoiena, Debabarrena edo Durangaldeko bazara eta taldean zein bakarlarri gisa bazabiltza, **Danbaka Musika Lehiaketa** zain daukazu. Lehiaketako talde onenak disko bat grabatu eta kaleratuko du. Debagoieneko talde onenak ere sari bera eskuratuko du.

Oinarriak eta informazio gehiago:  
[www.danbaka.com](http://www.danbaka.com).

irailak 19 izena emateko azken eguna

**Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!**

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENNEKO GOIENKARIA IV. LEHIAKETA

## Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

...eta lau sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Argazki guztiak fotoblog honetan: [www.goiena.net/blogak/argazkiak](http://www.goiena.net/blogak/argazkiak)

**Har ezazu parte!**

**Baldintzak**

- Udako argazkiak izan beharko dute: aurtenoak edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Koloreetan zein zuri-beltzean.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Argazkiak jasotzeko epea hasiko da ekainaren 23an eta amaituko da irailaren 17an.
- Argazkiak aurkezta ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko erresoluzio eta kalitatearekin).
- Argazkiak bidali ahal izango dira e postaz [argazkiak@goiena.com](mailto:argazkiak@goiena.com) helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate.
- Arrasate: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate.
- Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
- Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzezkan gutun-azal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzezko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Parte-hartzaleek gehienez 5 argazki bidali ahal izango dituzte.
- Argazkiarekin batera adieraz beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren 14tik aurrera **Asteleheneko Goienkaria**.
- Urriaren 6ko ASTELEHENNEKO GOIENKARIA aditzera emango dira irabazleen izenak.
- Argazki asko jasotzen badituguz, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko. Baina lehiaketarako argazki guztiak hartuko dira aintzat.
- Epai-mahaiak baloratuko ditu argazkiaren kalitatea, originaltasuna, balio historikoa eta biziutasuna, besteak beste.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENNEKO GOIENKARIAren artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, betiere egilea aipatuta.

**Sariak**

**1. saria:** Olympus E-510 reflex argazki kamera digitala  
Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.  
10 milioi pixel. / Bi objektibo aldagarririk: Zuiko digital 14-42 mm eta 40-150 mm / Flash eta guzti. / 2,5 hazbeteko LCD pantaila atzealdean.

**2.** **3.**   
**2. saria:** Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonarendako, Arrasate Bidaiaik-en eskutik.  
**3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxeen.

Babeslea:



Laguntzaileak:

**GURE AMETSIA**

JATETXEA  
Arrasate Bidaiaik



**Goienkaria**

ASTELEHENNEKO  
aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:

943 08 10 50  
Asteleheneitik egubakoitzera  
09:00etatik 18:00etara

# Uztailak 24-Abuztuak 1

**LEIRE KORTABARRIA**  
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa  
eguzateneko egurderia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

## Musika



ARRASATE

### > Brutal Melodyk Jimmy (SA) eta Otutorekin (Numen) joko du bihar

Brutal Melody hardcore taldea bueltan da, eta Arrasaten joko dute bihar, barikua, 3.60 aretoan, 23:00etan. Taldearekin joko dute Soziedad Alkoholikako Jimmyk eta Numen-eko kide ohi Otutok. Anger taldeak ere jardungo du.

## Musika



BERGARA

### > Galiziako jazz doinuak eskainiko dituzte Terela Gradin eta GEM Triok

Terela Gradin galiziarrak jazz gai klasikoak (Cole Porter, Miles Davis...) eta gaur egungo musikarien bertsioak (Sting, Radiohead...) lantzen ditu. Bihar, egubakoitza, GEM Triorekin joko du Espoloian, 22:30ean.

## Ospakizuna



OÑATI

### > Pintxoak, txikiteoa, bazkaria eta animazioa, Duruko Jaian, domekan

Duruko Jaia ospatuko dute domekan, hilak 27, hango 12 aterpetxek antolatuta. 11:00etan, meza izango dute Aierdiko aterpean, eta, han bertan, pintxoak eta salda; gero, gazta-dastatzea, txikiteoa, bazkaria, bertsolariak, musika...

## Musika

ARRASATE

### > Jazza kolonbiar erara joko du Puerto Candelaria taldeak

Medellingo Puerto Candelaria taldea hiri horretako jazz talde garrantzitsuena bilakatu da azken urteotan, eta Kolonbian jazzaren ordezkarri handienetako bat ere. Gaur egungo musika elementuak sartzen dituzte euren musikan, Kolonbiako erritmo eta melodia tradizionalen funtsa eta oinarria galdu barik.

Bihar, egubakoitza, Monterron parkean, 22:30ean.

BERGARA

### > Dantzarako musika ipiniko dute Ziripot tabernan

Dantzarako musika saioak egongo dira Ziripot tabernan. DJ Elektro K diskos-jartzaleek emanaldia egingo du bihar, egubakoitza, eta DJ Ene! vs. DJ Balza diskos-jartzaleek, etzi, zapatua.

Emanaldiok 23:00etan hasiko dira.

ARRASATE

### > Disko-jartzaleen emanaldia izango da oraingo zapatuan

Ene! (kogollo crew) eta Departure Brothers (bcn) diskos-jartzaleek emanaldia egingo dute 3.60 aretoan. Zapatuan, hilak 26, 3.60 aretoan, 04:00etan.

ESKORIATZA

### > Txatarriera Keaton taldeak gaur, eguna, joko du

Eguraldi txarragatik, Errekan Gora egitarauaren barruan hilaren 5erako iragarrita zegoen Txatarriera Keaton taldearen emanaldia bertan behera geratu zen, eta gaur, eguna, egingo dute.

Euren emanaldiak 20ko hamarkadetako filmetan eta, batez ere, Buster Keaton-

enetan daude oinarrituta; ikusten diren irudieei musika ipintzen diete.

Gaur, herriko plazan, 23:00etan.

OÑATI

### > Candelaria taldeak 70eko hamarkadako musika joko du

Oñatiako Kalean egitarauaren barruan, Madrilgo Candelaria taldeak egingo du emanaldia. 70eko jazz-rock estiloa egiten dute: Chick Corea, Weather Report edo Guadalquivir bezalako egileengandik ikasitakoak dira. Jazz-rocka funkarekin, folkarekin eta doinu latindarrekin nahasten dute. Zahar kutsua duten instrumentuak –perkusio itsaskorra, hammond-a...– erabiltzen dituzte. Candelaria izeneko diskoa aurkeztuko dute Oñatin.

Hilaren 30ean, San Anton plazatxoan, 22:30ean.

## Antzerkia

ARRASATE

### > Ipuinen baloreen gaineko ipuin kontaketa izango da

Gazte Bulegoak eta Sexoloxia Zerbitzuak antolatuta, ipuin kontaketa saioa izango da egunean, honako izenburuarekin: *Zein balio transmitzen dugu betiko ipuinekin?* Arrasateko neska batzuek egingo dute.

Gaur, eguna, Biteri plazan, 19:00etan.

## Erakusketak

BERGARA

### > Rikardo Azkargortaren ikasleen lanak, gaur azkeneko

Oraingo ikasturtean Rikardo Azkargorta margolarriarekin ikasten ibili direnek euren lanak erakusten diharde, eta gaur, eguna, da

erakusketa bisitzeko azken eguna. Kultura etxearen dago erakustaldia.

Bisita ordutegia: 18:00-21:00.

ESKORIATZA

### > Jose Aranaren inguruko erakusketa bisitzeko parada

Jose Aranaren heriotzaren mendeurrena dela eta, haren gaineko erakusketa ikus daiteke Ibarraundi museoan. Erakusketaren gaineko liburuxkak ere banatuko dituzte.

Bisita ordutegia hauxe da: 12:00etik 14:00etara eta 17:00etik 20:00etara.

Urria arte egongo da zabalik.

BERGARA

### > Esther Astarloaren zeramika lanen erakusketa Aroztegin

Esther Astarloaren (1975) zeramika lanen erakusketa dago hilaren 27a arte.

Arte Ederretan lizentziaduna da Esther Astarloa. Doktoretza ikastaroak baditu. Ikastaro asko egin ditu hainbat artista-rekin, Euskal Herrian eta Spainian. Hezkuntzan ere lan egin du, ikastaroak eta maisu lanak egiten. Bere lanean, abstraktiorako joera dauka, baina konnotazio organiko nabarmena dute bere lanek. Eskulturak zeramika teknika-rekin landutakoak dira.

Bisita ordutegia: martxinetik egubakoitza, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan: 12:00-14:00.

BERGARA

### > Euskal akurelisten erakusketta egongo da Aroztegin

Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako 33 akurelistak erakusketa ipiniko dute Aroztegi aretoan abuztuaren 1ean. Euskal Akurelisten Elkarteko kideak dira. Margolanez gain, bideo bat ere emango dute, elkartearren lanaren eta ematen dituzten eskolen berri emateko, eta akurelak egitearen gaineko hainbat material eta testu erakutsiko dituzte.

Bisita ordutegia: martxinetik egubakoitza, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan: 12:00-14:00.

## Lehiaketak

OÑATI

### > 'Batemik bestera' oporretako argazkien lehiaketa deitu dute

*Batemik bestera* delako argazki lehiaketa deitu du gaztelekuak, 12 eta 18 urte artekoendako. Oporretan ateratako argazkiak eskatzen dituzte. Jasotako lanekin erakusketa ipiniko dute, eta ikustera joaten direnen botoen bidez aukeratuko dituzte irabazleak. 150 eta 100 euroko sari bana emango dute.

Argibideak, gaztelekuak.

BERGARA

### > Film laburren lehiaketa deitu dute debagoiendarrendako

III. Film Laburren lehiaketa deitu du Bergarako Udalak. Debagoienean bizi den edozein aurkez daiteke, bakarka edo taldeka, eta edozein hizkuntzatan. Gaia librea da eta film laburra, bideo-klipa, iragarkia, irudi mutaria, esketxa, dokumentala, arte bidea... edozein genero landu daiteke.

Muga-iraupena 30 minuta da. 400 eta 300 euroko sariak eta, bi horietan bergararrik ez badago, bergarar onenarendako 150 euroko saria emango dituzte. Lanok kultura etxeen aurkezta behar dira; azaroaren 3a da horretarako azken eguna.

Argibideak: [www.bergara.net](http://www.bergara.net), edo 943 77 91 60 telefonoan.

## PROPOSAMENA



## Ospakizunak

OÑATI

### > Bertso eta saiheski-jan festa egingo dute etzi, zapatua

Oñatiko Bertso Eskolak antolatuta, etzi, zapatua, ospakizuna izango dute.

Hain zuzen, Foruen plazan, Odriozola harakinaren 100 kilo txahal saiheski prestatzen ibiliko dira Bertso Eskolakoak. Sagardoa, freskagarriak, urteko ardo beltza eta gorria, eta ura egongo dira edateko. Horrez gain, herriko bertsolariak eta Saioa eta Maider trikitilariek emanaldiak egingo dituzte.

Etzi, zapatua, Foruen plazan, 18:00etatik 21:00etara.

BERGARA, ELGETA

### > Santiago jaiak ospatuko dituzte Goimendin eta Basalgon

Basalgo auzoan, gaur kanpai-jotzea, etxafuegoak eta makala jasotzea (18:30) izango dira; bihar, egubakoitza, meza (11:00), txirrindularitzako 26. Basalgo Igoera (12:00), pilota pardituak (12:30), erromeria, XV. Dantza Txapelketa (17:45), herri kirolak (18:45) eta erromeria izango dituzte; etzi, zapatua, meza (11:30), umeendako jolasak eta bertsos bazkaria (14:30).

Goiundi auzoan, gaur, berakatz-zopak (21:30) eta erromeria (23:00) egongo dira; bihar, egubakoitza, meza (11:00), soka-dantza (12:00), bertsolariak eta trikitilariek (12:30), jolasak (13:00), herri kirolak (18:00), bola-joko txapelketa (18:30), bertsolariak (19:00), erromeria eta urdaiaz-pikoaren zozketa eta txokolate-jana (20:00) egongo dira.

Ospakizunak gaur, eguna, hasiko dira bi auzoetan.

OÑATI

### > Hainbat ekintza antolatu ditu Oñatiko Gazte Batzarrak

Gaztetxe berria dagoela ospatzeko ekintzak antolatu ditu Gazte Batzarrak: gaur, eguna, batzar informatiboa izango dute (kultura etxean, 18:00etan) eta gero, afaria (gaztetxean, 20:30ean; 3 euro da); bihar, egubakoitza, afaria, leku eta ordu berean, eta gero, Aniaren kontzertua (22:00etan).

Ekintzak kultura etxean eta gaztetxean (Otadui Zuhaitzia, 1) izango dira.

## Bestelakoak

OÑATI

### > Birziklatze tailerra eta artisau azoka egindo du ARTaso taldeak

ARTaso elkartea sortu da Oñatin, arteari eragin eta hura sustatzeko, eta artisau azoka eta birziklatze tailerra eta erakusketa antolatu ditu hilaren 27rako. Azokan, 10 artisau hartuko dute parte, otzarak, zeramika, zilarra, pilotak... lantzen. Birziklatze tailerreko arduradunak Amaia Zinkunegi eta Ines Gereka izango dira.

Hilaren 27an, domeka, Arantzazuko Gaudiaga Topagunean.



### Escondidos en Brujas \*\*\*

**Zuzendaria:** Martin McDonagh.  
**Aktoreak:** Colin Farrell, Brendan Gleeson, Ralph Fiennes.  
Erresuma Batua, 2008.  
107 min. 13 urteik gorakoendako.

Tradizio handiko zenbait azpigenero –batera lan egiten duten bi polizia, ikertzaile edo espioirena, ingelesez *buddy movie* edo *lagunen filma*; akziozko komedia; norbere burua deskubritzen duten pertsonaien drama barnerakoia...– hartu eta udako sorpresa –atsegina-asmatu, idatzi eta zuzendu du Martin McDonagh ingeles-irlandarrek. Oraindik gure artean ezaguna ez bada ere, McDonagh izen handiko antzerki idazlea da bere herrian. Hemen, komedia, drama, akzioa eta gogoeta existencialista batzen dituen film bat eskaintzen digu, eta bete-betean asmatzen du elementu horiek batzerakoan.

Protagonistak Ray (Farrell, urte askotan egiten duen lanik oneneari) eta Ken (Gleeson) dira, ordainpeko bi hiltzaile. Londresen agindutako "lan" bat gaizki irten zaie, eta Belgikako Brujas hirian gordetzeko agintzen die Harry buruzagiak. Akziozko film bat Brujasen girotuta egoteak dagoeneko esaten digu oso ezohikoa dela; Europako Erdi Aroko ondoen gordetako hiria da, ikusgarria, baina ez da lekurik egokiena akziozko kontakizun baterako. Brujasen egoteak eta Londresko esperientziako oroitzapeneak pentsarazi egiten dute Ray, eta bere buruaren eta bizitzaren gaineko gogorata egiten hasten da. Horren kontrapuntua da bere lankide Ken. Geroago, Ray maitemindu egingo da, eta, horrez gain, azkenean, akzioa eta arriskua bizi izango dituzte.

Hori guztia bateratzen saiatu dira hainbat film lehenago, baina honakoak maisuki lortzen du, eta hori egin dai-teke McDonagh-en luma talentuunari esker. Gatzet betetako elkarriketek, umoreak –zuzentasun politikoari muzin eginaz–, kutsu existenzialistik, istorioak ematen dituen bueltek eta aktoreen lan bikainak film ezohikoa eta gustagarria osatzen dute.

Naiara Larrañaga

## Zinema

### ARRASATE MONTERRON PARKEA

**Eragon**  
Abuztuak 1, egubakoitza: 22:30.

### ELGETA ESPALOA

**Zinema emanaldia**  
Eguaztena: 21:30.

### OÑATI GAZTELEKUA

**Itsaspeko zine zikloa**  
Uztailaren 24, 25 eta 27an eta abuztuanetan 27, 28 eta 29an: 18:30.

### EIBAR UNZAGA

**X-files**  
Eguna: 19:30, 22:15.  
Egubakoitza, zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelena eta martiztuna: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ GURIDI

**Superagente 86**  
17:30, 20:00, 22:30.

### X-files

17:30, 20:00, 22:30.

### Kung Fu panda

17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

### Hancock

17:00, 18:50, 20:40, 22:30.

### Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal

12:15, 17:00, 19:30, 22:00, 00:20.

### El incidente

12:15, 16:05, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.

### Superagente 86

17:00, 19:40.

### Posdata: te quiero

17:30, 22:10, 00:45.

### El incidente

20:00, 22:20.

### Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal

22:15.

### Paso de ti

16:10.

### YELMO CINEPLEX-GORBEIA

**Hancock**

12:15, 15:30, 16:30, 17:30,

18:30, 19:30, 20:30, 21:30,

22:30, 23:30, 00:30.

### Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal

12:15, 17:00, 19:30, 22:00,

00:20.

### El incidente

12:15, 16:05, 18:05, 20:05,

22:05, 00:05.

### Superagente 86

12:15, 16:00, 18:10, 20:20,

22:30, 00:40.

### Posdata: te quiero

19:30, 22:10, 00:45.

### El incidente

20:00, 22:20.

### Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal

22:15.

### Paso de ti

16:10.

### Doomsday: el día del juicio

AEB-Erresuma Batua, 2008.

Zuzendaria: Neil Marshall.

Aktoreak: Rhona Mitra, Bob Hoskins, Adrian Lester.

105 min. 13 urteik gorakoendako.

Herrialde bat birus batek erasotu du, eta agintariak 30 urte irauten duen koarentean jartzten dute.

Punta-puntako aditu talde bat bidaliz dute herrialde horretara txerto baten bila.

### Posdata: te quiero \*

AEB, 2007. Zuzendaria: Richard LaGravenese. Aktoreak: Hillary Swank, Gerard Butler.

126 min. Denondako.

Holly Jota geratzen da senarra hil egiten zaionean. Halako batzen, 30.

urtebeteara eta gero, senarraren gutun bat jasotzen du Hollyk,

animua ematen.

### Funny games \*

AEB-Franczia-Alemania-Italia,

2007. Zuzendaria: Michael Haneke. Aktoreak: Naomi Watts,

Tim Roth, Michael Pitt.

111 min. 18 urteik gorakoendako.

Annia, George eta Georgie semeak oporrik hasi dituze atxean.

Halako batzen, Paul eta Peter gazteak agertzen zaizkie atxean...

### Aliento \*\*

Hego Korea, 2008. Zuzendaria:

Kim Ki-duk. Aktoreak: Chang Chen, Zia, Ha Jung-woo.

84 min. 13 urteik gorakoendako.

Yasmina maroak gazte bat da.

Espanian dago ikasketak bukatzen.

Ez du bere leku topatzen bizeleku berrian.

### Tropa de elite \*\*\*

Brasil-Argentzia, 2007. Zuzendaria:

José Padilha. Aktoreak:

Wagner Moura, André Ramiro.

115 min. 18 urteik gorakoendako.

Rio de Janeiro, 1997. Juan Pablo II.a

hara doa bizi izatera, eta polizia-

buru bat agintzen diote favela

gunea "baketza".

### Kung Fu panda \*\*\*

AEB, 2008. Zuzendaria:

John Stevenson eta Mark Osborne.

92 min. Denondako.

Po-kung-fu maite du, eta jakingu du antzinako iraragaren bat betetzeko aukeratura bera dela...

### Eskalofrío \*\*\*

Espania, 2008. Zuzendaria:

Isidro Ortiz. Aktoreak: Junio Valverde, Blanca Suárez.

100 min. 13 urteik gorakoendako.

Santik eguzkiaren argi alergia dio.

Amarekin, herrikia batera doa bizi izatera. Hainbat lagun hil dira han.

### Sexo en Nueva York

19:15, 22:10.

# Heavya gustuko dutenendako

**WACKEN JAIALDIA** Alemanian urtero Wacken jaialdia egiten dute; uztailaren 31tik abuztuaren 2ra arte iraungo du

**MIRIAN BITERI > ARRASATE**  
 Sei urte daramatzate Isidoro Jurado eta Julio Mauri arrasatearrek abuztuaren lehenengo astean Alemaniara joaten, Wacken heavy jaialdiaz gozatzen. Aurten ere ez dute kalerik egingo eta datorren martitzenean, hilak 29, abiatuko dira heavyaren hiriburantz: "Izugarri gustatzen zaigu hara joatea, eta, beraz, ahal dugun bitartean, jaialdira joaten jarraituko dugu", esan du Juradok.

Autobusez joango dira haraino. Bidaia antolatua da eta Bilbotik irteten dira. Amsterdamen geldiunea egin ondoren, helmugaino joaten dira gelditu barik. Wacken Hanburgo ondoan dago. Dena aurreikusita dagoen moduan irteten bada, uztailaren 31n iritsiko dira hara. Alegia, jaialdia hasten den egun berean.

"Goizeko lehen orduetan iristen gara hara, lasai kanpatzeko", azaldu du. Hortik aurrera, hiru egun luze dituzte gustuko duten musika entzuteko eta, bide batez, parranda egiteko: "Gura baduzu, gauez eta egunez egin dezakezu

**DEBAGOIENEKOAK** Mundu osoko heavyzaleak joaten dira; tartean, Julio Mauri eta Isidoro Jurado arrasatearrak

han jai. Bainak kontzertuak eguerdiann hasten dira eta goizeko hirurak arte irauten dute. Guztira, 50 eta 60 kontzertu artean izango dira, hiru agertokitan banatuta", jakinarazi du arrasatearrak. Gaineratu du dena oso ondo antolatuta dagoela.

Mauri eta Jurado bakarrik doaz jaialdira. Bainak, horrenbeste urtez hara joan ostean, ezaunak egin dituzte dagoeneko; baita debagoiendarrak ere. Horren harira, esan du bailaroko beste herri batzuetatik ere joaten direla, Bergarakit-eta.

**JAIALDIAZ GAIN, OPORRAK**  
 Jaialdia abuztuaren 2an amaitzen bada ere, arrasatearrak ez dira jarraian itzuliko etxera. Azken bi urteotan, Europa ezagutzeko aprobetxatu dute. Iaz Hamburgon, Berlinen eta Pragan izan ziren; eta aurten Munich eta Suitza bisitatuko dituzte. "Normalean, toki heavyak dauden herrietara eramatzen gaitu antolatzaileak", adierazi du azkenik Juradok.

**TURISMOA** Wacken jaialdia amaitzean, partaideek Europako hainbat toki ezagutzeo aprobetxatzen dute



Irudian, Julio Mauri eta Isidoro Jurado, orain dela hiru urteko Wacken jaialdian.

GOIENKARIA

## ahobero

**"Operacion Triunfo'** programak kaka besterik ez du sortzen; negozio eta gezur hutsa baino ez da"

Pereza > Musika Taldea

Talde madrildarrari, antza, ez zaio askorik gustatzen *Operacion Triunfo* telebista programa. Negozio eta gezur hutsa dela argi dago, bestela ezlukete-eta horrelakorik telebistan botako. Bainak horretan parte hartzen duten gazteak errespetatu beharko lituzke.

## iturri onetik

**Debagoieneko trikiti eguna**  
**Antzuolan izango da apirilaren 25ean**

Datorren urteko Debagoieneko trikiti eguna non eta noiz izango den ezagutzera eman dute. Antzuolan izango da, apirilaren 25ean. Dagoeneko hasi dira jaialdirako dirua batzen. Antzuolako jaietan, esaterako, zokzeta egin zuten. Aintzane Iraetak irabazi zuen; 931 zenbakiduna. Hamabi txuleta eta sei botila ardo irabazi zituen. Antolatzaileek azaldu digute irailean hasiko direla eguna gertatzen.

## piperraутса

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperraутса

### Ilunago

Iaz baino ilunago goaz oporretara. Iaz artean su-etenak bizirik zegoen, eta opor atarian ez genien susmo txarrei biderik utzi nahi. Lehertu berria zen *subprime* hipoteken kontua AEBetan, baina oso arazo lokalak zen artean, gu salbu geunden.

Bi kontu horiek bereziki iluntzen digute udazkena. Inork ez daki krisi ekonomikoaren ondorioak noraino iritsiko diren, baina denok dakigu babesgabeenak ordaintzen duela horrelakoetan fakturaren zatirik handiena. Era berean, inork ez daki zehatz nola gauzatuko den kontsulta-konfrontazio-hauteskunde ibilbide hori, baina denok nahi genuke gure klase politikoa korapiloak askatzen trebeago.

Giro ilunagoan ere, laino beltzek ez diezagutela galarazi tarteka ageri den eguzkiaz gozatzea. Ondo pasa uda!

## ai, ene!



**Lurzorua garbitzeko txankletak sortu dituzte**

Irudian azaltzen diren txankletak funtzio bikotza dute. Betikoan gain, zoru-garbigailu moduan ere erabil daitezke.

www.sarda.es



**UGARTE**  
 AROZTEGIA - ALTZARIAK

arotz lanak orokorrean · leihoak · ateak · horma-armairuak

**erakusketa eta talierra**  
 san juan 1a · bergara  
 tel.: 943 76 54 91  
 faxa: 943 76 08 04



**altzari denda**  
 ikerleku zeharbidea · bergara  
 tel.: 943 03 46 30

